

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XXV Zenbakia.

1 993

Urrilla-Gabonilla

AURKIBIDEA

	Orr.
Euskal ízenak erdiaroko idazkeran. - Latiegi tar B.	1
Kardaberaz Bazkuna eta Lekuona "Zaarra". - Arrinda tar Anes	10
Euzkeraren Jato.ia. Urrestarazu tar A.	14
Euskeraren sustarrak eta adierazpenak. - Segurola tar S	17
Orain írurogeta amazortzi urte umien azikera ta eziketa.- Solozabal tar Paulin.	27
Antxiñako bizimodua. - Zubiri tar Iñaki.	35
Beasain izena dala-ta.- Dorronsoro tar Juan	40
Euskera erakusketan metodoak duan zer ikusia.- Oñatibia tar Yon	48
Mungialdeko esakerak. Jabateko igerkizunak eta Jatabeko koplak.- Legarreta tar Asier	53
Esaera zarrak.- Malax-etxebarria tar Yon	58
"Mundo"ko "Hemengo gauzak".- Artolazabal tar I.	59
Liburu barriak. - A. Onaindia	60
Anes ez da Ane. - Arrinda tar Anes	63
Eutsí Euskera eta Euskalerriari. - Medina tar B	64
Au izkera jatorra.- M.O.	64
Erriaren esaldi jatorrak.- Oñatibia tar B. (Kanpo eta barruko azaletan)	

Zuzenbideak:
GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

ERRIAREN ESALDI JATORRAK

- Nere lagunak nun ote dira?
- ORAIÑTXE-ORAIÑTXE joan dira.

Bazkari on baten ondoren:

- AU JATIA!

-
- Zu ez zera batera joango
 - Bai, bai! Joango naiz!
 - BAI OTE GERO...

-
- Loentxo zartzen ari da.
 - Zartzen? SASOI -TXARTXOA dauka...

-
- Edukiya DA.
 - Bai zera!
 - EGIÑA BEINTZAT.

-
- Gaur ere banketea!
 - Eta ez NOLAÑAIKOA!

-
- Orain ere, semearen ebakuntza dala ta emen (urdaili aldean) KORAPILLO batekin nago.
 - ARRITZEKO, ZU ALA EGOTEA...

-
- AU DALA TA EZ DALA, zu beti kezkatu.

-
- GERO-GEROKOAK!

-
- Ankian miña artuta nago!
 - Ai, Ai, Ai...

(Arrituta) ARA!
(Arrituta) ARA BESTEA!

-
- Alako il egin ornen da.
 - BAI ZERA!

-
- Ez zuten BIDE-GALTZERIK IZAN.

-
- Ordurako BERANTETSIA zegon.

-
- Arnasa BARREÑ- BARRENDIK artuaz!

OÑATIBIA'TAR MANU'K JASOAK

Gipuzkoako Aldundia

Eusko Jaurlaritzza



Bizkaiko Foru Aldundia de Bizkaia
Diputación Foral

EUSKAL-IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

* * *

872'GARREN URTEKO LARRUKI BAT (jarraipena)

GARRAÑTZI AUÑDIKO OARRA: Uts aundi bat egin nuan "Euskerazaintza" deritzan gure aldizkari onen XXI zenbakiaren 8'garren orrian. An, IÑIGO izena, gutxi-gora-bera, Kristo'ren denborakoa zala idatzi nuan, 90'garren urteko burniori edo brontzeko ol batek, Enneges edo IÑIGES abizeneko eusko-gudari bati Erroma'ko "ziudadani" edo urikidetza eman zitzaiola esaten dualalako. 90'garn urtean Domiziano zan Erroma'ko inperatore.

Batere kezkarik gabe idatzi nuan ori, ortaz une artan buruz ari nintzalako.

Kezka, nere esakizun ura gure aldizkari ontan idatzirik ikusi nuanean sortu zitzaidan. "Bixente: —esan nion nere buruari—, burniorizko ol ori *Krist'osteko* 90'garren urtekoa ez baiña, ez al duk *Krist'aurreko* 90'garren urtekoa"?

Eta orrela izan ere da: Krist'aurreko 90'garren urtekoa! Kristo ta Amabirgiña ez ezé, apika ez ziran oraindik jaió Amabirjiñaren guraso izandako Jokin eta Ane'ren aitón-amonen gurasoak ere.

Ondo zarra dugu beraz Ennego edo Enneko edo IÑIGO izena. Krist'aurreko II mendekoa! Burniori-ol artako Enneges edo Iñigez gudari ark Krist'aurreko 90'garren urtean gutxienez ogei ta bost urte balinba'zítuan, eta abizena bere aitaren izenetik artua ba'zuan, aita ura, Ennego edo IÑIGO jaun ura, Krist'aurreko II mendearen 15'garren urtearen inguruan jaioko bait zan.

Beraz, Krist'osteko Domiziano inperatorea baiño zarragoa ez ezé, bada IÑIGO edo EÑEKO euskal-izena, Erroma'ko Inperiotzaren asiera baiño zaarragoa ere. Julio Zesar baiño zaarragoa. Erroma'ko Errepublikaren denborakoa.

Baiñan errua apalki agertuz gero, asi nedin gaurko utzi genduan 872'ko larrukiaren ikerketa.

* *

Jarrai dezagun orain arte aski xee landu dugun Larruki onen azterketan. Ona-ko itz auek peintzen zaizkigu:

LARRATE
FOÑTAÑAS
ESCAFLIETA
LOMBAÑA

ÑAPOÑE
LASTRAS
RUSIOÑ
IHANIA

TOVIELLAS
COMENZAÑA
DOÑDISLE
VAL CAVATA

VARGA
GOVIA
IMAÑA

Izen oiek ia danak, Losa-Aranean dagoan OTEO deritzan udaleko errien izenak dira. Izen oietako batzuek, FONTANA'k eta LARREA'k, ez dute guretzako erakarmen geiegirik.

Aurrenekoa, Fontanas, seguruaski ITURRIETA'ren lateraketa da.

Axolagarriagoa zaigu gazteleraz "pastizales" izango litzakean LARRATE. Gazteleraz "helechal" dan OTEO'rekin batera, Losa eta Gobia araretako jendea IX mende artan euskalduna zala argi-argi adierazten bait digu. Orregaitik ainzuzen esan dut zalantzarik gabe, "Fontanas" ura "Iturrieta" edo onen antzeko beste euskal-izen baten aldakuntza dala.

Araba'n ere, Nafarroa'ren muga-mugan, bada beste OTEO bat. Athletic-zaileek atsegin onez entzungo dute erri ortako eliza San Mames'en izenekoa dala. Eta nik berriz, San Mames dala-ta, aspaldidandiko zor bat bete nai dut orain.

Bein, irakurlei, ezagutzen zituzten San Mames'en baselizen berri eskatu nien. Batek erantzun zidan, Aurre-Aprairz'tar Balendin'ek, Kortezubi'ko Basondo'n bat badala esanez. Erriak Santimamiñe esaten ornen dio, eta izen ortako, — izen ospetsuko! —, leitzaren alboan ornen dago. Ederki dio Aurre-Aprairz'ek: "Mames izenak ames edo ameseta antza dualako-edo, amesetatsuak joaten zirean eta orain be joaten dira, euren gexoa osatzeko eskatzen". Eskerrik asko, Balendin.

ESCAFLIETA.- "...vadt ad Escaflieta": "Escaflieta'ra doa". Ez dago argi larrukian erri bat ala mendi bat zan. Erria ba'zan ere, Madoz'ek ez du aipatzen-da, aspaldi ezabatutako erria izan bear du. Izena bera ere aski du parregarria. Euskalduna ote da?. Bai beintzat bere aurreneko erdia: ESKA.

"ESKA"z eta "ASKAZ"z asten diran toki izenak asko dira Euskalerrian: "Eska"z asten diranak, ESKARTZA adibidez, "askar"tik ornen datoz. "ASKAR", berriz, erderaz "quejigo", ametz-mota baten izena da. Oraindik gaur-egun euskeran bizirik diraun itza.

Etimologi ori, naiz beti ez, baleike oso maiz egiazkoa izatea; Eskartza eta Askartza abizen bat bera bait dira. ASKARZA, Araba'ko erri bat da. Erri orri ESKARZA esaten dio XIII mendeko dokumentu batek.

Itzen asierako "E" ta "A" izkiak oso maiz agertzen dira, dokumentuetan, eta euskaldunen ezpainetan, alkar-trukaturik: Estarrona, Astarrona; Eizkibel, Aizkibel; Ezponda, Aizponda; Egileta, Agileta...

ESKARGA, Gipuzkoa'n Angiozar eta Legazpi-arteko mendate bat da. Gaur, oso gaizki, "Puedo de Descarga" esaten zaio, "Puerto d'Escarga" geiago gazteleratuz; orrela aldaerazten bait zaie itxura izen euskaldunei. "Eskarga" ez ote da beñere "aldapa" izan? Orrela ba'litz, "Puerto d'Escarga" "Puerto del Puerto" izango litzake, Araba'ko "el Valle de Arana", "El Valle del Valle" dan bezala.

Danadala, "Eska"z asitakoak, "tilo" dan EZKI'tik sortuak ornen dira. Baleike, baiña ez beti. Oiñarri ori du noski EZKIOGA'k: "Ezki Ugariko Tokia". Eta zer esan ez, EZKITI'k. Baiñan EZKA Erronkari'ko errekek oiñarri ori bera duala sinistea, oso zail egiten zait.

EZKARAI Errioxa'ko erriaren etimologia azaltzeko ere, "Ezki-Garai", "Tilo Alto" edo "Sobre el Tilo" baiña atsegin aundiagoz esango nuke "Peña Alta" edo "Sobre la Peña" dala: AIZ-GARAI. Berdin diot Nafarroa'ko EZKAI erriari-buruz, Ezkai Ezkarai'ren laburpena besterik ez bait da. Ezkarai, "aitz-gaiñean" baiño "aitz-pean" geiago dagoala? Oroi izenen toki-aldaketari-buruz beste zenbait lekutan esana duguna.

"Eskaflieta"ren itsatseko FLIETA ("fli" - "eta") ori zer dan ez dakit: "eta" atzizki

euskalduna dugula eta FLIKAGARAY abizen euskaldun bat dala, bai; baiñar. "FLI" zer izan daitekean, ez. Ez nik ez besteek; ez bait dut inon abizen orren eti mologirik aurkitu.

Ñola ote zegoan idatzia "Escflieta" ori larruki onen aurreneko idazkeran?

ÑAPONE.- "...de illo rivo qui dicitur Ñapone": "Ñapone esaten zaion ibaietik", Gaur Ñabon esaten zaio ibai orri. "B" eta "P" bata bestearekin errez aldatzen bait dira gure izkutzan. ("Bertsolari" ez baiña "pertsolari" idazten du laburdieraz Ñarbaitzek oraintxe irakurri diodan idazlan batean).

"Ñabone" eta "Ñapone"rek in antzarik aundjena duan izena, Ñaparroa'ko erri batena da: ÑAPAL, baiña ez dakit onek ere zer etimologi izan dezakean, Lopez Mendizabal'ek dion bezala, izen ori, "pasto" esan nai duten "aba" eta "abai"tik datorrela esatea, zentzurik ez duan gauza dala iduritzen bait zait. Gaiñera, "aba" eta "abai" bizkaierazko itzak dira, ez naparrera garaiekoak; gaiñera-gaiñera ez dute "pasto" esan nai, "abaraska" baizik: "panal de miel", gaztelerez.

VARGA.- "...Usque ad illa varga qui summat ad Lastras": "Lastras-gañean da-goan Varga artaraño". Ez da nere ustez erri baten izena, naiz "V" nagusiz idatzirik agertu, lumalari zar aiek ortografiari ez bait zioten jaramon aundirik agiten. Baiñan ala ba'litz ere, "barga" gure toki izen askotan agertzen zaigun itza dugu:

BARGAIN, bere 1 .232 metrorekin, Urbasa'ko tontorrik garaiena da. Aban to'ko auzo batek ere, BARGA deritza. Ega ibaiera sartzen dan lats edo errekatxo batek ere izen ori darama: BARGA. Ñaparroa'n Arga'ra doan beste lats batek ere BARGA ori darama bere izenaren asieran: BARGAGOROI. Izan au, len, "Bargagarai" ote zan? Latsak maiz artzen bai dute sortzen diran mendien izena. BARGOS, larre baten izena dugu Laburdi'n. "OS", "OTS", atziki toki adierazle da. Zer ote da "BARGA"?

Esan dut, nere ustez larruki ontako "Varga" ori toki-izen bat ez dala. Laterazko itza ere ez da. Gaztelera zarrekoa omen da, Martin Alonso'k bere "Erdiaroko Gaztelaren Iztegia" dionez; "monte bajo" esan nai omen du, eta XIII mendean agertzen ornen da aurreneko aldiz gaztelaran. Bertzeo'ko Gontzal'en "Donemilian'en Bizitza" eta Juan Ruiz Hita'ko Arzipreste edo Goibereterraren "MajtasUn Ederraren Idatzja" izeneko liburuetan ainzuzen.

"Varga" lateraren itza ez dalarik, IX mendeko lumalari ark ez zezakean larruki ontan "vargarik" idatzi. Zer idatzi ote zuan ba? MUÑÑIO? Edo, ziurkiago mintza gaitezen, MUÑO irakurri bear dan itz ori lateraz emateko, zer idatzi ote zuan? Erantzunik gabeko galdera.

Alatagutziz, ez dezagun azturik laga BARGA orrek bere altzoan AR itza bada-ramala; "BA" eta "BE" "beetasuna" esan nai duten atziki ta aurrizkiak dirala: "Benaparroa", adibidez "Beeko Ñaparroa" dala. "GA", "AGA", berriz, atziki ugaritasun eta toki adierazleak dira. Ortaz, naiz "cum timore et tremore", "ikara ta bildur" aundiz, ausartzen naiz larrukiko "VARGA" (Ba-ar-ga) orren etimologia "Beeko Artza" edo "Arritza" izan daitekeala, ixil-ixilik esatera.

LOMBAÑA.- "...iuxta villa Lombana". ("luxta" k, "alboan" esan nai du). Madoz'k ez du erri au ere aipatzen. Aspaldi ezabatutako erriskaren bat dalako siñale. Izan orren atzeko toki-izenak baditugu: LOÑBA bera Bizkai'ko enkarterrietan

abizena da, eta, Araba'ko Saltzedo'n, toki-izena; Salazariko Garzia'tar Lope'k ainZuzen bere "Bienandanzas e Fortunas" liburuan aipatzen duana. Larri ibilli ornen zan ba Lonbana arfan Salazar'tarren eta Amoros'tarren arteko borroka batean.

Lonbano, berriz, Araba'ko Errioxa'n olor bat zan 1.697'an; eta Lonbilla, larre bat; Lonbart, Benaparroa'ko abizena da; Lonbeakogana, 1.607'an, Araba'ko Markinez'en, toki-izena; toki-izena da LONBA bera ere Araba'n. Eta "O" errez "U" biurtzen dalako, larrukiko "Lonbana"ren sendikoak dira izki ori daramaten izenak ere. Eta izen auek, LUN edo LOÑ daramakiten izenak, nai dituzun aiña aurkituko dituzu iztegietan. Larrukiko "Lonbana" orren aide diran abizen eta toki-izenak Euskalerrri osoan bait daude zabaldurik.

Baiñan naiz ain zabaldurik egon, izen oien etimologirik ez dizu iñork emango. Iñork ez bait daki LOÑ edo LUN oiek zer izan dezazkegun. Ez zait ba batere fidagarria gertatzen, "Lonba" "pastizal" esan nai duan "ona"ren aldakuntza dan "onba"tik datorrela esatea, euskal-iztegiek "ona" orri orrelako zentzurik ematen ez dioten ezkeru.

Mitxelena'k aipatzen du LOÑBIDE, baiñan soilki "bide" zer dan esateko bakarik, zer esan nai duan igertzeko askoz zaillago dan LOÑ zokoan isilik utziz?

GOVIA.- "Sancta María de Govia". "Coba", "Cobea" eta fonetikaren eragiñez, "Gobia", bizkaieraz, guk "Leiza" esaten diegun artzuloei esaten zaie. Araba'ren erdialdeko menditarrentzat berriz, sortaldetik sarkaldera, "Gaba"k ala "Gobia"k, beren lurraldean oso ugari dituzten erdiaroko artzuloei esaten diete, orañdik euskerazko itza erabilliz. Zulo oiek arri ustel beratzean V, VI eta VII mendeko kristau bakartasun-zaleek, bertan erarik gogorrean penitentzi egiñez bizitzeko iri-kiak dira.

Ortik datorkio Valdegovia edo Gohiaran'i bere izena, ugari bait dira aran polit artan "Gobiak".

Gaur, Euskaltzaindiak, — Euskaltzaindi doakabe onek egindako okerkeri bat geiago —, aran maitagarri orri GAUBEA izan eman dio, eta izen ori idatzierazi du Gohiaran'en sarrerako bideertzetan. Agertua dut aldizkari onen zenbaki batean, okerkeri orren zergaitia:

Urteak dira, nik Gohiaran'en etimologiaz izparringi batean mintzatu nintzala.

Gezurrezko izena erabilliz Mamu ezezagun batek, aran orren egiazko izena GAUBEA zala erantzun zidan, Caro Baroja'k izen ori agertzen duan dokumentu bat aurkitu ornen zualako.

Balpuesta'ko gotzaitegi'ko dokumentuetan bai, "Gaubea" agertzen dala, — erantzun nion —, baiñan beste dokumentuetan "Gobio" esaten zaiola, eta, ainzuzen, izen ontakoa dala ia iñoiz "AU" z. idatzia agertzen ez dan "O". Eta, Caro Baroja'k ez duala sekulan esango Gohiaran'en izena Gaubearan danik, erdiarokan "O" "AU" idazten zalako ori, onda dakilako.

Alatagutziz, "GAUBEA" oker-bataiatu du Euskaltzaindia Gobia. Ñik beti uste izan nuan, neri — era zakarrean gainera — aurka egin zidan Mamu ezagun ura Euskaltzaindiko jauntxo bat zala. Gaur, Cobiaran'i gertatu zaiona ikusi ondorean, zero ziurtu zait zalant %azko nere uste makur ura.

TOBIELLAS.- "...iu xta viñas de i oviellas": "í oviellas'ko mastien ondoan".

Araba'n gabiltz oraingo ontan; Gobiaran'en ain zuzen. Aran ortakoa bait zan — eta da — orain TOBILLAS esaten zaion erri oh. Iberos aruntzko Errioxa'n ere bada izen ortako erri bat: "Tobilla". Izen au bera da ama Araba'ko egoan Santa Cruz del Fierro'ko alor batek ere: "Tobilla". "Tobika", berriz, Araba'ren erdialde-mendietako Fuidio'n beste alor batek.

Izen orren etimologira sartzeko, JOIbi zer dan jakin hearco genduke. Araba'n, TOBIA abizena bada; eta baita TO5IO ere Araba'n bertan eta Ihero'z aruntzko Errioxa'n. Tobia, "tobi-a", (gazteleraz "la tobi") izateaz gaiñera izan daiteke "tobi-aga" ere, ("lugar de tobis", "tobera") "aga" atzizkia "a" 'use bat biurtzen bait da euskaldunen ezpaiñetan.

"Toba" gazteleraz, arbela'en antzeko ani ustel bat da.

"Tobiellas" "Lugar de Pequeñas Tobas" esan nai duan gaztelerazko itza dala erabakita, ¿zergaitik ez dugun arazoa bertan bera uzten, katuari bosgarren anka billatzen ibilli gabe? Ba... katu onek bosgarren anka badualako. Ez zan ba oraindik IX mendean gaztelerarik jaiol ta gaztelerarik jalo ez ba'zan ez bait daiteke izen orren etimologia gaztelerazkoa izan! Reste alde batetik ekin bearko diogu beraz katu oni, bere bosgarren anka billatzeko. Euskeraren aldetik naitanaiez.

"Toba"ren lenen °T" orrek izki protetiko orto edergarri utsa dala dirudi. Zer ote da "OBA"? Lopez Mendizabal'en ustez, "larre" esan nai duan `obe"ren aldakuntza. Kerexeta'k berriz "Tobia"ren "ohi" ori, euskeraz "zulo" asan nai duan "obi" ber-bera dala diosku. Eta, arrazoi osoa da, ezpairik gabe. Ortos "ohi" + "a" = "obi" + "aga", OBIAGA izango litzake, OBIETA Riz<ai'a ZULOAGA bardulitarren eta baskoien artean.

Mitxelena latinzaleak, euskerazko "OBI", "ORIA", ori, laterazko "FOVEA"tik datorrela dio; dirudianez, baste norbaiten abarra jarraituz; "Romaniches Etymologisches Wörterbuch" aipatzen bait da.

Ez dugu guk aldizkari ori gure libutegian. Baiñan Mitxelena'k ez du OBI euskalduna "FOVEA" lateratarretik datorrela egiztatzeko arrazoi bat bakarrik ematen. Ezta, ziur esan dezaket au --, aipatzen lorán aldizkari doixtar ark ere; onek emango ba'lu, arrazoi ori azalduko bait zigun Mitxelena'k.

Jakin bezate ba biek, itxura berditsukoak izatea es dala naiko arrazoia, izkuntza ezberdiñetako itzak bata bastearen aide dirala esateko.

CORMENZANA.- "In via qui discurret ac.; Cormenzana":

"Kormenzana'ra doan bidea". "...Via qui venit de Cormenzana, et discurret ad Imanna": "Kormenzana'tik datorren eta Imaña'ra doan bidea". Dakuszunez, larruki bateko aapaldi bat berean bi e'az idaztirik datorkizu izen ori: "M"z, eta "Ñ"z. Lumalari zar aien idazkerak usteon geiegirik merezi ez dualaren adigarri.

"Apellido vasco de etimología problemática" daga kornrentzana, "Encic. Genl. ilustr. del País Vasco" ren ustez. Kerexeta'k, xeetasun geiago emanez, jatorriz Gipuzkoa'koa eta Nafarroa'koa dala diosku, eta Lopez Mendizabal'ek asmatutako etimologia damaigu:

"K" edergaillua + "pasto" asan nai oroen duan "ormaln" + "tza" ugaritasun adierazlea + "ana" toki adierazlea: "Larreategi" euskeraz. "Pastizales" gazteleraz. Zer esan?

Auntz basatien antzera larre-zaleeiia izan zitzaigula Lopez Mendizabal'dar lxaka nere adiskide tolosarra. Auntzak t,)e _ale , al duan guztian larrera jotzen bait du etimologi-asmatze-lanetan. "Ormain", "OHMAIN" bertako jendearen izkeran, Gipuzkoa'n Orendain'go mendi bat da, "ormagiñ" edo "constructor de paredes"

Izateaz gaiñera; baiñan akeneko zentzu onek ez du balio Orendain'go mendi aren etimologia argitzeko. Ormain "larre" ere izan daitekeanik ez dut iñon aurkitu. Ezin dezaket beraz Lopez Mendizabal'en etimologi ura ontzat artu. Ñondik jaso ote zuan nere adiskide maite arek itz orren - eta beste ainbeste eta ainbeste Itzen - esanaia "larre", gazteleraz "pasto", dala?

"Ana", toki adierazlea izateaz gaiñera, izan daiteke jabetasuna adierazten duan "REÑA" genitibu-atzizkiaren laburpena ere: euskaldunok oso gustora egiten dugun laburpena. Orrela, "aitarena", "aitana" esaten dugu; "Pedro'rena", "Pedro'na". Laburketa-arau orren eragiñez, Araba'ko AÑTOÑANA'ren etimologia, "Anton'ja'rena" da. Eta gure fonetikak "nia" "ña" biurtzen dualako, "Antoñarena"; gaurko euskaldunon gustora, AÑTONI'REÑA. Aipatutako laburketa egiñez, "Antiñi'na"; eta -- Araba'ko erri arresituaren izenean - AÑTOÑANA.

Ez dago orrelako izenen etimologia billatzeko Caro Baroja'k bezala laterara jo bearrik.

IMAÑÑA.- IMAÑA, esan dugun lez bi "NÑ" oiek "Ñ" agoskatu bear diralako. Izen ortako erri bat, IMAÑA, bada gaur Burgos'ko Tobalina aranean. IMARKOAIN, Elortz izeneko aranean, Ñaparroa'n, baserri-auzo bat da. IMOZ, Ñaparroa'n bertan Lekunberri eta Irurtzun-arteko aran bat. IMAZ, Madoz'ek dioskunez, Oñateko Goribar auzoan baserri bat zan. Gipuzkoa'n, berriz, Imaz abizen ugaria dugu. Eta IMARAN, abizen bizkaitarra da. Naiko adibide, larrukiko IMAÑÑA ura izen euskalduntzat artzeko.

Bere etimologia asmatzea ordea, beste lelo bat gertatuko zaigu.

"IMA" zer dan ez dakit. Lopez Mendizabal'ek "zuma" dala diosku, baiñan ori nola jakin duan agertu gabe. Ezin dezakegu beraz bere iritzi ori ontzat artu. Mitxelena'k, aipatzen du IMAZ abizena, baiña "Z" ta "TZ" atzizkien zentzua agertzeko bakarrik, eta saguak katuagandik bezala iges egiten du "IMA" itzetik, itz ori ukitu ere egin gabe.

Ez dakigu beraz "IMA" zer dan.

IMAÑÑA edo IMAÑA ori "ima" + "anna" ("aña") zatitzen ba'dugu, IMAÑA'ren antzeko "aña"z asten diran emeretz izen jaso ditu Jerardo Gereñu'k Araba'n, Aramaiona'ko AÑABAR errotatik asita Trebiño'ko AÑASTRO deritzan erriraiño. Naikoak, Losa'ko IMAÑÑA edo IMAÑA ura ere euskalduna zala esan aal izateko.

Bere etimologia ordea, agertzeke utzi beariko dugu, agerpen ori egiteko oiñari sendorik ikusten ez dugun ezkeru.

MAÑATA.- Len mintzatuak gera izen ontaz. Esan genduan, "Ñ" ta "Ñ" errez nasten diralako, - "Mañana", "Manaria" - eta aldi zar artan maiz "Ñ" "ÑÑ" idazten zutelako, izen ori ederki izan daitekeala MAÑATA.

Esan genduan Manata izatekotan Tolosa'ko MAÑARIEGI'rekin zer ikusia izan zezakeala, eta Mañata ba'zan berriz, Bizkai'ko MAÑARIA'rekin izan zezakeala zer ikusi ori.

Esan genduan baitare, Mitxelena'ren ustez, "sin duda un derivado del latín Ba (I) neun" zala.

"Sin duda", Koldo? "Zalantzarik gabe" ez baiña zalantza aundiz artuko nuke nik etimologi ori. Asko bait dira MAIÑ eta MAIÑ'ez asten diran izen eta abizenak: Gipuzkoa'ko Aia'n abizena dan MAÑARI bera; aipatu dugun MAÑARIEGI, Tolosa'n; MAÑARIETA, Leniz Aranean; MAIÑ, Oiartzun'en mendi bat; Ma(i)ñeru Ñaparroa'n...

Baiñutegi geiegi Euskalerrria-zear izen oiek laterazko "Balneun"dik sortuak dirala uste izateko, naiz itz orren "la forma precisa" "ba (I) nearia" izan.

A. Yrigaray aipatzen du Mitxelena'k. Jaun onek, Iruña'ko kale baten izena Mañueta zala - esan ornen zuan -, eta kale orrek ainzuzen baiñu-etxe bat ba-

zuala. Or, bai. Or baleike Mañueta ori Bañueta izatea, baiñan ori aitortu aurretik, kalearen izena, Mañueta, bertako baiñu-etxe ori baiño zarragoa ez dan jakin bearke litzake aurrena.

Esan dezagun, gaur MANA Kintanilla'n (Araba'ren sarkaldean), ÑANANÑSOLO Apellaniz'en (Araba'ko Sortaldean), eta MAÑASARRi Zuya'ko Jugo'n (Araba'ren iparraldean), toki-izena dirala. Baiñan "MAÑ" zer dan ezin esango dugu. Beste itz batzuk bezala, bere zentzua galdu zaigun antziñako euskal-itz zaar bat ote da?

LASTRAS.- Bi aldiz agertzen da izen ori larrukian; "...illa Varga qui summat al Lastras" eta "... alia serna sub Lastras": "Lastras-gaindiko muño ura" eta "Las-tras-peko alor ura". Araba'n Balderejo edo Exo Aranean, erriska bat bada, izen ori, edo izen orren antzeko bat, daramana: LALASTRA. Ez dira erri bera. Larruki koa Losa Araneko Ñapone ibaiaren alboan dagoan bitartean, Arabarra Exo Ara-na zearkatzen duan Purone'ren alboan bait dago.

Lalastra, Araba'ko erriska bat izateaz gaiñera, Bizkai'n Zalla'ren auzo bat ere bada.

Erri orren izena bi eratara erabaki daiteke: "LALA-"ASTRA" edo "LA" - "LAS-TRA". "Lala" - "Astra" erabakiko ba'genu, bere kidekoak izango lirake Araba'ko toki-ziren auek: Maeztu'ko "LALAGORRI" Araba'ren sortaldean, Trespuentes'ko - erromatarren Trasponde'ko - "LALANÑDEA" Araba'ren erdi-erdian, Errjoxar-La-braza'ko "LALANÑZ" Araba'ren ego-sortaldean eta Illarrazza'ko "LALUZAI" berrero Araba'ren erdian.

Baiñan, zorjtxarrez, nik ez jakin, LALA zer izan daitekean!

ASTRA ere aski sarturik daukagu euskerazko izendegian. Oroi Bizkai'ko "AS-TRABUDUA" deritzan Erandjio'ko auzoa eta "ASTRABURUA" abizena. Eta "AS-TRAIÑ" erri naparra. Eta, au larrukiko "LASTRAS" artatik urbillago, LASTRAIÑ, Zizur-Aran napparreko erritxo baten izena. LASTRI, Baztan'en, Errazu'ko abizena da.

Lengo aitorpena egin bear ordea nik berrero! ASTRA zer dan ez dakidala, alegia. Bada "sasi", gaztelera "zarza, dala dionik. Ori egia ba'litz, larrukiko LASTRAS, - plural edo ugari-eran dagoalako "Las Zarzas" izango litzake gaztelera. Euskeraz, berriz, SASETA; ala SASIOLA. Baita LARRATE ere. Baiñan azkeneko au Larrate, "zarzal", ez baiña LARRE-ATE, "pastizal", izatea baleike, itzen azkeneko "E", edo galdu edo oso errez "A" biurtzen bait da. "Etxe" + "oste" _ "etxoste" ala "etxaoste"; "erle" + "untza" = "erlauntza"; "abere" + "tza" = aberatsa; "etxe" + "leku" = Etxaleku; (Ñaparroa'n Imoz'ko erri nagusiaren izena).

RUSIOÑ.- "VI eras salsas in Sancta Maria de Rusion". "Eras salsas" eguzkipean gazura lurrinduz gatza lortzeko larraintxoak dira".

Ta..., Rusion? Euskal-izena izan ote daiteke? RUSIETA jzeneko iturri bat bada beintzat Lezama'n Araba'ren iparraldean; eta bazan, baita, 1.795'ean Araba'ko zelaigunearen iparraldera dagoan Mandojana'n RUSTARAÑA zeritzan alor bat, Jerardo Lopez de Gereñu adiskide kutuna zanak bere "Toponimia Alvesa"n dionez.

"RUSI" zer dan iñork ez dizu argituko. "OÑ, "OÑA", euskal-atzizki toki adierazlea dalarik "rusion", "rusi"-toki izango litzake. Zer idatzi nai ote zuan lumalari zan arek, eskuak Rusi idatzi zionean?

Laterazko itza ez da beintzat, "Rusion" ori. Beraz, larrukian oker idatzitako euskal-izen bat izan bear du. Badaiteke, gero gaizki berridatzia izatea ere.

VAL CAVATA.- "Sancti Romani De Val cavata". Ni, izen au euskal-itx ezezagun baten lateraketa zala esanda, beste izen batera igarotzeko asmo-arturik nengoan. Baiñan "cavata" erdiaroko lateraren itza ez dala ikusi dut. Cange'k beintzat ez bait dakar itz ori bere iztegi oparoan.

Erromate'ko latera klasikoan bai, erabiltzen zan itz ori, eta "cóncavo", "hueco", esan nai zuan. Euskeraz, "sakon", "magal-antzeko".

Baiñan, IX mendean Kukulla'ko lekaide arek erromateko latera dotorerik ez zekian. Erdiaroko latera baldarrez mintzatzen zan, eta latera ortaz idatzi zuan laruki au. "Cavata", ordea, erdiaroko latera ez dalarik, gaizki idatzitako izen bat dala zirudian. Zer idatzi nai izan ote zuan gure lumalari ark? ala geroago beste norbaitek sartu ote zuan itz ori? galde egin nion nere buruari. Edota..., antziñako euskal-izen bat ote da "Cavata" ori?

Ez dirudi, itxuraz beintzat euskalduna danik. Kontuz ordea! Izen ori euskalduna izan daitekeala egiztatzeko, "KABA"z asten diran izen-talde polit bat bait da makigu Jerardo Gereñu'k:

KABAKARRA, 1717'an Betoño'n soro bat zan; KABAGAÑA, 1706'ean Añun'n, soroa; KABALBIDE, 1849'an Araba'ko Subijana'n, muñoa; KABALDIA, Kontrasta'n, toki-izena. KABALLETA, Arzubjaga'n, soroa, (atzizki beraz, PABOLLETA, lurralde zearo euskaldunear, "Azpiroz'ko Mendatearen" egiazko izena da). KABARRIGAÑA, 1823'an Zumeltzu'n, soroa; KABARRATE, Sendalio'n, toki-izena; KABARROA, 1736'ean, Apellaniz'en, soroa. KABASOLO, 1716'ean Adana'n, soroa; KABAZARRA, 1817'an Elorriaga'n, soroa; KABA, lau erritan da toki-izena: Martioda'n, Korres'en 1756'ean, Mendiola'n, Legutiano'n, eta 1718'an Antoñana'n; KABAS (KABATS bearbada) beste iru erritan agertzen zaigu: toki-izena da Margarita'n; Zerio'n 1864'ean, soroa, eta Roitegi ta Onraitaren artean, mugarri bat.

Eskerrikasko, Jerardo!

Ezin esango dizut KABA orrek zer esan nai duan baiñan orrenbeste euskal-izenen aurrizkia dala ikusi ondorean ezpairik gabe ziurtuko dizut euskalduna dala.

Eskerrikasko, Jerardo.

Alatagutziz, CABA ori batzuetan LABA izan daitekeala gogoan artu bearra da. Adibidez, CBALETA ezpairik gabe QBALETA bait da.

Oartuko ziñan, irakurle toki-izenak biltzeak euskeraren ibillera ezagutzeko nolako garrantzi aundia duan, eta arlo ortan zeñien lan ederra egin zigun Jerardo Gereñu'tarrak. Ez al zenuke zuk, zure errian beste orrenbeste egingo?

IHANIA.- "De monasterio Sancti Martini de Ihanía partis Mena" "Mena'ko Donemartiñ'en lekaidetxeaz". Ez da larrukiaren gorputzeko itza, bere idazpuru edo titulokoa baizik. Orregaitik, XII mendean-edo berr-idazleetakote batek ezarria. Ala dator "H"z. IX mendeko dokumentuetan ez bait zaigu "H"rik agertu, bat edo beste izan ezik, eta oiek ere seguruask; geroagoko birr-izatzetarakoan sartuak.

Itz ontako "H" ori "G" baten orde z dagoala dirudi: iGANIA. Eta, Iganía au, IGAINA ote da? Ñaiz "Iganía" naiz "Igaina" izan, IGAINA irakurri bearke genuke itz ori. Era ortan EGAINA'ren antza duala? Bai baiñan biak izen bat bera dirala esatera ez naiz ausartuko. IGAY, gaur, Araba'n, Ibero-ibarreko erri bat da. Eta Gipuzkoa'n, Oartzun'go abizena. Araba'ko Igay orri IGAYEGI esaten dio XIII mendeko dokumentu batek, eta IGAYIGI, berriz, IX'ean Kukulla'ko burni-barren larrukiak. Baiñan biak itz bat bera dira, azkeneko izen ortan "H" a "Y" ren orde z bait dago, karta-jokuan "komodiña" bezala erabiltzen zuten bá idazle zar aiek "H" a. Eta "I" ta "E" zeñien errez nasten ziran ikusiak gera.

Beraz, Igay arabarraren izen zar aiek, IGAYEGI, IGAYIGI ETA IGAYIGI, danak izen bat bera ditugu. Eta gaurko IGAY izena beste izen aien laburpena.

Baiñan, berez, "H" ori "Y" ez baiña "R" izan bait daiteke, Ighigi ura IGARIGI biurtuko litzaiguke, ots, IGAREGI: "lugar del Molino". Baiñan orrela izatekotan, gaurko erriaren izena IGAY ez baiña IGAR izango zan, eta, orregaitik, ez digu bi-

garren etimologi orrek balio. Gaiñera "IGA"z asten diran izenak ere baditugu. Ta, IGA orrek, Lopez Mendizbal'en ustez, "helecho" esan nai ornen du, "IRA"ren al-dakuntza omen dalako. Baleike oraingoan arrazoi izatea, Tolosa'ko "Igasarri" "Irasarri" ren aldakuntza bait da. Beraz gure larrukiko IHANIA edo IGAÑEGI ura IRAÑEGI izango litzake, Naparroa'ko IRAÑETA'ren senide; gaztelera, "HELE-CHAL".

DOÑDISLE.- "... in loco qui dicitur valle de Dondisle": "Dondisle esaten zaion aranean". Madoz'en ez da ager.

Bere etimologiarik ezin emango dizut; agian, larrukiak izen ori zearo aldaturik damaigulako.

Baiñan antzeko izenak baditu gaurko Euskalerrian: DOÑABALLA, Napparroa'ko Aranguren aranean; DOÑABARES Araba'ko Egileta'n, eta izen ori bazan an 1737'an oraindik erri ura euskalduna zanean. Donabehre, Laburdi'ko abizena da. DOÑABIRALDEA, Araba'ko San Vicente Arana'n toki-izena 1630'ean. DOÑAIKIA, Kerexeta'k dionez abizen bizkaitarra da. DOMAIKIA berriz Araba'ko erri bat. Iztegietan aurki dezazkezu orrelako izen geiago.

Baiñan ez dakit zergaitik Larrukiko DOÑDISLE ori mozorrotutako Done baten izena izan daitekeala iduritzen zaidan. Askok bait dira erriaren ezpaiñetan beren izenaren itxura galdu duten Doneak.

Zuk, Santimamiñe ezagutuko duzu, San Mames'en aldakuntza. Jondoni Murkuts (Jaun Done Murkuts) Benaparroa'ko Baigorri'n San Fructuoso ornen da NARBAITZ edestilariak dionez; Jondonane (Jaun Done Ibane), San Juan; Jondonebixintxo, San Bizente; eta Jondonesatordi, San Saturnino. Araba'ko erri batean DURRUMAN San Roman da; Eta, euskera galdu dutenez gero ere, érderaz San Roman de San Maillan esaten zaion erri ortako jendeek SANDURRUMAN esaten dioten beren erriari.

Ozkoz, Naparroa'n, Imoz'ko aranean dago. Orain dala ogeitamarren bat urte, D. Manuel Rekalde beteluarra nere bigarren-lengusua, bertako parrokoa zan. Zearo euskalduna genduan erri artan askok ez zekiten oraindik erderaz. Ba, D. Manuel'ek esan zidanez, SANTIRUTALAU bihurturik gelditu ornen zan jende bikain aien; zkeran Santa Nunilona ta Alodia martiri euskaldunen izen bikoitza. XII mendean Aimeryc Picaud erromes ospetsuak, euskaldunek Santiagori "Jaona domne Jakoe" esaten ziotela idatzi zigun.

Goraxeago aipatu dugun San Vicente Arana'ko "DOÑABIRALDEA" ori ere ez ote da "DONEBIZENALDEA" izango?

Zuk, irakurle orrelako izen-aldaketarik ezaguntzen ba'duzu, idatzi eidazu arren, izen oien berri emanez.

Idazlan au bukatu ondorean, orra non aurkitzen dedan uste gabe illeta-txartel batean DOÑDIZ abizena. Otoitz bat eskatzen zuan txartel orrek Bermeo'n il dan Aitor Dondiz Agirre'ren alde. Esan diot otoitz ori. Dondiz abizen au eta gure larrukiko Dondiz, biak itz bat bera dira. Dionisio Donea Euskalerritik bertago bizi izan ba'litz, DOÑDIS ori DOÑDIÑIS'en laburpena dala esango nuke.

Larruki ontako giza-izen eta done-izenak aztertzea peitzen zaigu.. Datorren zenbakian egingo dugu, euskal-kulturaren ibillera ezagutzeko garrantzi aundikoa dan lan or.

LATIEGI'TAR BIXENTE.

Aurrekoak gogoratzen

KARDABERAZ BAZKUNA ETA LEKUONA "ZAARRA"

Gaztetasuna ez da urteekin neurtzen dan gauza.

Badira urte gutxiekien zaartzen diranak eta urte-asko-ondoren beti gazte irauten dutenak.

Auetakoa degu Don Manuel Lekuona "Zaarra".

...

1915 urtea an dago...

Ez zan oraindik apaiz Gazteiz'ko Gotzai Eijo y Garay jaunak, Apaizgaitegi Ñagusian, euskal-irakasle ipiñi zuanean gure Don Manuel au.

Apezpiku jaun orrek berberak agindu zion Kristau-lkasbide-Berria (Pildain agurgarrjak egindako lan eder ura) euskerara itzultzeko, gero Arzzipreste-Bartzordeak eta Euskaltzaindiak ontzat eman zezaten.

1916'an, Meza Berria.

! 908'tik aurrerako ikastaro guztiak Gazteiz'ko Apaizgaitegian.

Aurreko ikastaroeri Balearrain'en eman zien asiera, amaika urte zitula. Talde artakoa degu Don Jose Miel Barandiaran ere.

! 894'an jaio, Oiartzun'go Etxe-txiki kale-baserrjan.

...

1924 da, Lekuona'ren zaindaripean, Kardaberaztarren urtea. Don Manuel'entzako ez zan ori lanaren asiera, ordurako Euskeraren arloan asita bait zeukan bere maixutza Gazteiz'ko Apaizgaitegian.

Arrezkero kardaberaztarrok beti bera izan degu sortzaille ez-ezik, baita mai-xu eta euzle.

Gazteiz'ko Apaizgaitegia degu bere lanen lekuko bereizia. Urte aietan, 1936'arte, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa'ko gazte-saillak izan zitun bere ondoan, ikasi-miñez.

Talde aien artean aziak erein zitun eskuak-bete.

Lurrera botatako azirik ez da sekulo erabat galdu: gutxien uzte danean er-netzen du eta bere emaitzak eman.

Ereintza aien emaitzak? Izen asko daude esatekoak; baiña bost bakarrik aukeratuko ditut. Beste guztiok barkatu. Ona bost izen oie: Albisu, Arostegi, Irigoyen, Kortajarena eta Loidi.

Oiekin batera kardaberaztarren orduko izen guztiak jarri bearke nituzke. Benetako emaitzen neuria ez du iñork sekula jakingo, saill osoak ekiñ bait genion Euskera-jokoari. Nere uzte argalerako uraxe da Lekuona Zarra'ren egintzarik ederrena.

...

Urteak pasa dira eta ez gutxi.

Gazteak giñanok aguretu gera; bera, ordea, beti beziñ liraiñ eta gazte. Kardaberaz-Eskolan, gaurko egunez, oraindik bera irakasle. Bere euskal-jakintza

agortzen ez dan putzua degu. Euskera erabiltzen maixu da. Gure izkuntzarer eskutuki guztien berri badu.

Alaz ere, maixu apala.

lñoren iritzietarako errespeto eta begirume aundikoa.

Ez du pitzatutako kañaberarik ebagiko; ezta ere kea-darion krisaillurik itzali ko. Arnas artzen lagundu, bai.

Gaurko egunez maixukeriz agertzen gera, bear baiño gejagoetan, ezer gu txi dakigunok. Lekuona Zarra ez dezu kasta oietako maixuen artean topatuko. Bere iritzia emango dizu; Euskerarj buruzko erarik garbienak eta jatorrena agertuko dizkizu, maixukeririk gabe.

Bide onena erakutsj, beste bide onak madarikatu gabe.

Askatasun giroan.

1930'an esagutu nuan.

Mutil) gazteak giñan. Diktadura-ondorengo askatasun-aizea nabari zan ai dean. Giroa udaberritu zan eta, giro artan, Euskal-zaletasuna zabaldu. Dor Manuel'ek berak euskeratutako Kristau-lkasbide-Berria genduan ikas-gai. Lj buruxka arrerj buruz egiten genduzen Euskara-sajaketa guztiak. Bakoitzak as-teero lantxo bat egiñ eta gero danen aurrean irakurrj. Batak eta besteak beuren iritzia agertu. Akatsen billa ibilli oi giñan... Euskal-urratsak orduantxe ematen asi. Sei urteetan Euskera era Euskalerrja'ri itsatsjta gebiltzan maixu oner ardurapean...

Eta oraiñ orduko lan aietara bildu gera berriro.

Lekuona "Zarra", beti gazte.

..•

Eleiztar-ljteratur-lanak ere badu zer-jkusirik gure Lekuona Zarra'rekin Eijc y Garay Gotzai jaunak jarri zuan Apaizgaitegiko euskera-irakasle. Gotzai orrer ondoren etorri zan Aita Zakarias'ek, berriz, bere gotzai-eskutitzen euskal-itzultzaile egiñ zuan. Berdiñ ondoren etorritako Don Mateo Mujika'k ere. Eus keraz agertu ziran eskutitz ajek Don Manuel'en ixjleko lanak dituzu. Lan aipa garriak.

lxilleko lanak, ordea, ez dja amaitu; diraute oraindio.

Liturji-itzulpen-lanari buruz ari nazaizu. Zer lan dan eta zer lan izan dar itxuak ere ikusten du, ikusi nai badu. Literatur-eskola sortuta dago. Lan izugarria egiñik da. Garrantzi aundiko lana, eta aiñ garrantsjtzu jotzen dan eta aiñ nolobait planteatzen dan Euskera "batua"ren alorrean, aiñ xuxen.

Vaticano len ondoren liturji-berritze-lanak ez dute etenik izan. Meza eta irakurgai-berritze ekintza ez da urteetan gelditu. Asierako berritze guztiak euskeratzerako, orra denak zaartu, eta aien orde berri-berriak sortu. Don Manuel eta bere lagunak berriro euskal-jtzulte-lanetan. Leen baiño irakurga; geiago. Askoz ere ugariagoak...

Or daude parrokietako liburategietan lenengo aldiz ateratako Jaietako Mezak, Deunen Mezak eta Jaiegunetako Irakurgaiak. Euskera jator-ederrean eta batasun baten inguruan.

Liburu oiek h;storira pasata daude. Galdu ala, geituko da beuren prezioa. Ondorengo euskal-ikasleak ur oietara jo bearko dute Euskeraren jator-tasunaren billa.

Ortxe aztertu bearko.

Itzultzaileak asko dira. Euskalki guzietako idazleak, eta batera etorri diranak. Oien fruitua ez da aaztuta galtzeko gauza.

Don Manuel Lekuona Zaarra'(goitzena berak jarri dio bere buruari) liturji-itzultze-lan auetarako, zuzendaritzarako alegia, egiña zegoen. Gauzak ez dira txiripaz gertatzen; emen beintzat, ez dira ala gertatu. Bere bizitza osoan lan orretarako bere burua jazten ari izan dala deritzait. Apaizgaitegiko idazle-eskolako lanak garrantzi aundikoak izan badira gure Maixu onen bizitzan, liturji-itzultze lanak ere izan dira zer-edo-zer.

•••

Lana egiñ, lana eragiñ eta beti itzalean gelditu.

Ori izan da, urte askoetan zear, Lekuona Zaarra'ren jokabidea.

Noiz bait, orratio, argitara ere jaso zuten.

1950'an Euskaltzaindiako sarrera egiñ zuan eta ogei urte beranduago bazkun orren buru jarri zuten. Iru urte iraun zuan bere gidaritza Euskaltzaindiaren barnean.

Ango gidaritzatik irten-bearra geuk ere itzalean utziko degu. Illunpean. "Gaua, gauekoentzat" zioten gure arbasoak. Ez da egunik gaurik gabe. Gauarekin illuna.

"Illuna sortu zait, ama,
betiko biotzean..."

Ori esateko aña ere ez da izan. Illunaldi luzeak, ordea, ez zaikio falta Don Manuel'en bizitzari.

Desterrua Calahorra'n izana du.

Amalau urte: 1940'tik 1954'ra.

Amalau urte luze, erritik at. Aurretik beste lau illunpean.

Illunpean; baiña, lanean.

Illunpe orretako lana, "Fuentes de la Madre Rafols?", Ciencia Tomista aldizkarian agertu zan. Izenik gabe agertu ere. Txiripazko edo obeto esateko, proidentziatzko arkitze baten ondorengoa izan zan lan ura.

Desterru-garaian, berriz, Calahorra'ko elizbarrutiko artxibuetan bere betillak erre zitun. Ixill-uneko amalau urte aietan Euskalerrriaren berriak ikasi zitun makiña bat paper-zaar-artean...

Urte luzeak. Aiek ere bearrezkoak gizona bere elburura elduko bada. Osatuko bada. Suak ematen dio galtzairuari bere tenplea.

•••

Aurretik, erdian eta ondoren Euskalerriko ikerketa (historiari buruzkoak aipa nai ditugu), askoetan parte artutako gizona degu. Aitatu ditzagun azken-urte-uetako bakan batzuek: Errenderia'n Ama Maalen (?) erromatarren garaiko eleizatxoak; erromaniko aurreko eliza Astigarribia'n; urte onetan betan, Alzo Azpiko eliza erromanikoa.

"Greco" margolariaren bi quadro berak arkitu zitun: Leniz-Gatzaga'n bata eta Zestu'ko Iraeta'n bestea.

Asunzion Arrazola lekaimeari, bere "Renacimiento de Guipúzcoa" tesis egi-tean, zuzenbidea billatzen lagundu zion.

Eta abar.

Erririk-erri ibillia degu erribakoitzeko histori-agerpena egiten.

®••

Saiatu izan da Erri-jakintza lanetan ere Barandiaran Jose Miel'ekin batera. Ildo orretan bersolaritza maite izan du, batez ere. Aozko-literatura aztertu izan digu Euskalerra'n iñork baiño leen eta iñork baiño obeto. 1918'an, Gasteiz'ko Apaizgaitegian, eskola-urteari asiera emateko itzaldian, La Métrica Vasca izan zuan gai. Euskal-bertsoak nola neurtu bear ziran erakutsi zigun.

Andik urte batzuetara, 1930'an, Barga'n egindako Congreso de Estudios Vascos artan, koplak zaar eta bersolaritzari buruz ekin zion, arazoari bear zan garrantzia emanaz. Sagardotegi-zokondoetan zebillen bersolaritza Donostia'ko Kursaal aretoraiño eramaten eta goi-mailla batera jasotzen lagundu zuan.

Lan asien ondorengoak ditugu bersolari-txapelketak.

Amaitzeko:

50 urte dira Kardaberaz-Bazkuna bere ardurapean sortu zanetik.

Urre-eztaiak.

Bidezkoa zan Kardaberaz-Bazkuna bere maixuaren lanak argitaratzea. Zuzentasunak eskatutako ondorena da. Biotzak, zer esanik ez.


Bilduma zatika atera da gai auen neurrira:

Kritika, Kondaira, Etnografia, Kultura, Olerkiak, Antzerkiak, Literatur-gaiak eta abar.

Tori, Don Manuel, gure eskeintza, esker onarekin batera.

ARRINDA'TAR ANES'EK

1975-III-17'an.





EUZKERAREN JATORIA

Kezkak

Ona emen ezkutuki aundia. Zein ote da gure izkuntza onen jato ia?. Nundik dato! euzkera?. Nun eta noiz tayutu zan gure mintzaiera?. Onelako galderak amaika egin ditezke, orain arte askotan egindakoai erantzun egokirik gabe bazte etan geratu diranak.

Eztu euzkerak Ludi'an barna ezagutzen diran beste izkuntzaekin a emanik, ta o en atzetik ibili diran jakintsuak ezer aurkitu gabe geratu dira alka en ondoren. Ba-dagoz Paris'en bi erakus-etxe ede : "Gizonaren Erakustetxea" ta "Jau-regi Aundia" deitzen diranak; eta bietan lauki audi bat ikus diteke orma goi ta zabal batean, erakustetxe bietan berbera. Bertan ludi'an ezagutzen diran izkuntzaen izenak ja ita dagoz sendika ipiñita ta alkartuta; eta guztien gañetik, baka -baka ik, euzkera agertzen da, aipatu dugun ezkutukia onela adierazten.

Mendeetan barna ez dira izan gutxi ezkutuki ori argitzeko xedeaz egin diran lanak, alde guzietako izkuntzalari onenak ortan burur-bela i ari-izan diralarik. Ezagutzen diran aspaldiko beste izkuntza za ekin erkatzean, antza izan ditekena gogoz bilatu xedeaz; eta andik edo emendik, u undik bada ere, beti aipaturik izan da o elako zerbait; alaz ere aintzakotzat artzeko oña irik gabe.

Oraingo ontan gaurko izkuntzalarjak Kaukaso'n bizi diran E i batzuen izkuntzaekin ari dira erkatxe berean beti ta ondorio egokiak aurkitzeko gogoaz, batik bat Jeorjia E i'arenarekin; alan eta guzti oraindik ez da lortu benetan egokia izan diteken ezer. Erkatze o i buruz ba-daukat nik neronek ikusitako zerbait; Paris'en bizi nintzalarik Kaukaso'ko bi jaun ezagutu nituen, bat jeorjia a, Sollohub'ta Alexandre izena zuena, bestea Oss-Alanes E i'koa; lenengoa, nigandik urbil bizi zalako, maiz aurkitzen nuen kalean eta beti geratzen zan nirekin bere iritziaz mintzatzeko, ta gizon begiko arentzat etzegoen zalantzik, jeorjia ak eta euzkota ak E i berberakoak gera. Besteak Paris'en argitaratzen zuten aldizkariaren igeki bat eman zidan, eta bertan beren izkuntza ta euzkerazko itz batzuk alkarturik agertzen dira zéntzun berbera aurkezten dutela.

Turkoar batekin aremanetan

Beste batekin, turkoa a, Kosay Hám;t Tübeyir izena zuena ta Ankara'ko Ikastola Nagusian irakasle zana, idaz-a emana izan nuen eta berak ere an ateratzen zuten "Belleten"aren igeki bat bialdu zidan; bertan beste itz-ze enda bat agertzen da turkoeraz eta euzkeraz azaltzen diran itzak buruz-buru ja ita, idatziz eta zentzunez alka en antza erakusten. Baña ez ontatik ez eta len aipatutako bestetik ezin beste ondoriorik atera.

Esandako izkuntzaen erkatze ori b; Takuntza guztietarako bide egokiena bezela onartzen da yakintsuen aldetik; bertan diardute beti, baña oindiño eziña izan bide zaye ondor; o egok; rik aurkitzea, ta gure izkuntzaren ezkutukia ezta ezertan argitu.

Izkuntzari buruzkoa gure Errad ere dagokio, biak bat eginda bezela agertzen zaizkigularik; eta gure Eri onek Euzkal-Eri du izena, ots, euzkeraren E ia, bien arteko alkartasuna orela age erazten. Eta euzkera nundik dato en galde-tzen badugu, orixe bera galde dezakegu E i'ari buruz ere orobat ia bere jato ia zein ote dan. Nundik dator Euzkal-E ia?, ora erantzunik gabe geratzen zaigun beste galdera be.

Beste Eri za ekin ere erkatzean ari-izan da aspaldidanik, eta oraindik atera-biderik aurkitu eziñean. Ba-dago zera o i buruz nik neuk garantzi aundieneta-koa ematen d; odan zerbait: Tokien izenak, eta oyek dirala-ta e uz agertzen di-ra oso aipaga iak diran azpegi batzuk; ona emen ikusga jak edo diranak.

E iko toki izanak

Gure E i'ko toki-izen geyen-geyenak euzkeraz egiñak d; rala agertzen dira. Egipen onek auxe adierazten digu lenengoz, gure lu ean biz; -izateko geratu zi-ranak euzkaldunak izan zirala; au oso a; ntzakotzat artzekoa da zalantzik gabe. Ta ba-dago beste zerbait eg; pen ortan argi egiztatu d; tekena: Izen oyek, tokiai dagokienez, oso ederki ja ita dagozela; eta beste eg; pen aipaga i onek auxe erakusten digula, ots, izen oyek ipiñi zituztenak euzkaldun utsak izan zirala beste izkuntzekin kutsaturik j; zan gabe; ori be oso ontzat artzekoa dala deri-tzaigu.

Baña Ludi'ko beste tokiak be, Sortalde Erdi'an batik bat euzkal-izenak da-ramazkitenak agertzen dira, ta len esan dugunagatik bidezkoa dala dirudi, oyek j; piñi zituztenak euzkaldunak ere izan zirala. Itz oyetako batzuk gure E j; ontan be agertzen dira zentzun berberaz gañera. E.b.: Araxes, ango ta emengo bi ibayen izena; Araba, ango ta emengo bi lu aldeen izena; Gotein ango lu-aldea ta Fojain emengoa antz aundia dutela; Ararat ango mendi baten izena ta Aralar emengo beste batena, oso antzekoak diranak; -ain atzizkiaz amai-tzen diran toki-izenak amaika agertzen dira Idazteun'ean, emengo Muniain, Agurain, Andoain, Beriain eta beste orien izenak bezela. Sortaldeko beste toki-izenak ere gogoratu ditzakegu: Aral, Urales, Lena, Aran, Ur, Asia, Ainua,...

Ara lenengo zatidunak

Aipatu d; tugun izen batzuetan ARA beren lenengo zatiaz egiñak agertzen dira: Araxes, Araba, Ararat, Aralar, Aral, Aran. Ara itz orek ua ea esan nai bide da ta batzuen aldetik aztertua izan da, batez ere nik dakidala oso ezagunak diran Saint-Pierre, azpa enda a ta Arjel'eko Gongotzaya izan zana, Etxegar-ray'tar Bonifazio ta San Martin'da Yon jaunen aldetik. Zentzun ori ontzat artu-ta, gure Araba onen izenaren esan-naya aztertu nuen "Estibaliz" izeneko aldiz-karian, 1.967'gn. dagonil irail u il biltzen zituen zenbakian, bertan gure E i'an dagozen ara'z asten diran tok; j batzuen izenak aipatzen nituen: Aragoi, Ara-

mendi, Aralar, Arakil, Arano, Araya, Aratz, Araoz, Araka, Aramayona ta beste batzuk, guztietan ua earen zentzuna agertzen bide dalarik.

Eta aipatu ditudan itz guzti oyek euzkeraz egiñak dirala uste dezakegu egiantz aundienaz. O engatik naiz euzkera naiz Euzkal-E i'aren jato ia sortaldean ote dagoen asmoa onartzeko inda ez agertzen zaigu; apika sortalde-erdian berezikj.

Euzkal E iaren lenengo zatia

Euzkal-E i'aren lenengo zatia euzkeraz egiña dala ontzat artzen da guztien aldetik; eta orela izanik eskier bezela a(dezakegu euzkera Euzkal-E i'aren ize-na baño lenagokoa dala. Orduan nortzuk izan ziran gure izkuntza au erabili zuten lenengoak?, beren burua Eri bat bezela ikusten ez zutenak?; agian bai, baño nortzuk ziran ayek?, nun bizi ziran lendabizi?, berak izan al ziran gure izkuntza au so erazi zutenak?, eta nola?,..., amaika galdera egiteko, arazo ori aztertzean e uz sortzen diranak.

Nola?, galdetzen dugu, bai, nolabait a ituta. Noski, euzkeraren egitura, ots, bere eliztia ain egokia egiña dala ikustean, bidezkoa dirudi gogo-lantze aundi batean sortu dala ustea. Baña, orela izan baldin bazan, orela nola sortzen zaizk;gun beste galderak be. Nun bizi-izan zan o elako gogo-lantze aundia?, nolakoa izan zan bere edadura?, ez al zituen erabili beste gayak ere?, eta zeintzuk?, nola izan diteke, gogo-lantze aundi ura izan bazan, euzkera izkuntza bakarik uztea, beste zantzurik ezagutzen ezpaita?. Erantzunik gabe gertzen diran galderak eta galderak, aunitz.

Len eta orain, gaurko ontan ere, izkutuki aundi baten au ean gagozela airtortu bear dugu; ta o engatik be bidezkoa izan bear geuk, euzkaldunok, ori argitzeko nayeane ere, buru-bela j lanegin bear dugula. Baña xede guztiak baño lenago, guretzat lenen-lenengoa izan bear dana, gure E i'aren biziari eustekoa dugu, enurarik gabe. Izan al diteke euzkaldun bat ere eginbide ori onartzen ez duena?, eziña dirudi o elakorik; orduan nola izan diteke gure Eri ontan euzkera ikasi, aztertu ta erabili gabe iñor izatea?, ulerkaitza benetan.

Aztertu dezagun arazo au sakon eta zabal, eta alka en leyan yardun dezagun gogotik gure izkuntza oni eustean.

U estarazu'ta Andoni

EUSKERAREN SUSTARRAK AZALKETA ETA ADIERAZPENAK

II ZATIA

Izadi eta gizonen arteko arremanetan sortutako sustarretatik, banaka batzuk azterkatu ditugu. Sustar auek, izadi eta gizonen arteko arremanetatik sortuak diralarik, auen kimuak izadiaren adierazpenak azaldu bear dizkigute.

Ondoren, euskerazko itz auek izadiaren adierazpenekin bat ote datozen ikusiko ditugu.

Izadiak gezurrik ez dulark, berau izan dezakegu euskerazko sustarren egiztalle.

A

Ba ditugu "a" da "a" esaldia erabiltzen diguten izkalkiak.

Esaldi onen adierazpenak azalduz, esan dezagun, aurreneko "a" izki edo sustarrak edozer adierazi dezaigukela. Bigarren "a" izkiak berriz, aurrenakoaren berezitasun bat.

AL

"Al" itz au, galdera egiteko erabiltzen degu maiz. Ori ala al da?. Galdetzen degu noiznai.

Guk jakin nai genuen edozer, "ala" itzean dago adirazita. "Ala"ren adierazpen au, galdera bat egiterakoan "al" itzaren "a" ra biurtzen da. "A" itz au berriz, bere atzezki "l" aren zuzenbidez, aizean dabil. Ez da iñora eldu.

Iñor erantzunik emateko gauza ba da, "a", "l" aren zuzenbidez "da" itzara eramango du,-Ala da.- erantzunez. "Ala al" galderarentzako, "ala al...a" izango litzake erantzun jatorra.

ALDI

Itz onetan "a" k zer adierazten dun, nola azaldu!. "A" aldiko memento bat dala esaten asi gaitezen. Ondorengo "l" k memento onengadik alde egiten du. Eta "di" k,-d aotz eztiz erabiltzen degun izkia da. l degu ugaritasuna adierazten dıgun sustarra.-bere ugaritasunean memento au etengabe aldatzen dijoa. Au degu "aldi" a.

ZALDI

Itz onek ez dauka "aldi" arekin zer ikusi. Leen sarri esan deguna berriz ere aipatzera goaz:

"A" sustarra asieran, kiñuaren laguntzarekin izkuntza zala. Zaldi itz onetan "a" k tokia edo zabaldua adierazten digu.

Zaldi izenaren "a" tokia izanik, "z" izkia zirkin arkitzen da emen. Eta "I" ren zuzenbidez, emendik alde egiten du, "di" itzera zuzentzeko. "Di" onen adierazpenaz, tokiz aldatzen jarraitzen du. Laisterka egiten du.

ZALTO

Itz onen "z" ere, "a" gan zirkin arkitzen da, emendik "I" ren zuzenbidez "to" itzara jarraitzeko. "T" izkia aots eztiz erabiltzen dala azaldua dago. "O" sustarraren adierazpena ere ezaguna degu. Au "lo" aren sustarra da; eta geldi egoitearen adierazpena ere azaltzen digu. Beraz, "z" sustarra "to" itzara eltzen danean, bertan gelditzen zaigu.

Au, zalto bat egitea da.

U

Errekako urak bere koskan dijoazela ere, "u" otsa ematen digun unea ba du berak.

Ala adierazten digu, alako basetxe batek, bere inguruan dun "uzalto" tik izena artuaz.

Uzalto izeneko basetxea, auzo degu.

UR

Urak sortzen dun "u" otsa, ots utsean gelditzen da, "r" jabetasunezko sustarraren laguntzarik ez ba darama.

"R" sustarrarekin elkaturik "ur" adierazten digu. "U" otsaren jabe dan gauza.

LUR

Iru sustarreko itza degu lur. Sustar auen elkarrekiko bigarren eta irugarren sustarrak ur ematen digute. Eta "I" ren adierazpena "ur" etara zuzentzen da. Uretarako zuzenbidea darama.

Ondoren, ikusi dezagun, ea adierazpen au izadiak baiezten digun:

Gure auzoko nekazariak, urtearen zear beera egin duten lurak berriz goenera jasotzen, amaika lepaka egindako gizasemeak ditugu.

Beera egiteko bide au baiño bizkorragorik ba du lurak. Onek, buzti eta azetu ondoren, uretarako zuzenbidea darama. Uraldeetan auek lokaztuak joaten dira oso.

Ontan, ikusten danez, euskerako lur itza, eta izadiaren egitera bat datoz.

ELUR

"Lur" a eta "elur" a izadian ain ezberdiñak diralarik, sustar berdiñak daramazkite. Ala azaltzen dizkigute, beintzat.

Sustar auek sorburu berdiñekoak diran ala ez jakiteko, izadiaren adierazpenetara. jo bear degu.

"Lur" itzaren adierazpena eta izadiaren joera bat datozela ikusia degu. Aztertu dezagun, ondoren, "elur" aren adierazpena. Onen "e" sustarrak baretasuna adierazten digu. Eta "l" uretarako zuzenbidea darama. Ikusi dezagun orain elurraren egikera izadian: Elurra, epeltzen dijoala, polikipoliki, barebare uretarako zuzenbidea darama. Ur biurtzen da. Beraz, izadian lurrak eta elurrak uretarako zuzenbidea daramate. Adierazpen onetan dira berdiñak auek. Euskerako adierazpenarekin bat datoz.

EGUR

Itz onek adierazten digunez, egaz egiten duten izateetan, ez dira egaztiak bakarrik.

"Egur" izenaren sustarrak azterkatuz, "eg", egaz egitea dala adierazten digu. "Ur" bigarren sustarra, ezaguna degu.

Beraz, itz onen adierazpena, uretan egaz egitea da.

Ondoren, ikusi dezagun izadiaren egikera:

Zuaitzadar, egur bat uretara botatzen ba degu, ez zaigu au ondoratuko. Onek uretan egaz egingo du.

Au da egur.

EURI

Gaurregun "euri" aren izena esaterakoan, "ur" itza banandu egiten degu. Orregatik "euri" izenaren "ur" sustarra ainbat illundu egiten zaigu.

"Euri" sustarretan, "ur" sustarraren aurretik dijoan "e" sustarrak, "ur" aren xeetasuna adierazten digu. Tantanaz egiña dago ta.

Eta ondorengo "i" sustarrak, tantana ugari dula.

AARI

Emen ikusiko degunez, aari izena sustar jatorrez osotua dago.

Izenaren lenengo "a" sustarrak bizikoizatea adierazten digu. Gaurko itzez esanik, aberea. Lenengo "a" orren ondorengo "a" sustarrak "r" sustarraren laguntzarekin, izaki jabe dala. Izaki au, aurrerago sustarrez osoturik ikusiko degunez, artilla du. izenaren azkeneko "i" sustarrak berriz, ugaritasuna. Beraz, "i" onek, izaki edo artilla ugari dula adierazten digu.

ARDI

Aari eta ardiaren izenok jatorri berdiñeko sustarrak daramazkite. Azkeneko izen onek, ardi izenak, alegia, aldakuntza txiki batzuk izan ditu. Ikusi ditzagun:

Aariak bezelaxe ardiak ere bizikoizate edo aberetasuna adierazten dion "a" sustarra darama. Artillaren jabe dala adierazten dioten "a" eta "r" sustarrak ondoren. Artillaren ugaritasuna adierazten dion "i" sustarra urrenko.

Oneraño, aari eta ardiaren sustarrak berdiñak ditugu. Baiñan ardiak ba du aariak ez dun berezitasun bat. Berezitasun au arkumeak egitea du. Era arku-

meak erdibitza, ugaritzea da. Beraz, izen oneri arkumeak ugaritzea adierazten dion "l" sustarra ezarri bear zaio.

"l" ugaritasuna adierazten dun sustarra ezarririk, onela azaltzen zaigu:

AARI.

Belarrirako gozotasun gabeko itz gogortsua, ikusten danez.

Izen korapillogarri au samurtzeko, ugaritasuna adierazten diguten "i" etako bat, "d" biurtzen da.

Aldaketa onen ondoren, izena "aardi" an gelditzen zaigu. Eta izenaren lenengo "a" sustarra galdurik, laburturik, "ardi" an.

ARTIL

"Añil" izena azaletik azterturik, ez degu 'ardi' aren izenagandik datorkigula ikusten.

Izen onen jatorria, "ardil" da

"Ardi" izena ezaguna degu. Artille ugariaren jabe dan aberea adierazten digun izena, bera.

"Artil" izena argitu bearrez, lenengo, "ardil" izena azalduko degu.

"Ardil" izenak daraman "l" sustarra ere ezaguna degu. "L" sustar au, "ardi" izenaren atzean arkitzen dalako, izen onengandik alde egiten du. Beraz, "I" sustar onek, ardiarengandik alde egiten dula adierazten digu.

Adierazpen onek dionez, ardiarengandik alde egiten dun gauza, "ardil" da. Eta izen onen "d" izkia, aots eztiz "t" biurturik, "artil".

Ardiak, edonungo abarrratean uzten ditu bere artil multzoak.

Aspaldi onetan, "artil" izenari "e" izkia ezarri zaiolarik, artile edo artille aotsarekin darabilgu.

Izen onek, laburturik, ondorengo izen bat ematen digu. Au, ile edo ille da.

DIZDIZ

Itz onen sustarrak, ez du ugaritasuna adierazteko darabilgun "di" sustarrarekin zer ikusi. Ezta zirkintasuna adierazten digun "z" sustarrarekin ere.

Azaldua daukagunez, "diz" berau sustarra dalarik, bere adierazpen berezi bat du.

Izki berdiñeko sustarrak, izadiaren adierazpenak berezitzen ditula ere, azaldua dago.

IZ

Dizdira-izpi bat nun edo nun ikustea, ez da zailla. Izpi au, beste ainbat sustarrekin loturik azaldu oi zaigu.

IZAR

Izen onen adierazpena ausnartzeko, aztertu ditzagun bere sustarrak.

Izarra dizdiratsu azaltzen zaigularik, beraren "iz" sustarrak dizdiraren izpia

adierazten digu. "A" sustarra gauza bezela azaltzen da. "R" sustarrak, berriz jabetasuna adierazten du.

Esan genezake ba, "izar" izenak "iz edo dizdira" ren jabe dan gauza adierazten digula.

IZARDI

Izadiaren adierazpena, laguntzalle, argitzalle artzen ez degula, nundik eldu izen onen sustarrei?

Izenaren lenengo itzak arturik, "izar" ematen digute. Atzekoei eldu ezker, "ardi".

Gauza oso ezberdiñak azaltzen dizkigu, ikusten danez.

Mendigoizaleok aldatz gora artzen degunean, izardia xamur atera oi izan degu.

Kopetatik beera iges egindako izarditantanak, maiz, mendien artetik ertendako eguzkiak jotzen zituala, dizdiratsu ikusi izan ditugu.

Beraz, izen onek izarraren berdiñeko adierazpena du. Eta "di" atzekia daramala, "iz" jabe dan gauza ugaria. Izarditanta ugarikoa.

IZARRAITZ

Mendi onek, gure errialderako alderdia lurgabetua dukalarik, aitzaz azaltzen du garbi.

Zenbait goiz eguzkitsuetan, Izazpi-menditik Izarraitz-mendia ain dizdiratsu ikusi oi izan degu!. Ikusgarri izaten zitzaigun eta izaten zaigu bera begiztatzea.

Emendik bere izar izena. Eta aitzean sortzen dalako, oneri loturik joatea.

IZAZPI

Gure erriko mendi onek, ez du berak ez dizdirarik, ez dizdiraren izpiak.

Gure mendi au, Izarraitz baiño txikiagoa dalako, onen dizdira edo izpiaren azpian arkitzen da.

Orregatik darama "iz" azpi izena.

LIZAR

Zuaitzetan adierazpen berdiñekoak, landare mota bi ezberdiñak arkitzen ditugu. Lizar da bat. Pago-lizar bestea.

Izen auek daramazkiten sustarrak ezagunak ditugu. "L" sustarrak zuzenbidea adierazten digunez, eta "izar" izenaren aurrean arkitzen dalako, onengana zuzentzen da.

Izadian, lizarrak ere izarretarako zuzenbidea daramate. Zuaitz oni, soildu ondoren, bere kimu berriak ere izarretara zuzentzen zaizkio.

Berdin pago-lizarrak; au ere izarrera zuzendua dago. Adierazpen onek berezitzen du, muturra moztutako pagoetatik.

INTZA

Goierriko alderdi onetan, itz au erabiltzen degu zenbait gau ortzkarbietan landaretara jalkitako ura adierazteko.

Itz onetan, izadiak zelatatzen dunen, aldakuntza txiki bat izan da. Azterkatu dezagun bera:

Eguzkiak irteran, bere izpiak urtantanetan jotzen dutenean, auek dizdiratsu biurtzen ditu. Beraz, "intza" ren lenengo sustarra "iz" da. Onek adierazten bait digu dizdiratasuna. "Tza" bigarren sustarra zuzen dago; ugaritasuna adierazten du ta.

Sustar auek loturik, "iztza" ematen digute. Aots au gogortsua degu belarri-rako. Orregatik, ikusten danez, "z" izkia, "n" biurtzen digute.

Ikusi dezagun ondoren, izen onen sustarrak aldakuntzarik gabe zer adierazten dġgun:

"I" sustarrak, ugaritasuna; eta "n" ondoren dijoakiola, ugaritasunean murgiltzen da.

"Tza" sustarrak ere ugaritasuna adierazten digula, "intza" ren adierazpena, ugaritasunean ugari, adierazten digu.

Ez dauka adierazpen onek adikizun edo mamirik.

BIZUTZ

Gure alderdi onetan neguaren zear egun gogorak ere izaten dira. Zenbait, mendietan zear dijoala, uzte ezean elur-erasoak biltzen du. Oneri inguruak itsuitsu jartzen zaizkiola, guztia zuri zaio. Izotztutako elur xeak beak ezaltzen dizkio. Goitik beera eta zearkako erasoak ere, zuzenbide guztiak. "Iz uts" ditu goi bee ata inguruak. "Iz uts" ezik, osoro "iz uts". Au dar: "Bizuts".

EGUZKI

Eguzkiak, bere dizdiraren adierazpenagatik, bere lenen izena, dizki izan zezakean, dizdiraren bigarren "d" izkia, "k" ra aldaturik.

Adibidez: Itsasoaldera arpegi emanaz, auzoan daukagun baseliz baten izena azaldu dezakegu. Beraren izena Kizkitza da. Dizditzatik biurtua ain zuzen.

Begietarako, eguzkiaren bigarren adierazpena, egaz egitea da. Eta egaz egitearen sustarra "eg" izanik, egdizki izango zuan bere ondorengo izena. Izen onek aldiaren zear bigarren aldaketa bat izatea, ez da arritzekoa.

ILLARGI

Izadiaren adierazpenari jarraituz, "illargi" izen onetan ere aldakuntza batzuk arkitzen ditugu.

Illargia, berezko argirik ez ba du ere, dizdiratsu ikusi izaten degu. Beraz, "iz" jabe azaltze zaigu. Eta jabetasun au adierazten digun izena, "izar" da.

Illargiak, bere bigarren adierazpena azaltzeko, "gi" atzezkoa darama.

Aztertu dezagun bera, zerbait argitzen digun.

"I" sustarra, ugaritasuna adierazteko gaiñera, zerbait, andi dala adierazteko ere erabiltzen da. Adibidez: Lar "i". Zenbait gauzatuz larre "gi" jabetzen ba

gera, larri ibiltzen gera bera jaso eziñik. Onek adierazten digu multzo edo gauzaren anditasuna. "Gatz larri" ere esaten da koskor andikoa danean. Andi be-
ronen esan naiak ere, "di" darama.

Illargiaren "gi" atzekiak bere "g" izkia, "d" izkiatik biurtua izan dezake.

Esan genezake ba, "gi" atzekiak, illargiaren "iz edo dizdira", andia, zabala dala adierazten digula.

ARGI

Illargiak bere aldian gaua urratzen du, eta argia zabaldu.

Argi au zabaltzen digun sorburutik artu genezake itz onen adierazpena. Sorburua illargia izanik, onengandik artuko degu argiaren adierazpena. "Argi" artu genezake illargi izenaren laburpen bat bezela.

Azaldu dezagun emen, euskerak, sorburuaren adierazpenak sortutako itz asko ditula.

EGAZ

Itz au aztertzerakoan, "eg" sustarratzaz jabetzeko, "a" sustarrak "r" ren la-
guntzarik ez eramatea, arrigarri egiten zitzaidan.

Baiñan, arrituago geldi nintzan "r" jabetasuna adierazten dUn sustarraren ordez, zirkintasuna adierazten digun "z" sustarra daramala, ikusirik. Au, adie-
razpen zuzenagoa bait degu.

EGAZTI

Aurrean emandako adierazpena ikusi ondoren, "ti" atzekiaren esan naia
gelditzen zaigu aztertzeko.

Eta au ere ezaguna degu. Izan onetan, egaz egiteko bizikoizate bat adie-
razten digu.

EGA

Izen onek, "eg" sustarra sortzen digun egaztiaren atalki bat adierazten
du.

EGAL

Egaziak jantzia aldatzerakoan, berarengandik alde egiten dun atala da,
egal. Egaztil, egaztitik izena artu ezkerro.

EGOI

Emen, egoi izenean "g" izkia "d" izkira biurtua azaltzen zaigu. Edoi.

Edoia ortzean isekirik arkitzen da ta, adierapen au emateko darama "eg"
sustarra.

"O" sustarrak geldi dagola adierazten digu; beti geldi azkitzen ez ba da ere.

"I" sustarraren adierazpena, ugari, zabala, degu.

GOI

Edoia eratzen dan alderdia adierazteko, egoi edo edoi beronen izen laburtua artzen degu. Goi.

GAZTE

Itz au ere laburtua azaltzen zaigu. Bere adierazpena, erdi egazka, arin dabilenarena da. Au degu gaztearen adierazpenetako bat.

Au da gaztetasuna azaltzea. Berezitasun onetatik artzen degu onen izena.

ZAR

"Zar" itzaren adierazpena azterkatuz ikusi dezagun berauen esan naia:

"Zar" itzaren lenengo sustarra "z" degu. Zirkintasuna adierazten digun izkia, bera. "A" sustarraren adierazpena, "aldi" artzen degu. Eta "r" rena, maiz aipatu degun jabetasuna.

Berezitasun auetatik izena jasoaz, esan genezake, "zar" k, bizia aldiaren jabe, adierazten digula.

BIZAR

Izen au, gizonagan sortu edo azaltzen dan adiñatik jaso da.

"Bizar" k, urteetan aurrera joan danaren berezitasuna azaltzen digu.

AUL

Itz onen lenengo "a" izkiaren adierazpena, bizikoizate bat da.

Bizikoizate au, urrengo sustarrak adierazten digutenez, "u" otsa, "I ren adierazpenaz aldendu, urrutiratzen dijoala itzaltzen dan bezela, indarra gutxitzen, urritzen dijoakiola, itzaltzen da.

AULKI

Au da, aulduak indar berritzeko bear dun gauza. Aulkia. Atsedena.

BELAR

"Lar" aren esan naia ezagutzen degu. Eta lar onen aurreko sustarrak beea adierazten digula, lurrean arkitzen dan larra degu belar.

BELARRI

Izen onen "a" sustarraren esan naia, soiñatalak adierazten digunez "u" edo "otsa" da. Onetzaz jabetzen da belarria ta. "I" atzezkiak ugaritasuna adierazten digula, belarria ots guztietzaz jabetzen zaigu.

BULAR

Azterkatu ditzagun "bular" ak daramazkin sustarrak; eta zer esaten diguten ikusi.

Emen, "b" sustarrak "oso" adierazten digu. "U" k, u edo ots bat. "L", °a" gana zuzentzen da, "r" ren laguntzarekin beratzaz jabetzeko.

Itz onetan, "u" umearen laburpena edo onen negar otsa bezela arto dezakegu. Eta esan degunez, "b" k, "oso" adierazten digula, bular, negartiaren "lar" a degu.

LAN

"Lan" itzak daramazkin sustarrak, ezagunak ditugu. Beraren joskerak zera adierazten digu: "l" sustarra, "a" sustarrarengana zuzentzen dala; eta "n" sustarraren laguntzarekin bertan murgildu. Au da: "L" edo gizona, "a" edo eginkizunera zuzentzen da, "n" ren adierazpenarekin bertan murgiltzeko.

OA

Jaulkitzera goazen "o" itz au, "lo" aren sustarra degu. Itzaiak, uztarturiko abelgorriek geldierazitzeko erabiltzen duten aotsa ere.

"O" itz onen ondorengo "a" sustarrak tokia adierazten digu.

Beraz, "oa" itzaren adierazpena, o edo lo tokia da.

"Loa", atsedean tokirako zuzenbidea ematea da. Maiz esan degunez, "l" ek, zuzenbidea adierazten digu ta.

"Loa" ri "l" galdueraziz, "oa" rako zuzenbidea kiñuaren laguntzarekin eman genezaioke.

"Loan" itz onen adierazpena, "n" ren laguntzarekin, atsedean tokira eldu, eta bertan murgildua dagonarena da.

"Joan da". Esango genuke gaur, "da" laguntzalea ezarriaz.

ZOTS

Aizearen zirkintasanak zuaitzaren adarreko kimuetan jotzen dunean, "ots" a ateratzen du; sortzen du.

Zots izena, aizea eta kimuaren arteko adierazpenagandik ertendako itza da.

AUTS

Sustar bi ditu izen onek. Gauza bezela azaltzen zaigun "a" sustarra, bat. "Uts" a adierazten digun sustarra, bigarrena.

Ondoren, ikusi dezagun "auts" a izadian zer dan. Au, putz eginda edo aizeak jota, "uts" ean gelditzen dan gauza da.

Gauza onen izakia eta izenaren adierapena, bat datorzkigu.

LOKATZA

Kloka edo kolokaren laburpen bat da izen onen lenengo sustarra.

"Tza" bigarren sustarrak ugaritasuna adierazten du.

Koloka, banatu erreza dagon lurra degu ba lokotza.

AITZTO

Izen onen lenengo sustar biak alkarturik jasotzen ditugu. Berauek, ao zorrotzeko "a" gaia edo aitz dira.

"To" atzekiak, "aitz" aren berezitasun bat adierazten digu. Eta "to" itz onek geldierazitzea adierazten digula, "aitzto", eizarako tresna degu. Eizari geldierazitzeko tresna.

BIZTO

itz onetan, erdiko sustarrari elduko djogu lenen. Berau "z" degu; zirkintasu-na adierazten digun sustarra.

Onen aurreko "bi" itzak "oso" adierazten digula, "biz" aren adierazpena, "oso zirkin" da.

"To" aren adierazpena, azaldu berria degu.

"Bizto" aren esan naia zera da: Oso zirkin, geldierazitzeko.

MENDI

Guri, mendizaleoi, mendia gaintzen degunean, ikusgarri izaten zaizkigu mendean artzen ditugun alderdiak.

Au degu mendiaren adierazpena.

"Men" sustarrok ez daukate azaldu bear aundirik. Ñaiko argi daude.

Baita "di" sustarraren adierazpena ere.

Goitik, alderdiak zabal menderatzen dira.

BIZI

"Bizi" ak azaldua daukagunez, bi zirkintasan ditu. Bat soñaren barnekoa. Bestea, azalekoa

EUZKARA

Ona emen gure izkuntzaren izena.

EUZKARA

Ausnartu dezagun bera. Eta bere sustarrak jaulki.

"E" sustarrak, "u" aotsaren leuntasuna, gozotasuna adierazten digu. "Z" sustarrak, "u" aots au erabiltzen du. "Ka" k berriz, erabiltze oneri jarraipena ematen dio.

"Euzka" jardutea, degu izkuntza.

"R" sustarraren adierazpen jatorrari jarraituz, "euzka" ren jabe izatea litzai-guke.

"Ra", gaurko atzeki bezela arturik, onek "euzka" ra zuzentzen gaitu.

Euzkarak ba du aurrerapenari jarraitzeko indarra. Eta gauza berriak sustar jatorrez azaltzeko kemena.

Adierazpen bizikoak ditugu euzkararen sustarrak.

SEGUROLA'TAR J.
(LAR liburutik)

ORAIN IRUROGETAZ URTEAK GURE GURASUEK EMOÑ EUSKUEN
BERBETEA GOGORATZEA BESTE ASMORIK EZ DA, GURE ARTEAN
DAUKAGUÑ EGITEKOA...

Urdulizko berbete ederraren ezaugarritzat geratu dedilla BETIREN BETIRA-
KO GURE JARDUÑ ALDI AU.

ORAIN IRUROGETA- ZORTZI URTE UMIEN AZTERA TA EZIERA

ZELAN IKUSTEN ZAN...?

Ñi neure umetako kontuek esatera noa, neure memoriz edo al doten gain ondo. Ni geratu nintzen ama barik bost urtegaz eta familian zazpi izan giñen. amoma, aita, iru neba-arreba ta arreba orde bat.

Umien aziera aldi aretan, neure ustez gogorrigo ta gatxago zan, zergaitxib ze, moduagaz ez egoan gaurko lako erreztasunik, umeari ikasteko edo emo teko erarik.

Umien iokoa ixeten zan, batzuetan, olgetan eurek alkarregaz, zarataka t erritxan be igual... Zelan olgetan zeuen..? Batzuetan ostu ostuke, estaldute, topetan, nundik kaosuko ete doten.

Beste ioko bat ixeten zan, txiri bategaz burneizko makilla bat eta aren puntan gaintxo bategaz txiria eroten zan. Umiek euren poztasune ixeten zan, txi riez zeñiek ariñau eitxen zeun... Zejn geñau ixetea ixeten zan euren poztasu ne... txaloekaz alabaten zeuden.

Beste ioko bat ixeten zan, tronpea kordelagaz baturik, ta lurrean kuadri baten barruen txakur-andi bat imintxen gandun kuadruaren erdien ta tronpe, iantzan imiñirik ta beste eskuen arturik, iaurtiten zan txakur-andiaren gaiñera t andik ataratea ixeten zan iokue.

Beste ioko bat ixeten zan, lurrean botxo bat intxe ta andik metro bi ta erdirE errai bat intxe, botxotik erraire arte iaurtiten zan intxurre ta an, errai atan, lelen go ixeten zanak, barrien, erraitxik botxora botaten zeun. Ta botxotik kanpo lo txen zirenak, botxotik parajeen lotxen zanak eukitxen zeun eskubidea atzama rragaz arek intxurrek botxora satzeko.

ESKOLARA IOATEARI BURUZ ZER DIÑOZU...?

Lelengo aldiz eskolara asi nintzenean, apur bet ikeraturik edo bildur apur

bategaz Txan zan gure asiera. Gero, geldike geldike, lagunekaz, sentikorrao. pasetan gendun. Errekroetan lagunekaz geure ioko taldi edo debertzioño ixeten zan eta ondo, pasaten gendun.

Ainbesten tartean, beti, egoten ziren bata edo beste zurtasun anditzet eukitzen zeudenak euren burue iolasetan. Barrure sartu ezkeru, ori anditasun ori, an, ikusten zan, orrek zurtasun buru itxen zeudenak, euren problemakaz, oso estu ta larri, ikusten zeuden euren burue albokona kopieta. Bai, olao zurtasunek gure maistre zanak, arin, koisuten zeuren.

Orduko denporetan, eskolarako bidea nekosoia ixeten zan. Ze... oiñez ion bear ixeten zan, batzuk iru kilometro bidean ta beste batzuk lau edo bost kilometroan ion ber ixeten zeuden.

Andik lasterlean, maistrea kanbia zenean beste eskola batera, neuretzako ohea zala uste ixenik, ion nintzen bera ion zan eskolara. Beste, luzeao ta nekosoao zan, baia konforme egon nintzen. Baia amabi urtegaz itxi ber nendun eskolea, aitxe makalik egon zalako ta neure anaie gerran ainbat urden, ta nire eskolara bideak itxi ber nenduzen. Aldean, bear asko ein ber ixeten zan ta gosea egoten zan orduen ta bizi-modue aurrera, eroteko, gogor, ein ber ixeten zan.

OTA EBATEAK ZE MODUZKO BEARRAK ZIREN...?

Aldearako... ota ebatea ixeten zan bearrezkoa... ganaduen azpitxarako ta aren ondasunagaz solok indartuteko.

Ota-ebate bearra kodaiñagaz egitxen zan. Lelengo, etzean, iungadea sartzan gendun mukur baten eta pika-mallua eskuen dalarik, pika pika, kodaiña zorrozten gendun.

Ta mendire ioten gintzanean ta gurdikadea ebagi... eta bin artean kargau eta etzera eroten gendun bide oker ta nekosotatik.

Ostean, etzean ota ori ganadun azpitxera sartzan gendun ta an, euren oia, ondo, egoten zan egun bi edo iruen ta gero, ataraten zan ta gurdien kargaurik, eroten zan solora, aren ondasunagaz lurre indartuteko.

Baia oso nekosoia ixeten zan karga-deskarga ta soloan pillotan imiñirik, gero ostean, a zabaltzeko, sardeagaz botaten gendun solora.

Bear au oso zikiñe ta larritxasunezkoa ixeten zan, loie ixeten zalako ta uxin txarrekoa. Alan ixenik norberarentzako, lurrerako ondasun andie ixeten zan... Zertarako zan ona...? Artoak, gariak, patatak eta beste ortuari asko koisuteko ixeten zan.

ARTO JORREÑ BARRI PIXKAT EMONGO AL ZENDUKE.....?

Arto lanak, oso, nekosoak ixeten ziren. Lelengoz, lurre preparau eta atxiñeko frantxixiaz lurre buelte emon, ta gero, denpora ona ezkeru, areagaz lurre apurturik, iru edo lau biderrez pasau ber ixeten zan.

Ta gero, mokillok ioteko egurrezko masoto bategaz, eskuten dala, mokil andienak, lotxen zirenak, apurtuten ziren.

Ta orduen ikusten gendun, lurre lotxen zala urundute, gosatsu ta prest egoala samurtute. Lan ori zertarako eitxen zan...? Denpora onak lagundurik,

azie lurrean ereitxeko... Ta denporak, ondo, lagundu ezker, bost-sei egun bar-
ru, landarea ikusten zan bizi bizirik, kanpora urteten zeule.

Aro onean erein ezker, arin, etorten zan landarea, ta gero ostean ixeten
zan lana atxurrekaz bi edo irun artean... Ta olan, ori eitxen zan, bedarra kendu
eta lurre ondurik, bizi bizirik, etorten ziren arto eta indabak.

Eta gero ostean, agostuen edo iraillean artori puntan urteten eutson lorea
edo garbea batzen gendun, garrien saku bet amarraute eta sakuri buelte
emon, orra sakure batxen zan lorea eta garbea. Eta lorea zaranean eroten
gendun ganaduentzako ianarizat....

SIÑISMEN GORA - BERA ZELAÑ IKUSTEN ZENDUÑ EUSKALE- RRIÑ.....?

Euskaldunen kristautasune... zelan ikusten zan...? Gu, euskaldunok sinis-
kera edo fede andikoak ixeten gintzen.

Ñire etzean aitek imintxen euskun bakoitxari errosarioa errezetako egune
eta errespeto andiegaz eitxen zan. Eta gure modure beste baserri edo leku
askotan bere eitxen zan. Eta iai edo domeketan elixara, zintzo, ioten gintzen,
naitxe azao egon eleixea. Gu iru kilometro eta erdi eukitten gendun eleixara.

Eleixara gure egoera errespeto andikoa ixeten zan, siniskera bizikoa. Eta a
ixeten zan beste gauza bat, gaur egunean aditturik, lagungarri bata-besta-
rentzako.

Gura urna sasoian, gurasoak ardure andiez artzen zeuden dotriñeen gora-
bera eta umientzako, ondoen, zelan egingo zeuden, neke gitxiaoaz eta para-
jeao eukitako, puntu bet imintxen zan, t or, punto ortara, abadea etorten zan
guri dotriñea irakasten.

Ta onek, gurasoen ardureek zer irakasten dauskue...?

Gurasoen arduratasune eta sinismena euren umeari gogo andiez irakaste-
ko, alegiñe eitxen zeudela...

ITXASORA ZERGAITIK JUEN ZIÑEN... ETA ANGO BEARRAK ZEINTZUK ZIREN?

Baserriko bearrak nekosoak eta danentzako bearrik ez egoalako, batzuk
bizimodue atarateko ion ber ixeten zeuden, batzuk Ameriketara artzain edo
beste bear batzuetan.

Ñik bere urten neun etzetik 1956'an ta 1961'arte ibili nintzen ainbeste buel-
ta munduan ibilirik....

Zer zan... itxasoko bizikerea...! Itxasoko bearrak lau edo bost eratara zati-
txu leitekez. Lelengo Kapitana, barkuko arduraduna. Batzuk ez ziren konforme
ixeten kapitanagaz, zergaitik ze, diru apurtxu bat atara al izateko, extraperlo
apurtxu bat bakoitxak gura ixeten zeuden aiñ, baia ori bear ori konpromiso an-
dikoa ixeten zan.

Beste bear bat pilotona zan. Gaezko euren guardia eukitxen zeuden,
gaezko nai egunez ixen, nai gaez eitxen zeuden. Gaezko guardia ixeten
zan ordu birik ordu bire barkua eroteko. Timonelak eitxen zeuden bearra ix-
ten zan, brujula bearra barkua eroteko.

Timonelak eta pilotoak, barkuen goien, puesto de mandoan, alkarren ondoan, timonelak brujuleaz eta pilotoak, ondoan, bere planokaz eitzen zeuden euren bearra ordubirik ordubira.

Beste bear bat ixeten zan makiñetako buruena. Ta orrek eukitxen zeuden makiñetako ardurea, aberirik ixen ezteitxen edo arregletako makiñetako goi-beiek.

Radiografisten bearra ixeten zan, barkuen goien eukitxen zeuden bere lekue, telegramen ardurea eukitxeko.

Beste bear bat ixeten zan kontramaisuena. Bear ori ixeten zan bodegetako ardurea eta barkuko puntelatako ardurea, eta gaiñera, barkuko pinture, edertasun eta bere menpeko mariñelak eukitxen zeudena, ta gañera, barkuek atrakateko edo urteteko sasoie...

Sukalki bearra... or, ixeten zan buru maiordomue... ta gero, koziñerue eta ganera marmitxoi bi, sukaldeko arduradunek. Ta sukaldeko jeneroa eta sukaldeko ardurea maiordomuarena ixeten zan.

AZOKA EDI PLAZAKOA ZER ZAN ZURE TXIKI SASOIAN ...?

Bueno, nire txiki sasoiaren plazarako erabilketak oso gatzak ixeten ziren, zergaitxik zer, benedejea eron ber ixten zan Urduliztik Areata edo Portugaleteraiño edo bestera Mungira... Zaldia ta karroa arturik, eroten gendun benedejea.

Ortuko arazoak oso bear astunek ixeten ziren. Lelengo aldiz, lurre urundu eta prepara ber ixten zan. Lelengo puntuen, euki ber ixeten zan kontuen, ze klasetako ortuari, ze denporatan erain lurrean edo imiñi ber ixeten zan.

Bueno ba, udabarrien imintxen zan landarea lurrean. Porrue imintxen zan martien, bagillean edo garagarrillean atarateko, eta bigarrenezko aldiz imintxen zan garagarrillen akabuen, imintxen zan urterako.

Piperra eraitxen zan zimenteran Santiageda uretan, eta tomatea bere sasoi orretan ixeten zan. Lelengo, bedarragaz kontu andie euki ber ixeten zan kentzeko eta garbirik lotu deitezcan. Eta gero, atxurraz iorratu eta tomateri be gie orrek okerrak kendu eta paluek imiñi eta ara amarraten ziren eta konserbetako botikea bota ber ixeten zan.

ZERTZUK JENERO EROATEN ZIREN PLAZARA EDO A ZOKARA...?

Plazara eroten ziren sagarrak, madariek, okarenak, millokotak, kerixak, ikoak, intxurrek, matza, eta ortuko jeneroa eroten zan... arto edo indabea eta patatea, piperra, tomatea, porrue, letxuge, zenori, mallukiek, kinpulek, azelgak, eta perejille ixeten zan iateko jeneroari guztue emoteko.

ZE ESTIMAZIÑO IZATEN EBEN ORTUARIEK AINBESTE LAÑ EGIN ONDORREN?

Batzuetan benta txarra egoten zan eta alperrik bear asko eitzen zan eta beste batzuetan sarie ataraten zan... eta olantxe, bizimodue, aurrera, eroten zan.

ORAINGO ALDIETAN LEZ, ETXEKO AÑDRAK KAFESÑE ARTZERIK EGITEN ETE EBEN, ORDUEN, GOZOTEGIETAN...?

Oin plazara doazen emakume edo etxe-ko-andrak, len baiño neke gitxiaoaz dabilte, Zeaitxik...? Oin kotxeagaz bertora arte ioten direz eta bendeja guztie, an, eroten daude eta saldu itxen deudenean, kafetxue artu tostadakaz ta konbertzaldie lagunekaz in eta trankil doaz etzera. Len, gure sasoién, andraz-koak kafe gitxi artzen zeuden tabernetan.

Eta, zer da ordurik onako diferentzie andrazko bendejeretan...? Orduen ioten ziren plazara aldeana iantzíte, buruko pañelu edo moñoaz, eta oin, joaten dire uleak kopin imiñirik eta nok igerri, zein aldeanea edo señoirittea dan...?

AZOKATIK ETXERA AMARENÑ ETORREREA ZELAKOA ZAN UMIENÑ- TZAT...?

Amaren plazatik etzera etorrerea pozgarríe ixeten zan umeentzako... Zer-gaitxik zer, beti, eroten zittun gozoki, karamelo edo galletak eta poxgarríe ixeten zan. Plazatik buelte emon orduko, zur egoten gintzen, ia, noz, gurdie edo karrue ikusten gendun, bidera urteteko eta amantzako edo arrabentzako bere pozgarríe ixeten zan.

Eta olan, ixeten zan orduko bizimodue aldeatan.

GABON JAI EK ZELAN IZATEN ZIREN ZURE UME AROAN...?

Gabon jai ek ixeten ziren oso pozgarrizkoak, bai gurasoentzako ta bai umientzako bere.

Egun aretako janari ek, kantuek umien artean, ZELAN ZIREÑ...?

Egun aretako janari ek ixeten ziren, beti, apur bat obeto, bai ian eta apur bat be edan bere egiten gendun da... Apaldute ostean, famili artean beti, kantu batzuk, pozik, eitxen genduzen... Ta urrengo egunean bere iai andie ixeten zan lez Natibittete egune, eta gure kostunbrea ixeten zan goixean, txokolatea galletakaz artu eta ioten gintzezan Mezara. Oin, belu, oira ioten zirenak, Mezara bere belukora ioten ziren.

Kantuk bere, oso politxek ixeten ziren orduen... bai Aurtxo txikia ta bai Ator ator, mutil etxera, gastaiña zjmelak latera, ta olan, beste asko. Baitxe bere Eli-xan oso kantu ederrak ixeten ziren.

GABOÑ ZAR GABA, ZELAN OSPATUTEÑ ZAN....?

Gabon zar gaba, urtearen akabue zanez, pozgarri ori bete ixeten zan. Bazuk, gazteak, ondo, afaldu eta ostean kantu batzuk kanta eta karta iokoan in eta kantzaten zirenean, batzuk kanpora urtetén zeuden, urten akabue zelebratete... eta gau orretan, Misa de gallora be ioten ziren ta amabietan, euren zirenak ioten, zelebraten zeuden.

URTE BARRI BARRI ESKABIDEA... EZAGUTU AL ZENDUN...?

Urte Barri egunean, lagunen artean, ioten gintzen boltzatzuek artute, auzotatik, etxerik etxe, Urte Barri batzen eta kantaten gendun Urte Barri kantue.

Etzeetan batzuk, beti, frankutxuaok beste batzuk baiño ixeten ziren, baia danak borondate onagaz emoten zeuden.

GARI EREITTEAREN ARDURAK ZELAN ZIREN...?

Gari ereitxea ixeten zan, soloa makiñeturik, eta areakaz mokillek apurtu eta lurre ondu eta ereitxen zan garie nobienbre barruen... Eta eraintxe ostean, nastuten zan, ta ori ixeten zan bear nagusie... Gero, ermetan zanean, bedar oiek edo... urteten ba-zeuden, kenduten ziren.

GARI EBATEAK ZELAN EGITEN ZIREN GURE BASERRITARREN ARTEAN ?

Garie elduten zan garagarrilean, eta a ebatea oso nekosoia ixeten zan, zerreagaz... lepoa, ondo, makurturik, eta gorputze nekaturik, ebaitxen zan... eta ebai eta ostean, denpora ona ezkeru, beragaz gariegaz, bost edo sei gari eskuen artute, besartean artu gari txolea eta amarraten ziren.

Gero ostean, kodaiñagaz ebaixten ziren. Ta garie lerrotuteko, kodaiñari imintxen zakon egun bat edo, obeto, batzeko.

Urrengo etorren bearra zan, denpora onagaz, soloan bertan, meta txikerrak eitzen ziren eta ostean, apur bet ziketen zirenean, meta nagusiek eitzen ziren. Eta olan, egoten zan, arik eta, denpora beroa etorri arte, eta orduen, gurdien kargau ta etxera eroten ziren, eta etxe ondoan zabalduete ziren, eguzkie, obeto, artzeko.

Eta portalean arri losak imiñi, erdi zutunik eta txolea eskuten artute, an, arrien ioten ziren alde bietatik... eta orretarako bearrerako, geienetan, nekosoia ixeten zan lez, auzokideak alkarrerri lagunduten eutsen.

GARI GARBITZEA ZELAN EGITEN EBEN...?

Gari garbitzea eitzen zan makiña bateaz. Eta ak makiñeak, eukitxen zeuen, garie botateko, ganean, kaja bat eta ain kaja aurrekaldean, berago, egoten zan sare bat eta a sarea ibiltxen zan mobimentxuen. Manilla baten emon eskuez bueltak eta aren makiñen barruko lau aspak, bueltaka, eitzen zan bearra.

LABA SUEK, ZELAN EGITEN ZIREN...?

Labasuek, nire aldien, garirako oso gitxi itxen ziren. Baiña artontzako eitzen ziren.

Labasue eitten... goxean goxetik... labea betatuten zan otabar edo egur

errama sikuekaz eta emoten zakon sue eta ondo, erre eta labe aurreko ormak, arriek, erdi zuriturik, paraten zirenean, laba sue eintxe paraten zan eta gero, ostean, belaki bateaz prasarik andiena ataraten zan.

Gero ostean, beste bara luze baten puntan trapu bet amarrata, eta tiñeru bat ureaz laba aurrean, eta an, sartuten zan ori barea trapuez eta an, bustitxe, labako autse ataraten zan kanpora, eta garbittute lotxen labea, artoak barrure sartzeko.

OARRAK

(Lenengo zenbakia orrialdearena da, bigarrena lerroarena)

1.1: *Esatera noa*: Esaldi au erderatik oraintsu sartua da eta ez da egokia. Obeto esango dot.

1-1: *Memoriz*: Guk beti esan dogu *buruz*.

1-2: *AI doten gaiñ ondo*: *Gaiñ* ori oker esana dala dirudi, *laiñ* izan bear leuke.

1-4: *Zergaitik ze*: Alkar-izketa onetan berba egiten dauanak sarritan artzen dau esaldi au berba-lagun lez, ez dago txarto be.

1-7: *Erritxan*: Bermeo'n *pellikan* esaten dabe, Mungialdean *errittan* eta urriña-go *burrukan*. *Errittan* berba au erderazko "reyerta" da, *pellikan pelea* dan antzera. *Errittan* edo *erreztan* todi gitxitan esaten da.

1-7: *Igual*, erderatik artua, *bear ba'da*, edo zalantzea agertzeko. Ez da polita euskeraz.

1-12: *Zeuden* esaten dabe mungiarrek *eben* nal dabenean. Albo-errietan *eu-rien* be entzuten da.

1-17: *Intxe*, laburpena da eta *eginda* esan nai dau. Bizkai'ko euskereak olako asko daukoz, euneko berrogei inguru galtzen da berba egitean.

Orrek ez dakarsku onik ezer, beste euskalki batzutakoai gure euskalkia gaxago egitea baiño.

1-21: *Lotxen*: Bizkaian *lotu* erabilten da *gelditu* esateko. Beste berba bat dago, *geratu*, gizpuzkoan ezaguten ez dana, erderatik artua dala dirudi: *Quedar/geratu*.

1-21: *Parajeen*: Itz au ez da erabilten Mungialdean baiño. *Urren* esan gura dau eta erderazko *paraje'tik* artua dirudi.

2-2: *Geldike-geldike*: Obeto litzake *astiro-astiro* esatea, Bermeo'n *gitxike-gitxike* esaten da.

2-9: *Olao*: *Olako* esan nai dau, *olango* be esaten da.

2-9: *Koisuten*: Emen eta beste leku batzutan be entzuten da. Arratian be entzun dot eta erderazko *kogidu'tik kojju* sortu dala dirudi. *Arrapau*, *atrapau* be esaten da baiña guztiak erderatik artuak.

2-13: *Kanbia*: Euskerazko *aldatu* ez da sartu errietara.

3-2: *Solok*: Maruri'tik Urduliz'era biratean, Gatika barru dala, egiten da mugatzaillaren galtze au *soloa/Solo*. Berba au lateratik artua ei da, *solum*, gazteleraz *suelo*. Lurgintza gure artean asko zabaldu zan erromatarren aldiaren eta ainbat berba daukaguz eurakantik artuak: *keriza*, *kipula*, *pago*...

3-4: *Jungedea*, erderazko *yunke* dogu, euskerara eratuta. Pika maillua: *Pika* ots-itza edo onomatopeia da. *Maillua*, laterazko *maleun*, baiña erromantzetik artua, eta izan be Aragoigokotik, // dauken itzik geienak lez.

3-8: *Etzean*: Tokirik geienetan *etxean* esaten da, baiña naikoa zabal dabil inguruetan *etxean*. Arratia'n, Zeanuri'n, *etzean* esaten da, Artean, osteran *etxean*.

4.1: *Nekosoak*: Euskarazko itzari erderazko atzizkia sartu jako. Zergaitik ez *neketsua*? *Neke* bera, laterazko *necem'tik* ei dator.

4-10: *Zeule*: esan nai dana *ebala* da.

4-13: *Indabak*: Letrazko faba'tik euskerazko *baba*, eta *india-baba* da indaba. Baba txiki oneik indietatik ekarriak diralako.

4-15: *Garbea*, sarriago entzuten da *Barea*. Artoaren lorea.

5.5: *Bere*: gaiago entzuten da *be*, baiña Mungia inguruan *bere* be bai.

5.6: *Azao*: Itz au Mungialdean baiño ez da esaten eta jatorra da: *Urrin* esan nai dau eta *asi* gaz dauka zer-ikusia.

5-8: *Gu* diño baiña guk izan bear leuke. Ñork-atzizki ori euskaldun barriak galtzen dabe, baiña zarrak be ba- dauke arriskua.

6-2: *Bera bear*, Gatika-aldeko laburpena da, beste erri batzutan *bear*, *biar*, *bien*. esaten dabe.

6-8: *Zergaitik ze*: lk. 1-4.

6-15: *Timonela*: Bermeo'n *lemazaiña* esaten da.

7-1: *Bueno*: Alkar-izketetan sarritan sartzten da erdel-itz au eta ez da egokia. Obeto litzake, *bai*, *ederto* edo olako zerbait esatea. Baiña gatx izango da ori lortzea. Orrela galtzen da ondoen euskerea, geien erabilten doguzan berbak erderatik artuta.

7-10: *Martien*: Ona emen gure zarrak mungialdean erabili dabezan ille-ize-nak: Urterrire, zezeille, martie, aprile, maietza, bagille, garagarrille, agustue, iraille, urrie, zemendie, abendue. Gazteen artean izen oneik galdu dira, eta zarren artean be ik. 10-2 nobienbre agertzen da.

7-12: *Akabuen*: Azkeneasn esan nai dau.

7-30: *Daube*, debe. Jatorriz *daue* zan.

8-4: *Moñoagaz*: Lurralde onetan *rñoa* esaten jako buruko uleak zapi baten batuta burugaiñean atzerantza eroaten diranean. Itz orretatik sortua ei da erderazko *boina* eta *txapela* ostera erderatik sartu da. Konturatu Frantzia'ko *chapeau*, au be *kapelo* edo soi-gaiñeko txikia danetik etorria.

9-1: *Pozgarrizkoak*: Ñaikoa litzake *pozgarriak* esatea, baiña sartu da beste era au be.

9-7: *Natibittete*: Eleizbidetik etorri da berba au, *nativitatem*, *obe* litzake jaiotza esatea.

9-7: *Kostunbrea*: Ez da sartu errira *oiturea*.

9-16: *Zelebretako*: Ez dogu onartu erri-maillan *ospatzeko*.

9-13: *Misa de galloan*: Olako esaldi asko sartzten da gure errietan, batez be zenbakiak diranean, eta tamalgarria da, zergaitik esan ez *Oillarraren mezan?*.

9-23: *Frankutxua*: Erderaz ez daukan esan-nai bat artu dau euskeraz "franco" berbeak: Ugaritasuna adieraztekoa.

10-7: *Ebatea*: *ebagitea*.

10-12: *Zakon*: Au sarritan entzuten da, guk beti esan dogu *jakon*, baiña askori entzun dautset aspaldion *zakon*.

10-22: *Ak makiñeak*: *makiña arek* izan bear leuke, baiña mugatzaille bi erabiltea sarritan jazoten da eta Bizkai'rik geienean uste dot.

ESALDI JATORRAK

1.1: *Ni neure*: Gipuzkoan *neronek* esaten dan lekuan; Bizkaia'n *neuk* esaten da. Baiña sarritan entzuten da *nik neuk* be eta gauza polita da.

Solozaba tar Paulin

ANTXIÑAKO BIZIMODUA

(Dima'ko euskeran kasetean artua)

An, badakizue ba - urreratu -, ba joaten gintzazan maletan artute urdeie ta artoa, eta gero eroaten genduan ba, lau lagun joaten ba'gintzezan lauroentzako pipertxo bana. Eta gero basoan agiten genduan ba, sua, ire-baten joaten gintzazanean bai; eta su egiten genduanean erretan genduzen areik an, txingertxuen ganean, pipertxuek, eta olan ba, sakutxu bat eroaten gendun maleteagaz, eta an, sakutxu orretan, arek pipertxoak batu polito-polito bigundu daitezcan. Eta gero, urdeie erretako, ba, eiten genduzen burruntziek; badakizue ba, gizonak eukiteurien (eukiten eben) olan kutxillo txikitxu bat boltsan, eta aregaz, kutxillo txikitxuaz egiteuriezcan (egiten ebezcan) burruntziek. Eta bakotxak bere zatitxoak an burduntzien erre, eta arto zatitxo bana ipiñi, eta orrek piperrok zuritu, eta piperrok zuritu ondoan ipiñi arto-ganean, eta gero urdeien koipea bota areri piperrari, eta jan zati bat, eta oster a be erre urdeie, eta oster a be bota koipea apurtxo bat, eta yan.

Eta gero, izaten ba'zan iko denborea-edo, sagar denborea-edo, a sagartxo bana-edo, olan ganerako. Eta gero bazkalduta, apurtxu baten egon, eta ordu-bete edo ordu erdi baiño geiago, iru ordu lauren sikeran sikeran, lepo-bizkarrean artu kargea bai, eta eroan bear burdie kargetako lekure. Eta gero, ba, izaten ba'gintzazan iru lagun, bija bine burdikadea eiteko, eta gero an, burdikadea bija bine einde, burdikadea atara orduen, ba, bueno, oin bigerko (biar-ko) atarateko ebagi bear da atzera idea (ira), eta ebaiten gendun idea, etorten zan illuntzea, eta etorriten giñan etxera.

Eta gero, ba, izaten ba'zan segun, ze denbora dan, taloak erre amamak, edo morokile; eta ipiñi mai txikitxu bat sutan (sutondoan) erditxoan, eta yan bakotxak bere kollaratxuekaz andixik danok; eta gero egunen batek, a ondartxue, gandailleko ondartxue, egunen baten adaten gendun ba, a gozo-gozoa izaten zan-da.

Olan izaten zan bizimodua.

Eta yagi, eta pentzau bez oingo moduan kafe atara, ez egoan-da, txokolate apurren bat-edo bazan; ogirik pentzau bez, artoa edo, taloa-edo, olan, eta basora joateko ba yan taloa ta esnea-edo, artoa ta esnea-edo, eta gero basora joan. Eta gizonak geien-geienetan ikatzgiñen e, geien-geienetan; andrak idebaten (ira ebagiten) eta gizonak ba ikatza eiten.

Ba'dakizu zuk ikatza zer dan...? Txondorra ez, beintzat, ezta...? Zuk bez Luis, ezta...?

Ñik badakit.

Zuk badakizu, bai. Ba olan, txondor orretan aita-urien (egiten eben) bagizonak iketza eta gero iketza orrek betegarri eskatuteuen (eskatzen eben) orduen, ba betegarri eskatutako Bien yako zuloa txondorrari, eta gu urrean egon ezker o idea (ira) ebaiten: "Erdi zie, onik i, eskillaran emoteko zuek egurrek niri" obeto esateko- ein bear izaten zan a zuloa garbitu, eskillaran pareu eta andratxoak emon gizonari egurre; gizonak a zuloa bete, ganetik lurre bota, jo jo egin paleagaz, eta egositen zan iketza.

Ori zan ba, lenako bizimodu basokoa; eta solokoa, badakizue ba, solokoa udabarrien frantzesak (bedar-mota bat) ebaten eta gero Jaietan: "Gaur laietan egin beadu (egin bear dogu). "Buena ederto", eta gero umeak: "Ama, onek negar eiten dau, titie gure dau" "Ekarri ba" pozik, apur baten itxoteko, laieta orreri itxite apurtxo baten itxoteko.

Ai, ai, ai, lenako bizimodue. Eta olan gorringoak-edo boltsan; gorringoak ba'dakizue zertzuk direzan...? Gaztain erreak. Olan apur bat-edo, onan artu kuxkurtxuen bat-edo, umeari titie emonez, yateko, ba gosea eukiten zan ba, ez egoan ba zer yan-da.

Eta gero igurdien (Eguberdia) etorriten gintzezan etxera, eta amama babak ondo egosite eukiten ba'euzen (ba'ebazan), pozik; igual uren ganean yantzan; badakizue uren ganian yantzan, babak...? egosi barik.

Ba olan, olan izaten zan lenako bizimodua, olantxik,

NESKATXIEN ARREOA

Eta arreoak zelan...? Ez oingo moduen, eleganteago, oingo moduen ez.

Burdietan etorten zirean.

Eta gu ezkondu gintzezan, ori ogeita bost urtegez, ni amazortzi urtegez, eta ba ori etxagun andie zan-da...! Nik ba nik be zeozer euki neuen, oge bi euki neuzen, da gero suterako zeozer, da izeratxu batzuk, eta ba s̄keran gaztea, e...? Ori ba, e...! Amazortzitzu urtegez - orduen ba sasojak...! - Eta gero ni an ba, badaki Lujs'ek, ni nongo non jaioa nazan, ortxe etxe eder baten. Eta gero an euki genduen baskarie, nire gurasoak il ardi lodi eder bat, eta badakizue lenako jana zer izaten zan...? Pistola-sopea, badakizue pistolea zer dan...? Bai, barbantzue, azea, eta gero gizedue ardi lodiegez einde (eginda), eta gero ba izaten ba'zan udea, gatzatue, eta izaten ba'zan negue, arrozkonletxe, eta gero kafea, eta kopatxo bana-edo, ez botella enkortxeurik e...! Egon bez, pentseu bez ekarterik...!

Nirean bai, e...!

— Zeurean bai.

Nik kaja bat ekarri neuen, eta sobra.

— Bi, bi sobrau zirean.

Kaja bat osoa ekarri neuen orduan.

Eta gero an ori bazkarie ein. Biteriñon ein zan ba nire arreoak, nire arrena. Onen koiñatue zan arotza, ta da, orain ez deu egiten baja (baiña), eta errentadore biek; Eusebiotxo'k lelangoko oia, ala neure nebak...?

—Ez, Eusebiotxo'k.

Eusebiotxo'k ekarri euan lelangoko oia, ezta...?

—Ez, Martxeliño'k.

Neure nebeak, a Martxeliño'k...!

—Neu be emen egon nintzan bodan-da...!

Etorten zirean ba...! Zenbat burdi etorri zirean...? Martxeliño bat, Eusebiotxo bi, Fidela iru, ta Larralde'koa lau.

— Geurea be joan zan...?

Bai, zuen aite, zuen aite, bai.

— Ni jaten etorri nintzen da...!

Eta emen, emen ekarri euen bederatzi urteko mutillek arrena, emen Fidela

alargune egon zan da...! Fidela areri akileu (alokatu), baia (baiña) Sanpedra be-
ra agintau nondi etorri burdie. Eta etorten zirean burdiek jantzite; oge bategaz
kaxea, bigarren oiagaz esaten... masadorea esaten dautsoe batzuk, guk esa-
ten dautsagu aspirea, taloak-eta erretako, aspirea.

Arkea.

Ez, arkea kaxea da: masadora, aspirea, bai ta gero beste oian ba, atzenen-
goan, eskutillek, laiek, atxurre, zeztoa, igitie (igitaia).

Eta goruetan eiteko ekarri zenduzen...?

Eneuen (ez neban) ekarri goruetakorik, ez, nire sasoiari ez zan egon gorue-
tarik. Onen azkenengo oiak, eta burdiek illadan e...? Mantakaz, emen lepoan
erdien, mantan erdien borla gorriek, badakizu, txiliñek beien samatik. Ezpae-
goan etxean, auzoan; auzoan ezpaegoan, beste auzotik ekarri. Baia elegante
eroan beiek, eta gero orrek burdiek akabaute gero, neskatziek dotore-dotore
otzarak yantzi; lelangoko otzaran kafeko zerbizioa, eta flater (azpil) batzuk eta
onan, eta bigarrenean, ba basuek edo olan ekarten zireazanak lau burdi ta lau
otzara, eta gero atzean otzaradunek paseu ta gero, atzean neskatotxo batek
suteko kantin zurie, lenau gorriek, baia nire sasoiari ez egoan gorririk, zurie,
orrixek, joan Burungoen Andreak, ekarri ei'euene, orrixek, nire kantine. Baia
otzarak onan eskuaz goratute ez e...! Ipiñi dotore buruen onan ikerarik ein
barik e...! Ondo ba esaten da ze, dotore-dotore joan, polito joateko, polito joa-
teko. Bai ba, onan arpeie (aurpegia) sikitutekoagaz, eskupañoagaz, esaten
dotsezue toallea...! Onan ein zapie, zapie ba'dakizue zer dan...? Ona zapie
ein, ipini buruen zapie asentadu, asentadu, onan zapal-zapal einde. Eta otza-
rak jantziten, danak ez ekien. Santo Kristoak ekarten ba'zirean, bi, onek obie-
tan, onan ondo e...! Atondute, atondute, ez ipini ta ipini, ez, ondo atondute.

Eta gero emen, gero aparie. Baba zurie, makallaua ta giseue, onek ez zire-
zan pastoreak-eta, karnizeriko okeleagaz, da gero ikopasak eta intxaurrek, da
gero kafea, eta kopatxoan bat ba egongo zan.

Eta gero dantzari e...! O, ni be pareu bez, atzenengoa zala-ta... Pareu bez
dantzari gaue guztien. Akordatan zara, Gildo...?

- Bai.

Panderoa jota. Ori nire koñeta, neba gazteen andrea, Badakizue ba...! Pan-
deristea zan...! Ondo eiten euen josten, eta onan kantiñekaz tinkilin-tankalan,
tinkilin-tankalan, tinkilin-tankalan e...! zerakaz be igual, koillarakaz-edo...! Eta
bai, a bai eztegue, seme ederra...! Zu be ezkonduen ba'zara, onango ezte-
guen bat eingo dogu...!

DANTZA EGITEA

- Eta emengo gaztedie nora joaten ziran dantza egiten...?

Dima'ra joaten giñan, Dimara, an e... Badaki orrek, Gildo'k, Aita Goikoe-
txea deituten yakon jesuitatxo bet.

- Dominante bat.

Ene...! Eta joaten giñen eleizara, eta esaten euen berak e...! "Ai, al, ai, Di-
me'ko neskatziek mutilen besartean. Inpernue zabaldu, zerue itxi...! Ene... gu
dantzari eiten bildurre, ez dogu ein bear, inpernure joango gara-ta...! Onan
esaten euskun, eta guk ba dantzari ein gure, eta plazan jtxi ez, ba inpernura
joango gareala-ta...!

— Orreik Zeanuri'koak-edo, orre; k anai bi zirean.

Ez anai bi, Don Simeon da ez...! Gero Goikoetxeatarak eta anai bi zirean...!

— A, bai.

Orreik gero ona, ejerzizioak emoten, bi etorten zirean.

Beitu, ezteket buruen...

Simeon da Don Lujs parroko zan, ene...! Okerra zan, okerra...! Eta guk inpernura joan gure ez, zerure baiño, eta esate euskun mutilen besartean dauernari inpernue zabaldu, zerue itxi, da Dime'ko neskatxak inpernure. Onan esaten euskun, eta guk joan gure ez inpernure, zerure baiño; eta gero or bidean jo panderue, eta Estefana, Gergori, au Dominga be, t;re...! Baia nik sosegurik eneuen eukiten; oin nago sosegeute. Dantzan izerdie bota bai, ta igual painelua be eztaikit nik eukiten ba'gendun, emen edo ainbaten; onan onan siketu izerdie, orduen manga laburr; k ez zan eroaten; manga luzea...! Eta loitu ete zan pa...! Onan ein eta ostabe (ostera be) siketu.

Or etxe-ondotxoan-edo, ta zenbat, e...! Gildo...? Or poste ingurartean, nobioa ondora arrimeu bez, etxe ondotxorartean, ez ba Gildo, ez, ez mut; len ondoan, etxondotxoan artean bez pentsau bez, Bata Galafan eta bestea Falafan da.

Eta Dima'tik ilun baiño lenago urten bear.

Amaiketako kanpaiek jota, onantza, ona gora allegetako, emen goien. Aiztutxogain Aiztutxogain, orreri esaten dautsagu aiztutxogain (1). Eta non egon zarie "Ave marietan" ba...? Aiztutxogainean egon gara ba, ama...! Ederto, ederto...! Aiztutxogainean egon ba'zarie, ederto...!

Baten paseu yatan niri, neure arrebea, da Burungoen Andrea, ta ba joan giñean batenbatzuk, ez dakit ba zuek izan bazifien...? Ba Igorre'ra ta nire arrebeaz, Leon etorten zan orduen, au Leon Iguntzekoa, a be etxerako bildurre, eta esan notsen (neutsen)... areri somantea etxean da, arrebeari, neuri barriz, neuri ez.

Dominga'ri ta niri baten, Sanpedroko errepetiziñoan, dantza ta dantza ta dantza, ta alango baten, gure dana ein genduanenan... etxera joan bear ko ba...! Goazen ba...! Urten genduan ba ara, bola-lekue eoten zan ondora, oin pelotan eiteko lekue dagoan lekure, ene...! Ara begitu, ene...! egunen ostrantzik (argi-izpi) bez, ene... gaue dana. Zer jazo yaku guri...? Ba ez geunken errurik. Bonbilek egozan plazan izetute, eta areik emoten eurien (eben) eguzkien ostrantza, eta ilunduten egon arren, gu pozik, egune zala-ta, a bai gero...! Ai, ama zerukoa, a bai gero...! A bai, a...! Alakoa izan zan. Ostantzean beti beti lenau erretiro ona egoten zan emen, lenao bai ona.

(1) Boskarren orrialdean "Aiztutxogain" bear bada, "Arri estut; k etorriko da, urrean. Artaun'era eldu baiño len dagoan arri nagusi bat, bidea estutu egiten dauan arri bat da.

OARRAK

Artutako euskerea, Arratia'ko Dima'ko Artaun'en auzoko etxeoandra bateri aututakoa da, irurogei urteko, alegia. Izketa onetan, noizean bein albo-etxe-ko gizon bat tartekoa izaten da.

Edeski oneitan bereiztasun oneik agiri dira:

1. Arratiarren eta Bizkai'ko beste euskaldunen joerea, itzaren azken "a" "e" b;urtzeko. Esaterako: urdaia-urdeie, burdia-burdie, bina-bine, ondartzua-ondartzue, ira-ide, bizimodua-bizimodue, etabar.

2. Itzaren erdiko "a" batzutan "e" biurtzen da baita be. Esterako: jkatza-ike-tza, gintzazan-gintzezan, izaratxu-izeratxu, dau-deu, bat-bet, etabar.

3. Bizkaia'n zoritxarrez laburpen asko erabilten da, eta Arratia'ko euskera onetan ugari oartzen dira. Esaterako: ira ebagiten-irebaten, egin bear dogu-egin beadu, eguberdian-igurdien, eginda-einde, baiña-baia, igitaia-igitie, aurpegia-aurpeie, ostera be-ostabe, etabar.


4. Aditz jokoetan, arratiarren joerea "i"an amaitzen diran aditzak osorik erabilteko. Esterako: egosten-egositen, etorten-etorriten, jazten-jantziten, etabar.

5. Euskeraz itz egokiak izan arren, erderakada ugariak erabiltea. Au, euskeraz eskolatubako euskaldunen akatsa da.

6. Joskerea. Edeskilariari egotzi bear yakon eretxirik gorena, nire ustez, joskeran datza. Geienetan egoki ta garbia da, euskaldun jator bateri dagokionez.

Zubiri'tar Iñaki

OARRA: Kaseta onen izketa, Luis Blancou Bilbao'k magnefonoz artua da.



Euskeraren jokabidea

"BEASAIN" IZENA DALA TA

"EUSKERAZAINTZA" aldizkarian XXIII garren zenbakian Euskerari buruzko nere lana irakurri ondoren idatzitako eskutitza bialtzen dit Dorronsoro Juan'ek Interesgarria dalako ementxe doakizue:

Arrinda Anes'ek

DONOSTIA-1993' ko Dagonilla
Arrinda ta Albisu'tar Anastasio, Apaiz
DEBA

Aspaldiko adiskide, On Anastasio, agur: Zure idaz-lan eder batek, berritue-razi dit, aspalditik gure izkuntzalarien artean darabilkiten naspilla bat; eta iñoiz argitu ez digutena.

Alegia, beste askoren artean, orain amar bat urte, BEASAIN erri-izenakin, izandu zuten eztabaida luze ura, ta arian-arian len-da-gero, baño, illunago utzi zigutena.

Auzi ortan argitasun apurtxo bat jarriko ote nuan edo; nik ere, biali nuan iritzi bat; bañan etzidaten aintzakotzat artu. Ez dakit, Euskeraz biali nuelako, eta eztabaida erderaz izandu zalako edo; etzidaten beintzat, jaso zutenik ere erantzun, ta gitxigo argitaratu.

Korapillo ori nola askatu, ots aundiko maixuak ziran, euren iritzia eman zituztenak. Eta iritzi auek nolakoak izan ziran jakin dezazun, jaso nitun zerrenda batzuk bialtzen dizkizut. Eta jakindu nuan, an eta emen, oien itxurako beste asko ere, azaldu zituztela.

Eta jakiña, gai auetan ez jakin diranei, orrela izan ditekela siñes-erazten die-te, leako edo ziria sartuaz. Eta uste dezu, iritzi danak ez-berdiñak diralarik, iñor jaitxi zala asto-gaiñetik, besteei arrazoi ematea?

Gure mintzaera maite onek, berezko zun asma-indarra, argi-izpia, sena ta gatza-oraïndik gexaldu gabe bait-zegon-gorde zitun bitartean; millaka ta mÿllaka itz egoki asmatu zitun, eta lekuan-lekuari, ezaugarri bezela, egokiena zetorkion izena, ipiñi zioten.

Gaur egun, gure izkuntzaren etorkizuna aitzaki artuta; orrenbeste ogipekok, bere itzal gozoan atsegin artzen duten; "zorjoneko garai auetan EUSKERABERRIA"ren baratza operean; eta uda-berrian ziza-larrean perretxikuak bezela, erne zaizkigu, millaka izkuntzalari naiz gramatikolari.

Eta ain da larria, auen aultasun edo gexaltasuna: Euskaldun-jakintzaren agerpena erakutsi bear liguken Erakundeari; deitura jator bat asmatzeko ez dira gauza-ta.

Ain bearrezko zitzaigunari: "Eusko Ikastola Nagusia", jarri ziotena deitura, gure gazte aldian. Eta bere alde sortu zan ekintza kementsuari, "Eusko Ikasto-

la Nagusia'ren Alde" deitu genion. Gaurko jakintsu izenekoek, geienak beintzat: U.P.V. deitzen diote, ta banaka batzuk Eusko Unibersitatea".

Eta orrelako zenbat itz "aldrebes", ez dizkigute asmatu, euren zorabio ortan: kalitatea, mankomunitatea, xexualitatea, posjibilitatea... gure Euskera, jtz-motelak asmatu zuten izkuntza, balitzake bezela.

Orrelako asmakeri xeble auek entzuten ditudan bakoitzean; aako mutil-xar gjzajo ta erren arekin, gogoratzen naiz: Landan lore-xoda bat bildu, an dijoa pozaren pozez; ardatz-lanean ari ziran iru aizpari, eskeintzera abiatu zai-gu; ta zitaletj;k, baño zozotik geigo zun arri, mingaiña trabatzen zaio, ta "zapla" jaurtitzen die: "Iru aizpatxo zerate, langille ta eder, bañoan, irurok itz-motelak". jOrixe entzuteko zeuden gorularjak! Asarre bizjan jaiki, ta liñaiarekjin bizkarra berotzeko kiñadak egiñez, iruren irurak deadar egiten diote: "I, berriz, antote-la"

Bañoan, jarrai dezagun, AIN eta ARAIÑ'en, jatorria billatzen. ON JUAN ARIN, Apaiz jaunaren iritzja, garbia zan. ARAIÑ murrjztetik zetorrela, AIN eta emen R jaulki zaion bezela; ARAÑA gelditzeko I jaulki bide zitcion.

Edesti edo konda;ran oiñarrjzten zun, bere iritzj au. Araba ta Gipuzkoa, Naparroa'ri ebatsi, ta Gaztela'ko erregek, bere mende artu zitunetik Naparro-a'ri, sortaldeko egala, babesik gabe geldjtzean SAKANA ibarrean, gaztelu bat eraiki zuten: ETA XARRI IN ARAIÑAZ deitua; beraz, ez degu atzo goizeko ize-na, sakan edo ibarrei, ARAIÑ dejtzea.

Eta gaur bertan, Lizarrusti'tik Etxarri ta Arbizura daraman bide-zabal edo errege-bjde ertzean, eta ELKORRI errekatxotik naiko gertuan, eta ibar-eder baten erdian, antxen da ARAÑAGA baserri-etxea, ta erriak ARAÑAA deituz ezagutzen duana; ta gaurko jdazlarjak ARAÑA soillik izentatzen digutena.

Eta azkeneko deitura au aitatzen ba'dizut, da, Olaberrin ezagutu dedalako, abizen au daraman Etxarri'tar bat. Auxe bait-degu Euskera'ren patu txarra. Erriak itzak itxurarik gabe utzi ba'ditu, idazkariak, zuten itxura apurra, oraindik geiago itsusitu bait-digute.

Oraingo idazle askok, muxin egiten die, gure apaizak egin duten lan arrigarriri. Bañoan, nola ez izan oroimen berezi bat, aako gure errietako erretore jaun aiekin, eta leku-izenei dagokionez?'

Ez dut esango, dan-danak euskalzale ziranaik, bañoan, geienak bai, ere maj-taleak izan dira, ta aieri zor diegu, euskel abizenak, gaurdaño aldakotza aundirik gabe irixtea.

Beraz, alderdi oni bakarrik begirata ere; gure erriak zor izugarri du erri-ser-bjtzari apal bezin zintzo aiekin. Eta ikasi-izeneko oiek, bere lanak jksten eta aztertzen, arreta geixeago adu bear luteke; eta ez gai ta alderdi guzien berri ba'luteke bezela; aien lan jakingarria, erabat aaztu dadin, gauza zarren sapaira baztertu.

ON JUAÑ, on-puskak, bere abizena zun ARIN'ekin ere, gertatu bat esan oj zidan. Euskal-jakintzan ospe aundia eman zioten jaun batek: eusko-abizenen zerrendan, euren esanaia azaldu zuan; eta ez dizu ARIÑ abizenaren esanaia, Liger bezela itzuli!

Apai jaun apai arek, paper zarrak miatzen ere sajatua zanak; onek zion; ARIN = Liger azaldu zuan arreatatik: Nola iritzi arin ori jarri lezakek batek, jakjin gabe, aurrekoak gure jatorrjko etxe orrj ARAIN-AUNDI deitzen ziotela, eta bere inguruko etxeei ARAIN-AUZO.

Eta nik orduan, lkastola guzietan zabaldu zuten iZTEGI-BERRIAN irakurri berria nintzana, adierazi nion, zer eteraziko: MODERÑO = MODERNOA, MODERÑO = MODERÑO, eta ori, ordurako EUSKALTZAIÑDIAko aulki baten atzetik zebillen maixu batek idatzia zala adierazi nionean, erantzun au eman zidan "Berriz ere, olako itzaien eskuetan dabillen bitartean, Euskera gaxoaren gurdi-ardatza; kurrink soiñu latza atereaz ibilli bearko dik".

Gai eztabaidagarri onetzaz, bat aspertuerazteko aiña idatzirik izango dut; eta goazen, itzaldian ibilli zendun beste gai batekin.

Baserri batean, banuan jarduna gogoko zitzaion, lagun bat; eta gai bat agortzen zanean, ba'zuan esamaña egoki bat, jardunean jarraitzeko: "Itzak ekartzen du-ta izbidea"; ta "berriro amarrara" erasoko zion, gai berri bati.

Eta, "ERROMATARRAK AKITAÑIAN" atalak, sortuerazi didate izbide berria. Eta egia izan bear du, Estrabon nola Cesar'ek dioten bezela, Pirineo-menditako erriek, ingurukoek zituztenetik, mintzaira berezi bat zutela.

Eta iritzi ori egia dala adierazteko, Akitania'ko Pirineo mendietan, agertu dirala diozu, erromatarrek, euren jainko ta ildakoei jasotako alde ta arlosa bi-txienak; eta oietan arkitu dituztela, idatzirik izan diran, euskal-itzik zarrenak.

GAROÑA ibaiaren ur-begiak, eta gero uraren ixurian, bateratuko diran bas-te lats edo errekatxo asko ere, mendi gallur oietako elurrak urtzean, sortu ta amilka dijoaz, arain, aran edo ibarretako lurrak ezatuaz.

Eta, ara nondik, aurtengo Uztaillean, txirrindulari apal bezin jaioa degun Mikel Indurain'i jarraituz, eta mendi inguru aietako mapak ikusiz nenbillela; eta jakiña, irabazi zezan, gure naiarekin, igoera latz aietan zerbait laguntzen genio-la; nola arkitu ditudan, inguru aietako ibaitxo bat jarraituz, neretzat euskal-ku-tsua duten erri izenak.

BERET mendi-lerroaren Kataluiña aldetik, aintzira batzuk daude BASIBE deituak, eta Frantziako muga inguruan beste aintzira bat L'Araing deitua eta inguru garai auetatik, Garona ibaira urak ixurtzen ditun lats edo erreka baten ertzetan daude: AUGIREIN?, ILLARTEIÑ?, AUKAZEIN, ARGEIÑ, AUÑDRESSEIN, ARRIEN, deituak diran erriak. Deitura auek ez ote dute, gurean duten A izki E, itzuli; AIN gure leku askoren bukaera, EIN biurtuaz?

Eta On Anastasio, erromatarren garaian idatziak utzi zizkiguten abere deitura askok bezela; Leku-izen auek ez ote digute adierazten, gaur EUSKADI ERRIKO muga bezela ezagutzen diran lurretatik, berreun kilometro eguzkialde-rago dauden erri-deitura auek; mendi sakan aietan, Jainkoa'k jakin noiz, baña bizi izan zirala, Euskera'z mintzatzen ziran gizakiak?

Bukatzeko, garaia izan ere, izango da-ta; beste izbide bat; urruti aietatik, erdi-bidean bezela, ortxe daukagu, ANDRA MARI azaldu zitzaigun erria, ta ainebeste mirari egin ditun LOURDES. Leku-deitura oni ez ote diogu euskokutsurik arkitzen?

Ñik gizajo onek, iñoiz Lurdesiko Amari otoitz egitean, beti Euskeraz egin izan diot. Eta bai, ANDRA MARI agertu zitzaion, neskatx apal eta beartsuari ere. Ta beartsua diot, alako neskatx polita, uroldeak ekarrita, ibai ertzetan uzten ditun txotxak, sukaldea berotzeko biltzea, biali zun sendia beartsua izan bear zualako, nai ta ez.

Ñeskatx Done onen abizenak ere, ez ate gaitu euskal urratsetan ipintzen? Txit aldatua egon arren SOUBI asera orrek, ez ate dizkigu, euskal deitura baten sustriak agertzen?

Eta, oraingoan, eta izbide berririk asmatu gabe bukatzera noa.

Ez dakit lerro auek bialtzen dizkizunaren irudiakin gogoratuko zeran, eta aspaldian, naiz elkar ez ikusi, gaztetan ezagunak giñan. Zuek sarri egon oi ziñaten Lazkao'n; ni, berriz, abizenak adieraziko dizun bezela, Ataunen jaio nitzan; eta gero bizibideak ala beartuta, berrogei urtetan, Beasain, Lazkao ta Olaberri'n ibilli baserri;k-baserri.

Eta asieran azaldu bear nizunarekin, bukatzera noa; pozetan irakurtzen ditut, zuk EUSKERAZAINTZA aldizkar;an ain egoki ta atsegin idatzi oi dituzun, lan alai oiek.

Eta Goiko Jaunari eskatzen diot, lagun zaitzala, gure mintzaerari, bere erroak jorratzen, indar-berritu dedin; eta igali mamitsu ta gozoak ekarri ditzan.

Besarkadarik beroena On Anastasio; eta ba'dakizu adiskide on bat nun daukazun. Eta nere gaurko leloa bukatzeko, oroitu zaite bai-ta ere: IÑDU-RAIN'ek, arain'en R gorde egin duala; ILLUNDAIN'ek, berriz, galdu.

BEASAIN ERRI-IZENAKIN EZTABAIDA

Leku-izen edo toponimia barrutia, txit labain eta irrixtakorra zala, esaten zigun, Euskera errotik ezagutzen zuan idazle batek.

Toki baten esanaia ongo jasotzeko, bertara azaldu, ta lekua bere inguruakin zeero aztertu bear zala; ta argitasun zerbait jaso gabe etzala itzuliko, adierazten zigun, leku-izen asko jaso zitun apaiz jaun batek.

Eta iritzi jator oiei, ajola aundirik artu gabe; ta EUSKERAREN sustrai ta senarekin erabat aztuta; gaiñera, aspaldiko oitura danez, euskal gaiak garbitzeko, gaztelera erabilliz: BEASAIN leku-izenakin, eta bere esanaia argitu nairik; egundoko naspilla sortu ziguten.

AIN'en bukatzen zaizkigun itzekin, beti gertatu izan danez; BEASAIN, itza dala-ta, elkarrekin antzik ere ez duten iritziak azaldu zizkiguten.

Berez illun eta zail degun gai au; ikasi ta jakintsuak, oraindik geiago naspillatzen ba'digute; gure leku-izenen AIN bukaera, latiñezko ANUSitik datorrela siñistea, jarriko gera, nai ta ez.

AIN bukaera duten baserri-izenak, naiko zalantza sortu izan didate; ta aietara inguratu naizanez, ia danak ixuri aundiko lurretan, eta amilka dijoan lats edo errekatxo baten inguruan daudela igarri diot.

Alegia, mundua dan ezkeroztik, uraren betiko eramanak, lur-azalean ebaki ditun sakan edo ibartxoetan daude, AIÑ nola ARAIN daramaten leku-izenak; eta ez Beasain'goak bakarrik, bai-ta Goierrian ezagutzen dltuan geienak ere.

Beraz, AIN bukaerakin dago izpidea; ta orren jatorria ARAIN itzean dagola, naiko garbi ikusten degu. Eta ARAIN itzari R jatean, AIN gelditu dan bezelaxe, itz beraren I galtzeak ARAN, ARAÑA ta ARANE sortu dizkigu.

Eta ARAIN itza murriztu dan seiñalerik garbiena daukagu, oraindik leku-izen askok gordetzen digutela, ARAIN naiz ARAIN idazkera. Ordea, geiena aldatu dituna, erria bera izan degu. Ta AIÑ-ARAIN, lbirekin Aiin aozkatzen ba'digute; ARAN, berriz, R jatean AAN'en gelditu zaigu: AANBUU ta URSUAAN. Esango nuke, elkarrizketan, erria ez dala oartzen, leku-izenak R dutenik ere; ARAÑGU-

REN = AANGUUN; OYANGUREN = OYANGUUN; eta onela millaka leku-izenen aldaera.'

BEASAIN'go leku-izenak begira nolako aldaketak izan dituzten:

Jatorriz bear zutena	Gaurko idazkera	Erriaren dejtura
Latsarain	Leasain	Leasiin
Astiatzarain	Astiasarain	Astixaiin
Untzara:n	Unsain	Untxiin
Gainzarain	Ganzarain	Gantzai:n
Barrendiarain	Barrenda:n	Barrundaiin
BERASARAIÑ	BEASAIN	Beasaiindarrak bareak

Eta GOIERRIAN, leku izen asko daude, ora:ndik ARAIÑ deitura garbi gordezten digutenak: Uelarain, Urdangarain, Amondarain, Zabarain, Berrarain..

Beraz, AIN nola ARAIÑ'ek ad:jerazpen bat duten; beste millaka leku-izen: ARRRAIN, ARAN, IBAR, ARATZ, bukaera dutenen lerroan jarri litezke, esakizun berdintsua dutelako. Ir:tziz ori zun, ON JUAN ARIN, apaiz jaun apal eta jakintsuak.

Ara or, Naparroa'n, BERASAIÑ; Gipuzkoa'n, berriz, BERASTEGLI ta BERA-SATEGI; eta erritarrak, R eta G izkiak janez BEASTEI ta BEASATEI deitzen diena.

Eta aztarna oiei jarraituz, zer dala-ta, BERASARAIN, ez izan, BEASAIN'en jatorrizko izena? Ta erderara: "Valle de pastos" bezela itzuli?

Usurbe mendiaren nagalean jaiio ta amilka datorren errekatxoaren alboan, BEASAIN erriaren biotz-biotzean; ortxe ziran garai bateko: ARANE-ZAR baserria, ARAÑE-TXIKI (santiñeko ogitegia); ARANBERRI baserria (Gaur Udaletxe dagon lekuan). Eta ARANE-AUZO'aren goenean daukagu ARAÑGOITI ga:jo-etxea.

Euskal leku-izenei dagokienez, gogora dezagun, abereak zaintzea zala, gure aurrekoen bizibidea. Ta artzai ziren arren, lekuan-lekuari, bere izatez eta bai:joz, garbi ezagutueraziko zun izena, egoki asko, :piñiko zioten.

Beraz, nola arritu, abere taldearen atzet:jk, larre xamur eta ugarien billa zebiltzen aiek; larre-leku oparo batekin arkitzean: BerazAdj, Berasaluze, Bere-zibar, Berazureta, deitzea; gure sakaneko larreei, BERASARAIN bezela?

Ta esanai garbiko, BERASARAIÑ'i; eguneroko jardunean, R biak jaten dizkio erriak, eta esanai garbirik ez duan BEASAIN nola BEASAIIN deituz laburtzen.

Napartar istorizale ospatsu dan, LAKARRA jaunak idatzia degu: "EUSKAL-ERRI'KO, toki-izenen esanaia, zeatz eta zintzo jasotzen dan egunean; azalduko dala, gizonen aurrean, EUSKERAREN aberastasun arrigarria".

DORRONSORO'TAR JUAÑ



EUSKERA ERAKUSKETAN METODOAK DUAN ZER IKUSIA

Lenengo euskara metodoak eta gramatikak sortu aurretik, gure izkuntza lege edo arau batzuen barruan sartu nairik, zenbait azterketa ta ikasketak argitaratuak ziran. Era ezberdiñetako lanak ziran.

Sortu ala aġtatuaz, lendabiziko Nikolas Landutxio'k latinez argitaratutakoa izan zen: "Dictionarium Linguae Cantabricae" bere izen burua. Euskerazko lenengo iztegia zan. Landuchio itaġarra zan, Toscana'ko Lucca errian jaioa. Bere liburuan, Gasteitz inguruan garai artan erabiltzen ziran 5.000 itz baño geiago jaso zituan. Landuchio'k lan au, 1.552'gn. urtean egin zuan. Eta 1.953'gn urtean Agud Querol eta Luis Michelena jaunak argitaratu zuten.

Geroago, baña metodoak eta gramatikak agertu aurretik, atsotitz-bildumak edo esaldi sortak agertu ziran. Gai ontan ezagutzen dan lenengoa, Esteban Garibay'ren "Esaldi ta iritziak" (Refranes y sentencias) izan zan. 1.854'an argitaratua. Auxe izan zan gipuzkoar batek euskeraz idatzitako lenengo liburua. Garibay arrasetarra zan eta Felipe bigarrenaren garaian, Errege edeslari edo kronista izana.

Euskera gaietako bildume-jasotze garai onen atzetik, euskera goratzalle sutsuak agertu ziran ! emen eta an, eta danen artean saiatuena, Aita Manuel Larramendi. Euskera baztertu ta iseka ta parre egiten zioten guzian, an agertuko zan andoaindar gizon ospetsu au, gure izkuntzaren alde kementsu ta bizi. Alaxe, 1.728'an, euskera goratzarre zan "De la Antigüedad y Universalidad del Bascuence en España" argitaratu zuan. Euskera ain ondo ezagutzeak-jakiteak ematen zion indar guziarekin, gogor ekin zion euskeraren aurka zebiltzan guziei.

Euskera-goratzarre giro onek, ezbairik gabe, euskeraz liburuak idazteari bultzada aundia eman zion, batez ere, inguruan zituan beste izkuntzan pare zala agertarazteko. Euskeraz idatzi dan lenengo liburua, euskera goratzeko asmoz agertu zala esan dezakegu. Bernard Dechepare'k 1,545'an egindakoa izen-buruz latinez ba-du ere, "Lingüe Vasconum Primitiae", euskera utsean idatzia dago. Gai ezberdiñetako olerkiak ditu, baña egillearen asmorik nagusiena euskara goratzea ta zabaltzea zala adierazteko, bere olerkietako zati bat emen azaltzea naikoa da:

Heuskara
jaldi adi plazara
Bertze jendek uste zuten

ezin scriba zaiteien;
orai dute porogatu
enganatu zirela.

Gure iritziz, garai auek bide-urratzalle antzekoak izan ziran, eta berealaxe sortuko zan gaurko gure gai oni lotua dagoan lenengo liburuarekin. Ain zuzen, Aita Larramendi izan zan lenengo euskal gramatikaren egillea, ta etzion nolanaiko izenburua jarri: "El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada" "Eziña menderatua. Euskal izkuntzaren araudia". Salamanca'n 1.729'an argitaratua. Bere aurka zeuden maxiatzalleak ziotenez, arrokeri puska batekin agertu zuan. Bere asmoa ezin burutuko zuala uste zuten aurka zeudenak eta baita euskaldunak ere; ez da-ba arritzekoa arro antzean azaltzea.

Aita Larramendi'ren idazkera ta gainditu izan zituan zailtasunak adierazteko, liburu bikain aren itzaurrean zionetik, zenbait iritzi agertu ditut:

"Gaur arte, euskera arau eta lege barruan bildu eziña zala uste zuten ez ezjakiñak bakarrik, baita jakintsuak ere; ez atzerritarrak bakarrik, baita erritarak ere..."

Aurrez egindako ezertaz baljatzetik izan etzuala-ta, ara zer dion: "Aurrera nola joan zuzenduko nindun iñor ez det izan; bidea urratu bearrean aurkitu naiz; beste izkuntzetako arauak alperrikakoak izan zaizkit, autagaj besterik ez, beste izkuntzekin zer ikusi aundirik ez bait du euskerak...."

Bere lana burutu arazi zion oñarriari buruz ara zer dion: "Ain lan zail eta arantzatsuan murgiltzeko izan dedan kemena, ez da euskera bere mallara igo ta adierazteko bakarrik izan; ez ta gure aberria egiztatzeko ere. Nere nortasunarekin bat datorren beste zerbait aundiagoa izan zan: euskerak erriari egingo dion mesedea ta onagatik baizik.

Euskeraren alde sutsu esandako batzuegatik oso gogor jorratua izan zan. Baña bere jokeraz jabetu ta ulertzeko, gogora ditzagun Arturo Campion aundiak bere gramatikaren itzaurrean diona:

"Oso erreza da, adibidez, Larramendi gaitzestea, baña baita ere aitortu bearra dago, bera izan zala lenengo euskal gramatikaren egillea, ta bera izan ba'zan, bear ba'da, jaiotzeko egongo zan euskera lana. Ez-ba izan zorrotze-giak bere erru edo okerrekin..."

Aita Larramendi'ren "Eziña menderatua" izeneko gramatikaren ondoren, euskal gramatika mordua idatzi ziran. XVII eta XVIIIgign. mendean, Silvain Pouvreau'rena, Joannes d'Etchebarri, Sare'koarena, "Grammaire Cantabrique Basque", Martin Harriet'ena arkitzen ditugu. XIXgign. mendean, Fleuri Lacluse'na, Archu Suletarraren "Uskara ta Franzes Gramatika", laburdi'tar Juan Ithurri'rena, Pedro Antonio Añibarro'ren esku-idaztia, naparra bizkaiera ta gipuzkeraren aditz-jokoa bereziki aztertuz, eta azkenik, Lardizabal'ena ta Willen Jan Van Eys olandarrena. Ainbeste gramatika egiteak ederki asko adierazten du, euskal idazleen artean gogo bizia sortu zula euskera gaj onek.

Bere-berea duan tarte berezia eskañi dezaiozun orajñ, euskal idazlearik bikañenetakoa izan dan Arturo Campion naparrari. Ez goaz, jakiña, oñarrikoak izan diren bere kondaira azterketetara; ez ta elertizko bere idazlan zoragarrietara, ere, bere "Gramática de los cuatro Dialectos Literarios de la lengua euskara" gain-gañoeko, goen-goenekora baizik.

Bearrezkoa bere itzaurre unkiagarrian dion zerbait aitatzea. Bere Ama-Lurra- ren izkuntza zarre bizirik dagoala ikusi ondoren, botatzen duan karrax; ezigai-

tza: Auek dira bere itzak: "Liburu au, atsekabez betetako aberkoi ekintza baten semea da...". Eta bere lurraldea, zituan bereizgarriak nagusienak kenduta, lapurtuta zegoala ikusitakoan, ala idazten du: "Nere zañetan euskal odola eramateaz eta euskaldunen izkuntza ez jakitzez lotsatu egin nintzan".

Bere gramatika bikaña bi zatitan banatuta dago. Lenengoa, atzizki-eransketari lotua dago. Bigarrenean aditz-jokoa aztertzen du, aditza bizi erakutsiaz. Lau izkelkien aditzak bata bestearen ondoan jarrietz, zeatz adierazten du, ta azaltzen dituan izkuntza-oiar jakingarriak, bere ikuspegia oñarri sendokoa dala nabari da.

Campion'en ondoren, euskera metodo-egille berriak azaldu ziran eta oiek izan dira urteetan, euskera ikasleen liburuak. Oien artean, Zamarripa'rena aita-tuko degu, ta gero bizkaieraz Aita Zabala-Arana'rena, txikia baña mami aUndikoa. Auxe izen zan nere eskuetan eduki nuan euskerazko lenengo metodoa. Gogo biziz ikasi nuan eta ordu ezkeroztik, euskeraz izketen dakitenei, euskera lantzen lenengo urratsak emateko, liburu orixe ikasteko esaten diet; baña euskeraz izketan ez dakitenentzat ez det uste ain ona danik, bai ikaskai bakoitzean ikasi bear diran itzak eta bai aditza-jokoan, ugariegi ta sakonegia gertatzen da. Seigarren argitaraldia izan duala jakitea naikoa, ikasleentzat oso ona izan dala ikusteko.

Arrigaray'ren metodoa degu bestea; Zabala-Arana'rena baño osotuagoa; ta gero Aita Ataun'ek moldatu ta berritu zuanean, neretzat Zabala-Arana metodo txikiaren osagarri gertatu zitzaidan.

(Arrena) oso ona izandako metodoa, Isaac Lopez Mendizabal jaunarena izan da. Oso liburu argia ta esaldi jakingarriz betea dagoala, ikasleek zailtasun aundirik gabe ikasten du. Gañera, egunero esan ei diran esaldi ta atsotitz erriko asko ditu.

Garrantzi aundikoa da baita ere, Aita Lafitte'ren euskal gramatika, frantsesez idatzia; zeatz-meatz ikasten ditu era askotako gramatika arazoak.

Azkenik, Umandi, Andoni Urrestarazu gasteiztarraren metodo aundi ta lodia. Ondo osotutako liburua ta gramatika arauak barren-barreneraño aztertzen dituana.

Konturatuko ziñatenez, nere lrrati-bidez metodoaren aurretikakoak bakarrik aitatu ditut.

Euskera metodoak ikasten asi nintzanetik, gure euskera erakusteko egokiera ta aukera asko izan ditut, eta ori oso lurralde ezberdiñetan. Lendabizi Zaragoza'n, Ñaparroa ta Bizkai'tik etorritako ikasleei; geroago Caracas'en eta Nueva York'en. Auxe aitortu bearra det: len aitaturako metodoak erabiltzeaz gain, oso gogokoa nuen nere erara erakustea. Ezer jakin gabe euskera bidean lenengo urratsak ematen asten ziranei batez ere, al zan erarik errezena erabiltzen alegintzen naiz. Nere irakasle lenengo asierak gogora ekartzen ditudanean, orduan ere nere barruan, alako era berri bat arkitzeko irrikia nabaitzen nuala esango nuke.

Alaxe, joanak joan, 1.940'gn. urtera irixten gera. Garai artan, "New York College of Music"eko ikasleaz gain, Nueva York'eko Harlem balladako eleiz batean organo jotzallea nintzan; eleiza apal, baña maratza. Bat batean, Ipar-Amerika, Canada, Cuba, Puerto Rico'n barrena iru ibillaldi luze egiteko egokiera etorri zitzaidan, euskal folklore sail baten buru. Itsu-itsuan baietza eman nion eskeintza ari, naiz eta orrela jokatuaz, nere organista lana galduko nuala jakin.

Iru ibillaldi aiek bukatutakoan, orduntxe asi ziran nere kezka ta larriak, baña ala ere jainkozkoak, erderaz esan da providencial, izan ziran neretzat. Asteak joan eta asteak etorri ta lan bat eskuratzeko itxurarik ez. Nueva York'eko eresi inguruetan oso ezaguna ta sortua nintzan, baña une aietan lan-leku gutxi bertan.

Egun aietan, 14'gn. kaleen zegoan "La Bilbaina" izeneko jatetxean sarritan agertzen nintzan nere adiskideekin. Bertako nagusiak, Zalbidea anayak eta Doña Maria, "la Aragonesa" ziran; irurak, zein baño zein atsegiñoak eta maitagarriagoak. Mateo Zalbidea, atsegiñez gain, jostalaria, aldarte onekoa zan; arekin bazkari garaia beti oso alaia izan oi zan. Egun aietan, ni ikusi ordurako, betiko galdera bera: Zer degu, Yon? Oraindik ez al dezu lanik arkitu? Nere betiko ezetz erantzunari, berak ezagutzen zuan izkuntza ikastetxe batera agertzeko esaten zidan; erdera irakasle bezela lekua izango nuala antxe. Izkuntza irakasle izateko asmorik ez nuanez, beti ezetz eta ezetz esaten nion, bere asmo ona pozik eskertzen ba-nion ere. Baña lanik-ezeko tartea luzatzen eta luzatzen joan zan eta ala iraun ezin da, jzkuntza jkastetxe artera azaldu ta erdera irakasle bezela lana eskatu nuen.

Ikastetxeko zuzendariak, azterketa bezela, orri batean nere bizitzaren berri emateko esan zidan. Bertan bera baietza eman zidan.

Ikastetxe artako jokera berezia ikasten, urrengo egunean bertan asi nintzan. Gure irakasle, prantzes andereño bat zan. Irakasle ikasketak egiten ar; giñanak laterri askotakoak; Ego-Amerikctakoak, (Puerto Rico, Colombia, Venezuela, eta abar), Frantzi, Alemani, Errusia, China ta beste zenbaitetakoak. Ikastetxe arrek zuan lana ta arraskasta adierazteko naikoa orixe.

Lenengo egunean konturatu nintzan, era berezi-berezia zerabilkitela, ta, pozak txoraturik ala nion nere baitan: "Au gogokoa zait. Euskera erakusteko noizbait ondo etorriko zaidala ziur nago".

Aste osoan bear ziran saioak egin ondoren, erakusten asi nintzan. Ikasle bakoitzarekin egunero zerbait jakingarri gertatzen zitzaidan eta xeetasun danak nerabilkin gramatikan ezartzen nituan. Illabete batzuetan irakasle bezela lan egin ondoren, berriro nere eresi-musika alorrera biurtu nintzanean, iñoiz Euskalerrira joaten nintzanezako, altxor aberats bat bezela gorde nuan.

Ikastetxe artako ikasketak ondo ausnartu ondoren, Euskalerrira osoan irakasle-laguntzalle edo monitoreak sortzeko erabakia artu nuan. Andik urte batzuetara Euskalerrira'tu nintzanean, irakasle-laguntzalle oiek sortzeko gogoa amorruru biziz neregan azaldu zan. Baña ortarako, Nueva York'eko ikastetxe adan ikasitakoa, euskerara moldatutako metodo berezi baten bearrean arkitzen nintzan.

Egokiera ori berealaxe etorri zitzaidan eskura. Egun batean, nere anai Manu'k, euskera irrati bidez erakusteko metodo berezi bat egiteko eskatu zidan. Aurrez, beste irakasle batzuei eskabide bardiña egiña zuan, baña alpe-rrik. Illabete gutxi barru, gerta neukan, urteetan Donosti, Bilbao ta Iruña'ko irratietatik zabalduko zan Euskera irrati-bidez nere metodoa.

Metodo ori argitaratu bezin zoriz, monitoreak sortzen asi nintzan. Pozik esan dezaket, lan oni esker, gaur egun eunka irakasle gai dira euskera erakustete lanetarako.

Orain, nere irakasle lanetan zer irakaspide-pedagogi erabiltzen duten eta monitoreei lana nola egin erakusten dietena adieraziko dizuet.

Lendabizi, ere au al dan errezena izaten alegindu naiz, liburuaren laguntzarekin, euskeraz ondo dakian edozeñek, baita gaztetxoak ere, zailtasun aundiegirik gabe, euskera ondo erakusteko gauza izan ditezen. Lenengo urratsa, erreza izatea da.

Ortarako, oinarria izango dan liburua bera ere, errez tajutua eta pixkanaka-pixkanaka aurrera egiteko erakoa izan bear.

Ala, nere liburuko ikaskai bakoitza bi zati motxetan banatua dago, eta zati bakoitzean oso itz berri gutxi dira; geienez ere aditz-joko bat eta iru edo lau itz berri. (Oso irakaspide txarrekoa, antipedagogikoa derizkiot, ikaskai bakoitzean itz-zerrenda luzea ikasi bearra).

Zati bakoitza, alkarrizketa eran erabiltzen da. Lendabizi, irakasleak ikasle batekin bakarrik egiten du, eta berealaxe, ikasle guziak, bakoitzak bere sallean egingo... Era ontan (era ontan) danak ariketa bakoitza egin bearrean arkitzen dira, ikastaro asiera-asieratik, gutxi bada ere, izketan asten dirala.

Ariketa guzietan iya beti, era ontan egin oi da:

- 1.—Ikaskai zatiak dituen aditz-joko ta itz berriak aipatzen dira.
- 2.—Beaiekin eta aurrez ikasitakoekin, esaldiak sortzen dira.
- 3.—ikasle bakoitzari (edo ikasle moltzoari) gaiari dagozkian iru edo lau galdera egiten zaizkio, baña nai ta naiez, baietz erantzun bear duan eran.
- 4.—Ikasle berari, beste iru edo lau galdera egiten zaizkio, nai ta naiez, ezetz erantzun bear duan eran.
- 5.—Gero egiten zaizkion galderak, dagokian galderazkoak egiten zaizkio, asieran esan bezela erantzuteko eran.

Ariketa au bera egin dezake irakasleak beste ikasle batekin edo ikasle saile osoarekin, danak batean.

Berealaxe, ikasleak sailletan banatzen dira, eta ariketa bera, euren artean egingo dute, bakoitzak bi ariketak egiten dituala: galdeketak eta erantzuketak. Tarte ontan, irakasleak sail bakoitzaren jarduera banaka-banaka entzungo du eta sail bakoitzean ikasle bikote bati ariketa osoa egiteko eskatuko dio, zerbait oker ba'lego oker ori zuzenduaz, edo oguzkera ona ez ba'litz nola esan bear dan adieraziaz. Irakasleak sail bakoitzeko ariketa osoa entzun ondoren, eguneko ikaskaiaren bigarren zatiarekin asiko da.

Irakaslea erakusten ai baño len, bearrezkoa da ikasle guziak eguneko ikaskaia entzutea, zuriz dauden tarteetan danak batera ta ozenki esanaz,

Erakusleak al dan guzian, euskera utsean mintzatuko da, erderara jo gabe. Era ontan, ikas-saioak irauten duan artean, ikaslea euskeraren lañopean murgilduta egongo da, ta izkuntzaz obekiago jabetuko da.

Ara bein zer gertatu zan Urretxu'n eta ain zuzen, nere era berri onen leneago agerpenean. itzaldia, batik-bat, Urretxu, Zumarraga ta Legazpi'ko ikasle-entzat zan, baña euskera zaletasun aundia zuen aleman emakume bat ere antxe zan.

Nere jarduera asi aurretik, Urretxu'ra etorri berria zan galiziar bat, euskeraz itz bat bera ere etzekiana zan, itzaldi artara ekartzeko egokiena izan nuan. Nik nere argibideak ematen nituan bitartean, nere metodoko lenengo ikaskaiko itzak buruz ondo ikasteko eskatu nion. Ogei bat minutu igaro ziranean, galiziar ikasle ori entzuleen aurrera ekarri arazi nuen.

Zorionez, gure galiziarra oso lasai ta patxada ederrean zegoan, eta nere galderari, batere eztabaidarik gabe ta zailtasunik gabe erantzuten zuan.— Zu

mutilla al zera?— Ni irakaslea al naiz?— Zu Oyartzun'en bizi al zera?— Ez jauna— Nun bizi zera zu?— Bat batean, aleman emakumeak erderaz galdera auxe egin zidan: nun bizi zera zu? ortan zergatik ez dezu al jarri? Nik ere erderaz erantzun njon, nere azkeneko galdera ortan al zergatik jarri ez nuan esanaz. Baña baita ere bide batez esan nion, nere erakusteko era ontan, artez, zuzen erakusketa ontan, erdera erabiltzea etzela ona, ariketaren jarduera nastu egiten zualako. Aleman emakumeak barkatzeko eskatu zidan bein da berriz. Baña nik, naita, berriz ere erderaz jarraitu nai izan nuan eta nere ustetan naiko luze mintzatu nintzasan, berriz ere galiziar ikaslearekin asi ta gero galderak egiten jarraitu nuan. Baña... oraingo ontan, zalantzan jarri ta etzuan erantzun onik ematen; danak arrituta gelditu ziran. Entzule guze oar arazi nien, tartean erdera sartzea kaltekoa zala ta orrelakorik ez egiteko. Aleman emakumeak berriz ere barkatzeko eskatu zidan, baña nik, eskerrak emanaz erantzun nion; izkuntza bat ikasten ari dala beste izkuntza baten zerbait esatea kaltekoa dala argi ta garbi gelditu bai zan.

Orregatik-ba, gramatika argibideak eman bear direnean, ikas-saioa bukatzerako uztea onena, argibide ojek erderaz eman bear bait dira.

Era ontan jokatzek, ordea, akats bat izan dezake. Ariketak oso errezak gelditzen dira, ainbeste aldiz berritzen diralako, berriz esaten diralako, eta ikasleak alperkerira jo dezateke, ikastetxean egiten diran ariketekin naikoa duala uste izan dezakelako. Orregatik, ikaslearen buruan auxe sartu bear zaio: ikas-saioa, klasera etorri aurretik, egunean ikasi bear duen ikaskaian agertzen diran gai berriak (iztegia, aditza, atzizkiak, eta abar), ondo ikasi ta buruz ikasi bear dituala, era ontan, irakaslearen lankide izanaz, askoz azkarrago ta erreza-gio ikasiko dualako. Ikaslea ori guzia ikasita azaltzen ba'da, irakasleak egingo dituan galderak eta egingo dituan esaldiak, libururik iriki gabe ulertuko ditu.

Euskera artez era onek, konturatuko ziñatan bezela, eten gabe, galderak eta erantzunak egitera beartzen du ikaslea. Orri esker, ikasleak lenengo unetik, euskeraz itz egitera beartzen du baita ere, ta ori garrantzi aundikoa da edozein izkuntza ikasketan. Era ontan ikasi ez duten zenbat eta zenbat ikasle ez daude, gramatikak dituan ezkutu guziak buruz jakin, edozein idazle ospetsuri akatsak arkitzeko gai izan, eta ala ere euskeraz iñortxorekin itz egiteko gauza ez izan? Orregatik eta leialki esan dezaket euskera artez era onen etekiñik onena, oso ikaskai gutxi ikasi bezin zoriz, euskeraz izketan asteko eran jartzea dala.

Eta goazen orain, guzi au egia dan edo ez erakustera. Eta itzaldi ontara, Ipar-Ameriketako Boise (Idaho) Ikastetxe nagusiko euskal-jakintza sallokoek Oñati'n aratutako ikastaro etorritako iru amerikar ikasle ekarri zituan. Euskera artez era au erabiltzen det nik irakasle bezela. Astelenetik ostiralera, goiz osoan euskera ikasten jarduten dute. Edozer izkuntza ikasteek, izkuntza barruan murgilduta egotea eskatzen duala, atsedean eta lasaitzeko bide bezela, galderantzun tarteetan, euskal abesti errikoak ikasten saiatzan gera, itzulpenak egiñaz eta itzen esan-naia aztertuz.

Iru illabete aurrez, euskeraz etzekiten iya ezer; Boise'ko euskaldunen artean entzundako itz bat edo beste; besterik ez. 60 bat ikas-aldi edo klase eman dituzte. Ikas dezagun-ba, ariketa batzuen bidez, euskera artez metodoa aU zer dan. Egunero klasean egin oi dogun era errezean egingo degu. Ariketa errezenek;n asi, ta gero ta zallago ta aurreratuagoetara joko degu:

NOR ZERA ZU? (Nik asi; gero Boni'k Joan'ekin; eta nik bukatu).

Nora joan zera? Ikastetxera. Elizara. Mendira.

NORA JOAN ZERA? Oñati'ra. Boise'ra. Urretxu' ra.

ZER EKARRI DUZU? Sagar bat. Udare bat. Gaztain bat.

NORENTZAT?

Ze ordu da?

ZER EMAN DIZU? ZER EMAN DiDAZU? ZER EMAN DIOZU?

Eta goazen orain, euskera erakusketan erabiltzen duten beste era bat aita-tzera. 1.968'an, ikastoletako andereño ta maixuentzat ospatu zan lenengo ikastaroan konturatu nintzan, aurrak euskera ikasteko era berezi bat sortu bearra zegoala. Nik-banekian, Euskera irrati-bidez nere metodoa aurrentzat ere oso egokia dala; eta joanez-joan ikusi degu, aurrak dirala ere au ondoen ikasten dutenak, baña ala ere, aurrentzat beste era alaiagoa eta biziagoa arkitzera jo nuan.

Prantzi ta Ipar-Ameriketan nituen irakasle adiskideetara jo nuan, aurrei izkuntzak erakusteko ziran gai guzian berri galdetuaz eta eskatuaz. Jaso nituan laterri aietan erabiltzen zituzten gaj ta argibide guziak, baña nere gogo asetzen ez eta nere-nerea izango zan zerbait sortzea erabaki nuan.

Berealaxe jausi nintzan, eresia izan zitekeela lagun ona. Izan ere eresia, edozer erakusteko garrantzi aundiko laguntza ona da. Nere Euskera irrati-bidez metodoan zeuden esaldiei ondo zetozkien eresi motxek sortzen asi nintzan.

Alako batean, eresi oiek, euskal folkloreko dantzei Jotzea bururatu zitzaidan. Andik aurrera, bidea oso laguna egin zitzaidan. Oso errez asmatu nituen eresi motxak, izan ere eres-neurri edo ritmoa bait-da, eresi-iritziak egiztatzeko bide-rik egokiena.

Gure dantzetako ritmorik ezagunenak eta bizienak aukeraatu nituan eta oiekin egin nituan aurren metodoeko lenengo abestiak, ogei ta geiago; Euskera jolas bidez izena eman nion.

Geien erabilli ditudan ritmoak auetxek izan dira: "Mutil-dantza", ta "Inguru-txo", Ñaparroa'koak, "Zortzikoa" Gipuzkoatik, "Ezpata-dantza" Bizkai'tik, eta "Ariñ-Ariñ" a ta Birikilketa, Euskalerra osoakoek.

Ritmo oiek danak poliki-poliki eta gero ta aurrerago joanaz erabiltzen dira, dantzarik errezenetik asi ta bein da berriz egiñaz, zallagoetara irixteko, dantza bakoitza jator dantzatzeraño. Entzuten dezutenez, era onen bidez euskal dantzak ikasteko sarrera bikaña gertatzen da.

Ariketa ojetako bakoitzean, aurrak, —abesteaz eta dantzatzeaz gain—, galde-erantzunen bidez, alkar-izketa motx batzuk egiten dituzte, ontarako margo biziz egindako laukiak erabilliaz.

Ariketa oiek zatietan banatuak daude; guzia, orain arte esan degun era berdintsuan, baña gañera eresia erabilliaz. Auxe da jarduera:

1.—Ikasj bear diran gaien aurkezpena, itz berriak esanaz eta dagozkien esaldiak egiñaz.

2.—ERESIA abestu ta KEÑUAK egiñ.

3.—Baiezkoa izango duten galderak egin.

4.—ERESIA abestu, DANTZAREKIN batera.

5.—Ezekoa izango duten galderak egin lendabizi ta ondoren GALDERAZ-KOA (INTERROGATORIO) izango dutenak.

6.—ABESTIA, DANTZA EDO JOKOA egin.

Esan bearrik ez, ariketa egiten asi aurretik, abestia buruz ikasten asi bear dela eta ritmoa, txaloen eta urrats edo pausoen bidez.

Euskera ikasteko era au ikastetxe batzuetan aurrera daramate eta jasotako etekiñak ezin da obeak dirala ba-dakigu. Bearrezkoena dan euskara ikasteaz gain, aurrak berealaxe ikasten dituzte gure folkloreko ritmo eta dantzak, ta guzia, alaitasun eta jai giro batean.

Joan dan udaberrian, benetan gertakizun atsegiña izan nuan. Boise'ko "Basque Studies Center" eta Reno (Nevada)'ko "Basque Studies Program"ekoak euskera ikastaroak ematera deitu ninduten. Bi ikastetxe oiek, bertako Ikastetxe Nagusiko zati batzuk dira. Boise'n, aziei emandako ikastaroaz gain, aurrei beste bat eman nien; jakiñekoa danez, "Jotas bidez" era erabilli nuan. Aurren ikastaro bukaeran, "Basque Studies Center"koak, ariketa aiekin zinea egitea erabaki zuten, iyekiak kopiak atera ta Ameriketako beste euskal etxeetan diran euskera irakasleei bidaltzeko. Boise'ko Ikastetxe Nagusikoak beaiek beren lantoki-estudioetan lan ori egingo zutela, ta lenengo zazpi abestiekin egindakoa margo bizietan erakutsi ziguten. Batzorde zuzendarikoei oso gogokoa izan ziela adierazi zidaten eta ikustirradi edo Telebisio bidez ematea erabaki zutela. (Ara nolatan, ordu erdi irauten duan euskerazko saioa, Idaho'ko ikus-entzulei eskeñi zieten eta ez bein bakarrik, bitan eman ornen zuten).

(Zine orren iyeki-kopia bat ba-det video-cassetten eta zazpi abesti ba-ditu ere, Euskera jolas-bidez ortako iru bedenik emateko egokiera ba-det (TVE'ri esker).

Lendabizi, NI ANDONI'REN ALABA NAIZ izenekoa erakutsiko dizuet; emen, Naparroa'ko "MUTIL-DANTZA" ritmoa erabiltzen det, "cromlechs" inguruan dantzan zan antziñako dantza gogoerazten duala:

(NI ANDONI'REN ALABA NAIZ zatia ematen da).

Urrengo ariketan, baita ere beste napar ritmo bat erabiltzen det: "Inguru-txo", NI ERRIRA JOAN ÑAIZ abestiarekin:

(NI ERRIRA JOAN NAIZ ematen da).

Eta azkenik, NI ETXERA IGO NAIZ eresia dijoakizute, Bizkai'ko "Ezpata dantza" ritmoa oñarri duala; indar aundikoa ta bide batez oso berezia, eta txalo ta urrats otsekin gertutzea eskatzen duena:

(NI ETXERA IGO ÑAIZ ariketa ematen da).

OÑATIBIA'TAR JON

MUNGIALDEKO ESAKERAK

1. Ai! guzurre: guzurre merkia da tal
 2. Bururik ez dekonak kaderakaz ibilli bear dau.
 3. Gure gazte denboran, askia altu euki gendun: Onegaz esan gura dau gosea paseta dagozala euren gazte denboran.
 4. Orrek biarra *leba gitxigaz* eitxen dau.
 5. Orreri ez deutzo "lebarik". (No le importa).
 6. Gure umiak, "zer gure eta nora gure" dekoia nigatxik.
 7. Ardaa edaten asi zatez? (Jatabe).
 8. "Guruzu" (gura dozu) ez dakarrela? (A que no trae).
 9. Zuek oraintze egin bear dozue "aberastu edo barrabastu".
 10. Lagun "pertsona" ori baiño atzeriaurik (corto) ez dau (dago).
 11. Baj, esaten dan moduen balitzeke!
 12. Pena au zetan eukirik eztekot (ez daukot), pentsetan dot nik.
 13. Batek diñotso bestiari: "Ei, ik eztiak estu dekozak eztok (ez dok)?"
 14. Neu naz ba!
 15. Gizon guztiek bardiñ, emen ta an ta leku guztietan.
 16. Gizon ori "yangoa" baiño ez da.
- Yangoa: egoista, gorron.
17. Au dozu lobe? Izan daitela osabe baiño obe! (Katika'n).
 18. Beiñ, Birle'ko glzon zar batek au esan eban erriko tabernan:
Euntzentzako baso ta andrentzako zozo!
 19. Beti jaten ta beti jateko!
 20. Bizi aberats ta ill pobre.
 21. Kobriak sarteneri baltza esan eutson.
 22. Orrek "euli bete esku" ez dau balio.
 23. Guruzu (gura dozu) tragu bat ala?: Ez, leporaiño beteta gauz (gagoz) eta!
 24. Joan zoaz ala etorri zatoz?

JATABE'KO IG E R KIZU NA K

Aintziñako denporetan sutondoan bilduten zan zendi guztia gariak eta artoak zuritu eta garanduten. Garai artan gaur egungo aparailurik ez egoanez euren artean kontetan ebezan ipuiñak, igerkizunak, bertso-zaarrak eta abar...

"Euskerazaintza" aldizkarian, zenbaki ezberdiñetan, Jatabe'koa dan Ziriaka Urrutia'k neuri kontatutako; igarkizunak, ipuiñak eta bertso-zaarrak idatziko dodaz.

1. Iñoiz jazo ez dana ta beiñ be jasoko ez dana, zer da?: Katu belarrian sagu abirik ez.
2. Yoago ta maiteago, zer da? Pelotea.

3. Buztanagaz jaten dauan aberea, zein da?: Buztandunak danak, batek bere ez dau kenduten jateko eta.
4. Zulo utsa izan ta urez bete leikena, zer da?: Ezponjia.
5. Andereño señorita bat beti kotxjan ta beti bustirik, zeñ da?: Miña.
6. Basoan jaio, basoan asi, errira etorri ta bera nagusi, zer da?: Alkatean makilla.
7. Etxian isilik ta basoan kantari, zer da?: Askorja.
8. Lurriaren gañian pala bi, pala gañjan makilla bi, makilla gañian sakua, saku barruan errota, errota gañian zazpi zulodun gona bat, zer da?: Laguna edo pertsona.

JATABE'KO KOPLA ZAARRAK

Mungialdean garai baten testotan jardutea zeritzona egoan.

Testotan egitea bertsoan jardutearekin loturik doa baiña testua esaldi edo perpaua utsa besterik ez da. Esaterako: Osabia ta lobia zeñ ete da bata bestea baiño obia.

Kopla zarra bertsoaren erdia da eta Bizkaian oso zabaldurik egon da aspalditik. Bertsoa bertsolez Urretxindorraren bitartez zartu zan Bizkaian ta argi utxi bear dogu zortziko andia bakarrik sartu ebala, zortziko txikia Bizkaian ariñagotik baegoalako.

Mungialdean testo-kantari ugari egon dira baiña denborarekin galduz joan dira. Alanta guzti ere kopla zaar batzuk lortu aal izan dodaz.

Orregaitik Jatabe'koa dan Ziriaka Urrutia'ri emon bear dautsadaz eskerrak beragandik jasoak bait dira onako kopla zaar auk:

I
Illargieri eiten yakoz
begiak illundu.
Zaindu bearrik ez dau
ez dadiñ aldendu.

II
Baiña Jaunak oi dausku
gauza bat agindu,
biziak lur emoten
eiteko lagundu.

III
Badaki naiko ez dala
eriotz zigorra,
ta bizi aal izateko
denbora laburra.

IV
Ludjari eiñ bear
betiko agurra,
arimeagaitik daukot
geroko leldurra.

V

Goiz jaio nintzalako
bizi naiz berandu,
gaztetasun guztia
egiñik aldendu.

VI

Ori oiñ (orain) ezin geinke
atzera gogandu,
bestela artuko geunke
nork emon bagendu.

VII

Eriotzia datorku
gurana gaiztorik,
zaar artuko gaittuz
baiña beste asko gazterik.

VIII

Gazte batzuk ez dauke
olango usterik,
baiña lur zaarra baiño
ez dauke besterik.

IX

Eriotzia laister
daukagu atian,
itziko ez dauskuna
iñori bakian.

X

Artez ibilli gaitezan
aal dogun ^{ardan,}
oker ibilli ezkeru
ariman kaltian.

XI

Bizi garen guztiok
gaude gu sortian,
eriotzian itzala
agertu artian.

XII

Zor ori ordainduko dogu
egunen batian,
sartu baiño lenago
gu danok ^{urdian.}

XIII

illaezin ba euki
bizien lekuan,
geuk eroango dogu
arturik lepuan.

XIV

Senideen atzetik
negarrez lautua,
ai zeñ egun itzela
ori aal gaituan.

XV

Ñaizi jzan zenuen
naizi izan dadilla,
bizirik jaio dana
izango da illa.

XVI

Eriotza gau ta egun dabil
guri deika,
ta egun zoriontzu baten
agertu dadilla.

XVII

Zelakua dan gure
munduko bizitza,
alantze izango da
gero geure eriotza.

XVIII

Asko bizi oi dire
munduan arrorik,
zerua itxaroten
dau (dago) nekatu barik.

XIX

Zenbat dagoz errata
infernu barruan,
uste ebenek zeudela
betiko zeruan.

XX

Zeuri beste ainbeste
yasoten bayatzu,
belu esetu barik
zeuk egjn bearko dozu.

XXI

Zeure burutaziño
lagunen esanak,
naiz ta zorigaiztokoak
galdu zinduzanak.

XXII

Munduko esti gozo
poztu zinduzanak
ez ditubez izango
azken atsegiñak.

XXIII

Arjimegaz ez aaztu
bizi atsegiñez,
alan dozun guztia
amaitzeko onez.

XXIV

Jaunaren berbiari
ez burlau edo gortu,
beti sjiñezten dozun
bidia billatu.

XXV

Jaun onak aginduak
imiñi zituan,
orretarako sartuko
bagiña zeruan.

XXVI

Bere berba andiak
ez dau uts emongo,
oraingo isiltasuna
da bai agertuko.

XXVII

Arako azkeneko
eguna sarrian
agertuko da ondo
guztien aurrian.

XXVIII

Ez da iñoiz izango
burla ta barrerik,
ez dau iñoiz jzango
biots pozgarririk.

XXIX

Asko badira ere
bide nasaikuak,
danok artuko gaitu
epai betikoak.

XXX

O Jauna andi ta jabe
beti betikoa,
egizu izan nedjlla
zeure aldekoa.

XXX1

Ondo bizj nadilla
gero ondo ilteko.
betiko zeruetan
zeugaz izateko.

ESAERA ZAFRAK

- 1.- "Xagua katuaren atzetik".
- 2.- "San Juanetan, eguzkiak dantza".
- 3.- "Ara bi: zu bat eta bestea ni".
- 4.- "Andikia, inpernuko lebazkia; pobrea, zeruko lorea".
- 5.- "Emen bizi gerala zerua eta ildakoan zerua, ezta gauza segurua".
- 6.- "Egizu beti on, ez jakin arren non".
- 7.- "Gabera ezketiño, belarria begi".
- 8.- "Nongoa aiz? Joan eta bertakoa".
- 9.- "Soinuaren arauera, dantza".
- 10.- "Frantsesa, mala cabeza, urak eraman, larrak gelditu, otsoak ipurdia larrutu".
- 11.- "Esan egiñak parkatu eta urrengoan sakatu".
- 12.- "Beñat, astoaren koñat".
- 13.- "Elurrak ateak jxten dñtu".
- 14.- "Mari Andresen okotza; bost libra eta sei ontza".
- 15.- "Iru, korta bete diru".
- 16.- "Iru, korta bete miru".
- 17.- "Ñik bai igarri nor dan egarri".
- 18.- "Ezkondu eta garbatu".
- 19.- "Lenengo, asuna; gero tasuna".
- 20.- "Udaberrik odola aldatzen dik".
- 21.- "Edo; eta a;ze, euririkan ez; solas eta ele, obrarikan ez".
- 22.- "Alaba bi eta iru seme, ad;ñ-on ume".
- 23.- "Etxe onean, barri txarririk ez".
- 24.- "Besteren ama ona, baiña nobere txarra, oba".
- 25.- "Umerik ez daukanak, ume miñik ez".
- 26.- "Ezurrak etxean gelditu ezkeru, ez da ajolarik".
- 27.- "Gabeko bearra egunerako lotsari".
- 28.- "Etxeko ez eta jauregiko".
- 29.- "Urte askoan, txapela kaskoan".
- 30.- "Burua ganz-gezaz baldin baduk ez adi izan laba-zain".
- 31.- "Arrausia agorik ago, katamixarra pagor;kpago".
- 32.- "Juana kakat; ospaletan, bear ez dan orduetan".
- 33.- "Enero, Febrero, Marzo, Abril; txakurraren tutua gora dabil".
- 34.- "Pazk Bigarrenez egindako lana, irugarrenean urak eramana".
- 35.- "Ontzari ez begiratu lumara".
- 36.- "Gatza, Gatzagan; koipea Motrikun, arekin egiten dira azak bigun, bigun".
- 37.- "Jose janda bere, gose; edande bere, egarri; Jose barregarri".
- 38.- "Sabeldurak gaitz ditu urak".
- 39.- "Martxoko oilloa, oillotxu".
- 40.- "Irabaziak, oiñak arin".
- 41.- "Erroiaren arrautzeak, usakumerik ez".
- 42.- "Nagusi askoren astoa, goseak".
- 43.- "Begi guztiak ez dabe egun baten negar egiten".

- 44.– "Martxoan airea gorri, goizoro edur barri".
 45.– "Udabarrin, lur guztia ernemiñ".
 46.– "Ura ta sua beti belaunetik bera".
 47.– "Maria, Orion trumoiak ta Markiñan euria".
 48.– "Garizuma goiz bazan, berandu bazan; erdia gitxienez negua zan".
 49.– "Egun batak bestea urre dauko".
 50.– "Kandelarioz edurra, joan da neguaren beldurra".
 51.– "Kandelarioz eguraldi ona ikustea baiño, ardi artean otsoa ikustea obe".
 52.– "Martxoko trumoiak, berrogei eguneko negua".
 53.– "Ongi egiñari ondoan iriti (igitai)".
 54.– "Kandelario elurra dario, San Jose-k lagunduko dio".
 55.– "Odolak su barik diraki".

Malax Etxebarria'tar Yon
 "Juanito Josealderen semia"

"MUNDO"KO "HEMENGO GAUZAK"

Gaztelera	Batuaz agertuak	Euskeraz bear lutekena
El mejor ejemplar	Ejemplarik ederrena	Erduzkorik onena
lo intervenido	interbenitutakoa	Asterkatutakoa
documento	dokumentu	argibidea
curiosos	kuriosoak	adigarriak
paranoico	paranoikoa	erdi zoroa
para reflexionar	erreflexionatzeko	ausnartzeko
los errores	erroreak	uts egiteak
valentia	balentia	ausartasun
para estorsionarlo	estorsionatzeko	beartu asteko
evidentes	ebidenteak	nabariak
lo más monumental	monumentalena	egundokoena
no esperaban	ez zuten espero	ez zuten itxaron
memori histórica	memoria historikoa	edestiko oroimena
imagen plural	irudi plurala	Batzuen edo askoren irudia
nuestro error monumental	geure errore monumentalak	gure egundoko uts egitea
a hecho posible	egin baitu posible	leikena egin baidu
mudos	mutuak	mintzo gabeak

Barkatu egizue idazleak, itz labur oiek ondorio ona lekokie ondo egiñak balira, bañan era onetan agertzen baditugu gu gara edo gera gure izkuntza ilko degunak.

Zer nolako euskera erakutsi edo ikasiko degu?

Tamalgarría benetan.

Ez da arritzeko ondo dago esan bearrean Vale esatea.

(1993 gn. irailak 12an agertuak).

LIBURU BARRIAK

1. Aita Lino Akesolo'ren IDAZLAN GUZTIAK

Iru ale dira, eta lenengo ale biak A. Lino il aurretxoan argitara emonak, eta azkena oraintsu. Ale galantak irurak, lenengoak lez (820 orrialde di onek) tomu gizenak, ondo josiak eta biribillak, bete-beteak

Gaur Bizkaiko Aldundiaren buru dan Jose Alberto Pradera, Gernika'ko seme argjak egin dautso, labur baizen guntsu, itzaurrea.

Idazle zangarra zan Aita Lino gaztetatik zan euskal idazle, eta orretan ziar-duala "guazen esanaz kiñu berezia ziñatu eutson eriotzak, eta jo-joan jakun Oba'ko karmeldar azkarra; gu eta euskal letrak negar zotinka geratu ziran. gu eta euskal letrak.

Akesolo'k alan be, ba zituan biotz onak, eta oneik bertatik asi ziran lenakin eta barrjakin txorta ederrak osotzen, esku artean dozuzanak pillatu eta osotzen. Merezi zitun eta or dauskazu.

Dimostarra beti, nik ezagutu neuanez, gazte-gaztetatik izan jakun bitzi-batzaille: irakurriz, eskuan eukan luma, eta irakurtean itz edo esaera dotore edo raroren bat aurkitu ezkeru, eskuaren mende ekarren paperean jarten eban; ingurrazti asko eukazan olan beteak. Astia eukanean eurok irakurri eta idazterakoan lan dotore atsegiñez gaiñezka eskiñi oi euskuzan. Irakurriz ikasten da, eta Lino'k gogoko jakozan zerak jasoten ekian, aren lanak gero orrek egiten benetan begi-begikoak. Iru aleok daukazuz ezti-jarioka.

Gai asko ta sakonak darabiltz. istoria, literatura, musika, artu-emonak, eztabaidak, zer ez? Ezin eban eroan utsik, batez be, akats egiena jakintsua ba zan ikus zelan darabilen txibita, bape lotsa barik nik esango, Mitxelena, Villasanteta abar astintzan; nirj be, adiskide lankide izanik be, iñoiz zelan astitzen daustan lepoa; ona bein, bape erru barik: mugaz besteldeko euskal idazle baten lana ez neban estrofa baten ondo aldatu, eta or datorkit ni zantiatu naiean. Egi-zale porrokatua. Mesedegarri bene-benetan aren lanak irakurtea.

2. Euskera'ren ebazkizun aundia

Urrestarazu'tar Andoni Umandi'ren lana. Itzaurrea ta liburua erderaz eta euskeraz, 224 orrialde ditu. Ona aurkibidea: Gazteiz eta euzkera; Euzkera'rentzako norabjdeak Euzkeraren batasuna; alkar lagundu bear; eginbide nagusi; laburpenak dirala-ta; Euzkeraren bearra; Euzkerari begira beste azpegi batzuk;

Ona zer diñoan Euzkeran bearra diñoanean:

"Esandako guztia egi-egia dala oarturik, nola ez dugu aitortu bear Euskaldunak erri bat osotzen dutela? Orra ukatu ezin liteken egi borobilla; ta erri geran ezkeru, ara Euskalerrria lurraren gainean dagoen biziduna bizi dalako, berez Erri biziduna dala; ta, koma, noski, berez bizidalako, bera dan bezela bizi izateko bererena dan eskubide osoa. Edestian barna beste izenakaz ere oa(aerazi nai izan mendez mendez; karistioak, atrigunak, bretonesak, kantabroak, inglandarrak, prantziarrak, espainarrak, azken iru auek jndarrez karritarrez jarrj-ta; baiña guzti euskaldunak izanez diranen aldetik ipiñita; eta bitartean euskaldunak, euzkeraren izanda beti iraun al izan duena, eta bearra zanez, proxe eizkalduberak e,amda izan dalako".

3. Donibabe gurutz olerkari

Juan Gurutzekoaren urte urrena ospe biiziz egin nairik egiñiko lana: "oi maite-sugar bizi" dau asierako len-buru lez. Andik eta emendik omenaldi asko izan daus karmeldar santu onek urte guztian barrera, bai karmeldarrek eta bai ostantzekoak eskiñita. Santu aundi ta olerkari ez txiki zanari danak zerbait egin gura. Ertz askotatik begitu daikegu santu oni eta nik olerkari lez dakart gogora. Izan be ez genduan edozelako poeta; gaur askok diñoanez, espaiñar literaturan danik onenetarjkoa dogu karmeldar bakar-zale ixil au.

Nik sarri irakurriak nebazan aren olerkiak eta itz-lauzko lanik beiñenak, eta arriturik gelditu nintzan beti idazlearen eder-zaletasunaz. Ederrak eragiñak doazuz, ain zuzen, aren lumatik urtendako pentsamentu guztiak; dana zan eder, dana zan olerki. Ona aren idazlan nagusiak: "Gau illuna", "Maite kantua", "Sugar bizia" eta abar. Olerkitan blai-blai. Eta onexek dira batez be nik lan onen ardatz izateko aukeratu ditudanak. Lan guztiok azterturik bertatik ikusi dot, zeuk be, irakurle, ikusi daikezunez, Santu aundi onen eder-gosea.

Nire lanak "Donibane Gurutz olerkari daroa izenburu. Lau-bost ataletan zaitu geinke: Bizitzea, Olerkiak, Karmel-mendirako igoera, Gau illuna, Maite-kanta, Maite-sugar bizia. Gai bakotxa astiro doa aztertuta, 341 orriko liburua egiñik.

Bizitzea naiko zeta osoturik dator; olerkiak aundi ta txiki amalau euskaldun esku batek margozturiko esku bitxi batek egiñiko irudi politez beterik; Karmel Mendirako Igoera, lenengo Liburua zortzi ataletan; bigarren liburua, espirituaren gau eragillea; irugarren liburua, espirituaren gaua. Gau illuna, liburu bi. Maite-Kanta (Kantiku espirituala) 40 estrofako kantua, esfrofa bakotxa jakintza aundi-biziz azalduta; Maite-sugar bizia, lau kanta. Azkenak onela:

Oi maite sugar bizia!
Samur zauritzen dozuna
neure arima mamin erdi-erdian!

Orain ez bai zara muker
amaitu olan nai izanez
alkar jo eizuz loki bigunez!

4. Euskal amerikar ... Zamakola.

Bizkaiko erri mendartetsuak ba dira gurean, eta bat Dima, mendi atxarte zela; ta landa joriz betea, eguzki alderantza begira. Ementxe daukazu Indusi ta antxiñako ur-saltuak be bai; ortxe Indusi'tik aurrera joanik topo dagizu Zamakola baserrjaz eta gorago daukagun koba-zulo ospatsuaz: urte batzuk dira Xabier Peña eta Kisti finlandiarrarekin ango bazterrak ikusten genbiltzala bidean aurkitu genduan Barandiaran jauna iru gaztekin arri-koskor zenbaketan.

Esku artean daroat liburu bat Zamakola'ra buruz idatzia. "Juan Domingo de Zamacola y Jauregui, Aita Antonio Unzueta karmeldarrak Perú n oraintsu eta Bizkaiko Diputaziñoak argitara emona. "Su obra en el Parú diño" diño azalean.S.XVIII.

Zamakola apaiza, bere lurraldeko jakituriz betea, Peru'ra aldatu zan eta an bere jakituriz eta trebetasunez ainbat gauzetan arrigarri agertu zan liburu onek diñoskunez. An ezezik emen be ospe aundiko izen zan Zamakola. Gizaseme aundiak nainun eta noiznai eder.

154 orrial ditu liburu bitxia onek.

5. Bizkaiko olerkariak

Idazteko modu bi.itz lauz, askatuz eta lotuz eta olerkiz eta bertsotan.

Bakianarentzat biak eder, baiña olerkiz idatzia, beti bikaiñago. Bietan idatzia daukaguz ango eta emengo literaturak, bardin euskeraz be, euskal arlo guztietan, leen eta orain. Arlo onerj buruz Bizkaiari dagokionez, "Bizkaiko Olerkariak" argitaratu neban nik, 399 arrialdeko liburua., aurretj; geiena beintzat "ZER en emona ba' zan be.

Idazleen lanik zaarrenak itz lotuz -or esaera zaarrak- idatzia ei dira. Gure supita, esakun eta olakuak olan daukaguz; mugaz andik nai emendj; beti solas lotuan. Gaur errialde txikia gareala be, literatura ugari samarra daukagu era biotan prestatua. Ni, irakasleak gaztetatik ortara bultzatua, beti izan niaitzu olerki zalea. Or "Milla Euskal Oledj Eder", "Oleri" aldizkaria eta gañerakoak...

"EZTER"-ri laguntzen asi nintzanean, euskal olerkariak aitzen emon eta zabaltzea zan nire arazo beifñena. Eta azkenez liburu mardul au osotu neban Euskalerrri osokoena larregi izango zala-ta. Orrez gaiñ bizkaitar eder-zaleen egiña etzan ain ezaguna, eta merezi eban olako liburu eder bat, Liburu onek diñosku zer ziran eta zer egin eben bizkaitar olerkariak olerki saillean.

Urte batzuk dirala Bilbao'n emon neban poesi zarrari buruzko itzaldi dator aurrenen, gero antziña-antziñako bertso sailtxoa dator, eta ondoren bizkaitar olerkarien sail ugaria Diego Lorenzo Urkizu'gandik Joseba Mirena Bilbao'raño, ainbat poesi-idazle.

Gizaldi ontan naikoa olerkari eder agertu izan dira gure literaturan, or Lizardi eta Lauaxeta. Or gaur be Lekuona gaztea. Baiña damuz diñot gaur gure olerkigintza porrot egiñik lez daukagula. Gerra aurretik, bai Seminarioan eta bai ainbat praille ikastetxetan maite zan euskal olerkia eta bizi-bizi idazten zan; Aitzol genduan zuzendari eta su emoilie; Oleri'k urteetan eutsi eutson su orrj, gaur ez dogu olakorik eta beerantza doakigu, itzaliz, igarri barik. Ba-doguz sari ketak eta sari oparoak, baiña... Igaz nik Benidorm'era eroan neban Bizkaiko Aldundiak sarituta berak dotore argitara emondako olerki txortatxoa, nik ara eroan neban an irakasteko asmoz, bertan baiña, birritan irakurrita be ez neban aurkitu garrantzi aundjkorik. Penaz ekarri neban neugaz amesti eroan neban poesi-liburuska.

6. Euskal literatura (VI)

Etor, Geure mendea. Seigarren atea, zazpigarrena azkena.

Lenengo sarrera antzo labur baten ostean. gipuzkoarrak Migel Iturbe eta Jokin Zaitegi'gandik aurrera 82'raiño euskal idazle. ondoren b;zkaitarrak eta mugaz bestaldekok, sail bikaiña.

Urte batzuk dirala, txantxetan lez asi neban lan gogor au lan zailla eta orrela da, goiz batean eguzkiari laiño artetik agertzea zail eta neketsu izan oi jakon antzekoa. Ekin eta ekin alan be, eguzkiak lañotzak gainditu daroazan erara, nik bere. Amaika eskutitz idatzi bear izan dot, amaika konsulta, liburu azterketa, baita pozaldi galantak datuak aurkitzean dituan poz-atsegiñak nunbait. Ondorengoak obeak egingo dabez, euskal literatura beteagoa osotu; ona zerbait oiñarri lez. Ez naz ibilli txalo billa, batzuk onartu dabe eta esku zartak jo, beste batzuk ez dabe ezer esan, ari ta oni ni eskarrez nagokie.

Aita Onaindia

ANES EZ DA ANE

Arana-Goiri'tar Sabin'ek atera zuen bere garaian Euskal Izendegi bat. Santuen izenak ziran euskera-antzeria ipiñita. Esate baterako: Anastasio Anastasi.

1972'garrenean J.M. Satrustegi'k beste bat Euskalerrri'ko idaztietan arkitzen direnak.

Gaurko egunez, berriz, Izaki osoaren izenak jarri dizkiete gurasoek euren umeei: Aizea, Itsaso, Lur, Arri, Arkaitz, Ibai eta bestelako izan xeble guztiak. Orretan askatasun oso-oso dago bai Rizaren aldetik eta bai Udal-etxeen aldetik; baña, ni orain 81 urte jaiotzen nintzanean ez zan orrelakorik: Elizako santuen izenak bear ziran, nai ta nai ez.

ANES izena lekittarrek erabiltzen zuten eta oso zan ezaguna Lekeitio'ko kaletan 1.912'garren urtean, Eustakio'k bere lenengo aurra izan zuenean. Berau Sabin'en jarraitzailea zan eta bere semeari euskal izena ipiñi nai zion. Itzegin zuen bere emaztearekin eta, Anastasio'ren ordeaz (nere amaren aita), ANES ipintzea erabaki zuten.

Joan zan Eustakio eleizara eta ori ez zala santuen izena, bota zion aurpegiara txanburuak. Andik Udal-etxera abiatu zan; baña, alperrik. Emen ere berdin erantzun zioten: Ori ez zala ume bateri ipintzeko izena.

Eustakio'k, ordeaz, bere astuari arretu: Au neure semia dok eta neuk nai dotan ixena ipiñikotzat. Baita ipiñi ere: Sekulan, jaiotzen nintzen egunetik eurok il ziran egunerarte, neure gurasoen agoetik ez det ANES beste zenik entzun. Nere senitarte guztian ez zekiten nik beste izenik nuenik ere. Bada gure artean Anastasio bat (Albisu Ayerdi), ni bañon iru urte gazteago, eta izen ori berak eraman du beti, nik neurea eraman dedan bezala.

Nik paperak bear izan nituen artean, ez nuen jakin neure paperetako izena ANASTASIO (ANASTASI) zanik ere. Apaiztu nindueanean, Meza berriko txartelatan Anastasio izena ikustean, arriturik galdetzen zidaten: -I ez al aiz ba Anes?

Nere izenaren okerkeriak ez dute amairik. Orain ogei urte inguru, Anes Lazkuko ezizenekin lanak argitaratzen nitueanean, nere OTOTO TA POTOTO'tik, txiste bat aukeratu zuen irakurgai Zarautz'ko Ikastolak eta izena ANE bihurtu zidaten: Ane Lazkuko. ZER, gure aldizkari jatorrean ere, aldi batean Ane Arrinda izenekin zuzentzen zidaten ale bakoitza. Eusko Jaurlaritzak bialtzen dituen BERRIPAPEREA oietan ere AÑE ARRIÑDA nintzan. Zuzentzeko esan eta gauzatxo batzuek zuzendu zituzten, baña izenik ez, ANE ori or zegoen zutik. Bigarren mezua bialdu nien; alperrik. Irugarrenean Anes izenari, "apaiza" irantsi nion eta oar auxe: Zalantzarik ba'dezute galdetu Mari Carmen'eri, izan orretxekin eza gutzen nau aspaldiko urteetan. Irugarrenak belio izan zuen. Okerrak ez dute etenik: TXO, itxasgizonen aldizkarian, nik idatzitako Lekeitio'ko kanta batzuek artu dituzte gure EUSKERAZAIÑTZA aldizkaritik, eta berriro, AÑE ARRINDA...

Onak ez du amaierarik. Orrelako izen aldrebasa al da ANES? Bada izen orrekin mutiko bat Deba onetan eta bere amari galdetu nion, zergaitik ipiñi zion Anes izena bere semeari. Euskal buruzagiren bat ote zan edo, erantzun zidan; baña, gauza garbirik ez zekien. Erruki diot. Nik eskari au: Nere giza-izakia ez aldatu, mesedez. Emaztekiak izaki xarmantak dituzu; baña, ni ez naiz emaztekoa.

Ekainillak 26.1993

Arrinda'tar ANES

EUTSI EUSKERA-ETA EUSKALERRIARI

Euskalerrria euskaldunok, ezin degu euskera eta berak dituan oitura onak nolana txanpon batzuen truke aldatu, (obeagotzen alegindu bai), bestela errua gurea ere danez. Zorioneko euskera! Alaere, au bataioko aginduak iragartzeko ez bada erabiltzen, gure erlijari dagokion askatasunean, Euskalerrria ez da ain euskalduna izango iñola ere. Euskera zaindu, Euskalerrriari eutsi, eta orrela bada euskaldunon egitekoa, gure erlijioa ere onartuaz, ez gera Berri Ona edo ebanjeliotik ain urruti ibiliko Eliz amaren babesean. Zergaitik gure erlijioa erabiltzen dedan? Gure erlijioa, zaarra bezin arduratsua dalako euskaldunontzako batez ere, eta era bereari lasto utsean gelditu ez dedin, euskera eta Euskalerrria (eta bereziki euskalduna). Euskera eta Euskalerrriak daraman dardara, ez ote da izango otoitzari iruzur egiten ari geralako? Aurrerapenaren geiegikeriak eraginda bada kristau siñismendun geranoi zer pentsatua ematen digu... Euskalerrria goratzea bidezkoa da, bidezti geranoi lurtar bagiña bezela gerta ez dakigun. Belaunaldj berriak oitura berriak erakarri digutela eta aldaketak, baña, eguzkia, bizitza, eriotza... eta oiek nola aldatu? Eta bizitzak bakarra izaten jarraitzen du, bakarra: Zorionez zorionerako, Jesus'ek gurutzetik euskaldunoi ere jartzen digun aukera.

Garai berriakin Euskalerrria obeagotzeko erabilli bearrean bizio eta zabarkerirako bada, gure ames euskaldunakin Euskalerrri alperrik galdua eraikitzeko izango da.

Benigno Madina
VII-1993

AU IZKERA JATORRA

Saran, emakume batek denda batera sartu nai zuan, ta beste emakumezko batek sarrera oztopatzen zion. "Paso, por favor" ara zeñen erraz eta jator adierazi zuan: Bide!

* *

Nere amonari orra bein entzun niona, oso esakun bitxia iruditzen zaidana:
"Ori ZERUA BAIÑO GAIZTOAGOA da".

Zergatik "zerua"? Agian zeruak egiten dituan eguraldi aldaketengatik-
edo...?

M.O.

▪ Ez dezu lan askorik egin...

- Gaur ere eudiya da!

- Ze ordu da?
- Seirak jUak.

- Nor ba-giña...

- Alkandora garbiya al dezu?
- Bein bakarrik jantzi det BEINTZAT ETA...

- Ederki eman ere!

Oraindik oso urruti daudela ikusirik:

- Ez gaude alleaturik! (iritxirik),

- Aur oiek, ez dute ESANIK EGITEÑ.

- Ñundik nora jo jakin bear da.

- Ez dezu aragi ASKORIK Jan! GOSERIK EZALA?

- IÑOÑDIKAN ERE uraxe bear NAI TA NAI EZ, eta IÑOLA ERE EMATERIK EZ!

- Asarre-aldi beroa izan zuten: AIÑ BEROA ERE...

- ALAKO BATEAN ALA DIO...

- Ondo jarri al dezu?
- NERE USTEZ BAI!

- GOIZTXO ETORRI ÑAIZ. Berandutxo etorri naiz.

- BESTEEN BIZKAR ikasi bear da.

- ASPER-ASPER EGIÑA ÑAGO!

- Zer eguraldi, ama?
- EUDITARA DOA.

- EZIÑ BESTEAÑ.

- IXIL ANTZEAN

- BERTAN GOXO EGIÑ DEGU.

- Berealako batean...

- ALA BEREAN...

- ARA BESTE MARI-ITTURRI...

- Aurten ari dira EUN-DA-BERE-ALDIKO omenaldiak egiten!

- NUÑEAN-NUNEAÑ...

- Beste bein, BETIKO ALAKO, larri arkitu ziran.,

- Eudiya EGIÑA DA!

- Gau-giro ederra daga!

- LEEÑAZ-GAIÑ ORAIÑ AU AL DEGU?

- Zer eguraldi? -Gaur ere GOIBEL.

- Ez gera BERETZAKO AIÑA IZAÑGO!

- ESKU-BETE OBIREKIÑ ikusi izan det.

- Oraindik orain...

- An izan zan izatekoa!

- Arik eta konpondu arte

- Bein batean...

- Bizitzeko ez da askoren bearrik.

- Ez eraman! Oraindik bear det eta...

- Izan ere...

- Orixe ta bera, Jauna!

- Ze eguraldi?

- Eudiya dala uste dut.

- BAI ZERA! (erabat arrituta ta naigabetuta).

GOIZ ZALAKOAN, ordulariaren ordu-kanpayak entzundakoan

- Bederatziak ote?

- Zuk ez al dakizu ori nor dan?

– **JAKINGO EZ DET BA!**